

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Rosa Parks eta Jim Haskins

ROSA PARKS

• NIRE ISTORIA •

Itzulpena:
Amaia Astobiza Uriarte



katakarak
liburuak

Rosa Parks eta Jim Haskins

***ROSA PARKS:
NIRE ISTORIOA***

Rosa Parks eta Jim Haskins

***ROSA PARKS:
NIRE ISTORIOA***

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Jatorrizko izenburua (1992): *Rosa Parks: My Story*

Egileak: Rosa Parks eta Jim Haskins

Jatorrizko lizentzia: © All rights reserved including the right of reproduction in whole or in part in any form. This edition published by arrangement with Dial Books for Young Readers, an imprint of Penguin Young Reader's Group, a division of Penguin Random House LLC

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Barruko argazkia: Koldo Atxaga Arnedo

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2025eko iraila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

ISBN: 978-84-10316-14-0

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 1758-2025

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
BAT	
Honela hasi zen dena.....	23
BI	
Ez beste neskatila bat bakarrik.....	39
HIRU	
Eskolaratzea Montgomeryn	51
LAU	
Ezkontza eta aktibismoa	63
BOST	
Boto-eskubidearen alde borrokan.....	75
SEI	
NAACPko idazkaria	81
ZAZPI	
Zurien indarkeria gero eta handiagoa.....	89
ZORTZI	
«Atxilotuta zaude».....	103
BEDERATZI	
«Behar ez zenarekin sartu dira»	115
HAMAR	
Urrats bat askatasunerantz.....	127
HAMAIKA	
Detroitera goaz	141
HAMABI	
Geroztiko urteak	153
KRONOLOGIA	163

yo también
lo hice*

nik ere
egin nuen*



* Rosa Parks.

Amerikarabarra. Gata Eskolaberru.
adibeta ekarria.
Nabarrak: Gurea batan, zuzenak
erretortzen, prokuratuak. Egoz, eta,
batetik, ezin gurea. Nabarrak.
Parks, ezin gurea. Nabarrak.
Nabarrak, ezin gurea. Nabarrak.
Nabarrak, ezin gurea. Nabarrak.
Nabarrak, ezin gurea. Nabarrak.

"EZIN LIBRE BIZI
DESOBEDIENTZARIK GABE"

rcel
pacífica?

¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿
¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿
¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿
¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿ ¿¿

14-M 19:00 MAN
21-M 19:00 PRO
25-M 19:00 MAR
28-M 19:00 CON

30 hilabeteko kartzela
ekintza naketsu batengatik?

M-14 19:00 MANIFA Gazteluko Plaza.
M-21 19:00 JAI-GIROKO BILKURA Gazteluko Plaza.
M-25 19:00 TXIRRINDULA MARTXA Naberrera Plaza.
M-28 19:00 CON... ezin gurea. Nabarrak.

ARGITALETXEAREN OHARRA

ROSA PARKS: IKONO BATEN URRATSAK

Batzuek diote «indarkeriaren irakaslea eta bultzatzailea» naizela. Nik artez esango nieke: «Hori gezurra da. Ez nago funtsik gabeko indarkeriaren alde, justiziaren alde nago».

Malcolm X

2004ko abuztuan, Iruñeko Euskal Jai gaztetxea hustu osteko ziklo politikoan, gune autogestionatuen aldeko zenbait kanpaina egin ziren. Horietako bat «Iruñerria piztera goaz!» izan zen. 2007ko maiatzean, Nafarroa Garaiko parlamenturako eta Iruñeko udalerako hauteskunde-kanpaina, gazte-talde batek desobedientzia zibila aldarrikatu zuen; besteak beste, dozena bat gaztek eserialdia egin zuten zezen-plaza inguruan, eta haie-tako batzuk porlanezko bidoietara lotu ziren. Ondorioz, polizia nazionalak, udaltzainekin koordinatuta, berrogeita hamasei lagun atxilotu zituen, eta kideetako bat kartzelatu zuten.²

2009an, epaiketa hastear zela, hamabi hilabeteko kartzela-zigorra eskatu zuten auzipetutako batzuentzat desobedientzia baketsuaren bidez egindako ekintza harengatik. Hori salatzeke, *Diagonal Iruñerria* egunkariaren 10 000 ale inprimatu eta zabaldu ziren, *bizifestazioak* egin ziren Okupazioaren Amabirjinaren kanpainaren barruan eta eserialdi gehiago ere egin ziren. Bestalde, 6500 afixa itsatsi ziren; izan ere, hiru afixa egin zituzten auzipetuen aldeko kanpaina politikorako. Batean, Lucy Burns sufragista agertzen zen; beste batean, Zezen Eseri siux buruzagia³; eta hiru-

2 Ikus *Piztera*, Iruñea, Eguzki bideoak, 2007.

3 Nick Estes, *Gure historia da etorkizuna*, Iruñea, Katakarak, 2020.

garreanean, Rosa Parks. Zerk egin zuen hain ezagun Rosa Parks? Zergatik da erresistentziaren ikono bat, eta, zehazki, zergatik da erresistentzia baketsuaren ikono bat? Nor izan zen?

Rosa Parks: neutralizazio-saiakera nabarmen bat

Beltzen askapenaren aldeko komunitateak sari eta errekonozimendu asko eskaini zizkion Rosa Parksi 1960ko hamarkadatik aurrera. Eta kontua da 1980tik aurrera Amerikar Estatu Batuak ere Parksi ohore egiten hasi zela; alegia, beste molde batean bada ere segregazioa aplikatzen duen estatua, oraindik eta gaur arte zuztarretik arrazista dena. Hala, Bill Clinton presidente neoliberal eta belizistak Presidentearen Askatasunaren Domina eman zion 1996an; 1999an, AEBko Kongresuaren Urrezko Domina eman zioten; 2003an, 1955eko autobusa berreskuratu eta Henry Ford museoan jarri zuten; eta George Bush Irakeko bigarren gerraren arduradunak AEBko Kapitolioan Parksen estatua bat jartzeko baimena eman zuen. Bestalde, munduko tren- eta bus-geltoki askok daukate Parksen izena.

Zergatik eta zertarako oraindik ere arrazistak diren estatu-erakunde horien ohore horiek guztiak Parksi? Ziurrenik, masa-mugimendua ukatzeko ohoratzen dute pertsona bakarra. Gainera, Parksen parte-hartzea testuingurutik ateratzen da, eta ekintza inofentsibo boteretsuak egiten dira egun ere arrazakeria badela ukatzeko. Baina arrazakeriak hor jarraitzen du, hala Parisko Rosa Parks tren-geltokian nola Detroiteko Rosa Parks intermodalean. Rosa Parks deritzen toki horietan polizia gertutik zelatatzen ditu beltzak; gainontzeko bidaiariak baino gehiago atxilotzen ditu, eta, sarri, hil ere egiten ditu.

Museoan nahi dutena museotik ateratzen

Nolanahi ere, ezin ditugu bazterrean utzi injustizian oinarritutako sistemak laudatzen dituen ikonoak. Iker ditzagun, azter dezagun zer egin zuten, zer ahalmen zeukaten ekintza, mugimendu, norbanako eta data horiek. Frantziako Hirugarren Errepublika kolonial eta burgesetik 1789ko iraultza ospatzeak ez dio 1789ko iraultzari ahalmen askatzailea kentzen; AEBko eskola segregatu zuri eta elitistetan John Brown ala Harriet Tubman irakasteak ez du antiesklabisten emantzipazio-gosea ukatu behar; Putin-en ministro neoliberal eta gerrazale batek CCCP (SESB) jarritzen duen kamiseta bat janzteak ez du 1917ko urriko iraultzaren

izaera antibelikoia eta komunista zalantzan jartzen; egungo Txina kapitalistak izar horiko bandera gorria erabiltzen jarraitzeak ez du ukatzen bandera hori iraultza anticolonial eta sozialista baten sinboloa dela; transfoboeak eta sexu-langileen eskubideen kontra dauden gay eta lesbianek Ekainaren 28a erreibindikatzeko ez du estaltzen transexualek eta putek egin zieten aurre Stonewall-en polizeiei; enpresa handiekin paktuak egiten dituzten sindikatuek Maiatzaren Lehena ospatzeak ez du ukatzen Maiatzaren Lehena langile-klasearen borrokari lotuta zegoela eta jende xeheak udaberria ospatzeko baliatzen zuela; Martxoaren 8an zisemakume dirudunek beren eguna dela pentsatzeak ez du ukatzen langile-mugimenduaren barrutik eraiki zutela Emakumeen Nazioarteko Eguna Clara Zetkin eta Paula Thiede-k eta landu genero-berdintasuna, ugalketa-askatasuna eta emakumeen aurkako indarkeria gisako kontzeptuak. Bada, gauza bera Rosa Parks-en bizitza eta borrokaekin: ezagut ditzagun, berreskura ditzagun.

Zenbait genealogiaren katebegia da Rosa Parks. AEBko beltzen askapenaren aldeko mugimenduaren panteoian dago Angela Davis, Malcolm X, Martin Luther King eta Assata Shakur-ekin batera. Desobediencia zibilaren eta erresistentzia ez-bortitzaren ekintzaile behinenen zerrendan dago Mahatma Gandhi, Nelson Mandela, James Bevel edota José Bovéekin batera. Eta, ekintzaile behinen horiek bezala, Rosa Parks ere talde politiko antolatatu zabalagoen parte izan zen.

Ez dugu hona ekarriko AEBn beltzen askapenaren alde eta arrazakeriaren aurka jardun zuen klase-borrokaren genealogia, ezta borroka horiek XX. mendean zehar euskal musikagintzan eta politikan izan zuten oihartzuna ere. Assata Shakurren *Autobiografia bat* liburuko *Argitaletxearen oharra* atalean historia hori eta borroka horien harrerak landu genituen euskaraz, eta aintzat izan behar dugu baita idazle afro-amerikarren liburuek euskaraz, itzulpenari esker, egin duten bidea. Shakurren liburuko *Aitzur hautsi batera* jo dezakegu, eta Joseba Sarrionandiak eta Angela Davisek beren-be-regi liburu horretarako idatzi zituzten hitzaurreetara.

Aitzitik, Rosa Parks kokatzeko unean, garrantzitsua da orain arte euskaratutako beltzen askapenari buruzko liburuek diotenaz jabetzea. Alde horretatik, oso argigarria da ez aspaldi Angela Davisek Parks-en inguruan esan zuena, alegia, eskubide

zibilen aldeko aktibista izan aurretik emakume beltzen bortxaketan aurkako militantea izan zela luzaroan.

Horrez gain, *Emakumeak, arraza eta klasea* (Elkar) liburuan Parksen genealogia hau egiten du Davisek:

Izan emakume «aske», izan esklabo, emakume beltzek etxetik kanpo egin dute lan, eta, beraz, etxeko lanak ez dira sekula izan haien bizitzaren erdigunea. Emakume beltzek, hein handi batean, ihes egin diete kapitalismo industrialak klase ertaineko etxeoandre zuriei ekarri dien kalte psikologikoari eta horren ustezko bertuteei: ahulezia femeninoa eta emazteen sumisioa. Emakume beltzak nekez saiatuko ziren ahulak izaten: indartsuak izan behar zuten, haien familia eta komunitateei ezinbestekoa baitzitzairen indar hura, bizirik irauteko. Komunitate beltzeko hainbat buruzagi nabarmenek argi erakutsi dute emakume beltzek askotariko indarrak bildu dituztela, buru-belarri lanean aritzearen poderioz. Hortxe daude, besteak beste, Harriet Tubman, Sojourner Truth, Ida Wells eta Rosa Parks: ez dira ohiz kanpoko emakume beltzak, baizik eta emakume beltzen ohiko ereduak.⁴

Eta jarraian:

Hala ere, emakume beltzek garesti ordaindu dute indar horien eta beren independentzia erlatiboaren truke. Gutxitan izan dira «soilik etxeoandreak», bai, baina etxeko lanak egin dituzte, beti. Beraz, zama bikoitza eraman dute bizkarrean: soldatapeko lanak eta etxeko lanak.

Nerabezaroan izan zuen Davisek Parksen autobuseko ekin-tzaren berri. Hala kontatzen du hogeita hamar urterekin idatzi zuen *Autobiografian*. Berebat dio Parker High School-en ez ziotela aipatu ere egin gertakizun hura, kontatu ez zioten bezala Martin Luther King nor zen eta nola ari zen autobus haien boikota zuzentzen.

Davisek dio 1955-1956 hartan bera bizi zen Birmingham-en ez zegoela mugimendu antolatuturik arrazakeriaren kontra eta, halere, batzuetan autobusetan ekintzak egiten saiatzen zirela.

Erresistentzia ez-bortitza eta bestelako borrokak

Oso ohikoa izaten da askapen-borroka askotan, bereziki borrokek porrot egiten dutenean, ongi ari zirenak eta gaizki ari zirenak bereiztea. Eta, sarritan, indarkeria ala indarkeriatzat jotzen den hori erabiltzen da borrokari kalte egiteko eta zilegitasuna kentzeko.

Horri dagokionez, beltzen askapenaren historian oso ohikoa izan da sistema arrazista, polizial, misogino, kartzelan

⁴ Angela Davis, *Emakumeak, arraza eta klasea*, Donostia, Elkar, 2016, 289. or.

oinarritutako eta klasistak Rosa Parks adibidetzat jartzea eta jarraian Malcolm X eta Pantera Beltzak kondenatzea. Horren harira, bi kontu. Batetik, Rosa Parksek, bizi zela, boterearen jabe zen sistema horren indarkeria polizial eta judizial osoa jaso zuen, bide baketsuak baliatuz erresistentzian ari ziren militante guztiek bezala. Baina, gainera, Rosa Parksek berak behin baino gehiagotan nabarmendu zuen Malcolm Xk eragiten zion miresmena. Birritan egon ziren elkarrekin Parks eta X. Aurreneko aldia 1963an izan zen, Xk Parks ezagutzeko gogoia zuelako. Gero, Parksek aipatu izan zuen Xk bere aitona gogorarazten ziola, zeinaren oinordeko sentitzen baitzen politikoki. Parksek ere, hipokrisiarik gabe, autodefentsarako deia egiten zuen.

1972an, LeRoy Henderson argazkilaria afro-amerikarrak argazki antologiko bat egin zion Rosa Parksi Gary-ko (Indiana, AEB) Beltzen Konbentzio Politikoan. Parksek Malcolm Xren afixa bat zuen eskuan, eta afixan Malcolm Xren argazki bat agertzen zen, aipu honekin: *Any means necessary* [Beharrezko diren bitartekoekin].

2017an, argazki horren inguruan jardun zuten Sarah Eckhardt-ek Hendersoni egin zion elkarrizketa batean. Henderson konbentzioan parte hartzen ari zen:

Sarreran nengo. Konbentzioa institutu batean zen, eta sarrera saltzailez beteta zegoen. Ni ere han nenbilen, eta, halako batean, [Parks] ikusi nuen. Batetik bestera zebilen, inor jabetzen ez zela. Zorionez, nik banekien nor zen, eta hantxe zegoen: Rosa Parks, Malcolm Xaren afixa bati begira. Biak elkarrekin baleude bezala zen ia. Irudi hori sarritan erabili da testu akademikoetan eta liburuetan.

Eta honela jarraitzen du solasaldia Eckhardtek:

- Adibide ona da, zeren uste dut Rosa Parks 1955-56ko une hartan izozten dugula maiz.
- Autobusetako protestan.
- Hala izaten da hasieran. Gero burura datorkigu Malcolm X mugimenduaren beste une batean, eta nola Parks joan zen Pantera Beltzen mitinetara hitz egitera...
- Eta zorionezko justaposizio bat da irudi baten eta pertsona ikoniko baten artean.

Zentzu berean, Assata Shakur bezalako iraultzaileentzat ere Parksen ekintza ez zen izan andre xahar baten ekintza baketsu bat, erresistentzia zen. Eta erresistentzia muturrekoena, armatua, hautatu zutenentzat ere izan zen Parks ikono bat:

Jende Beltzari buruzko berriek bakarrik eragiten zidaten. Eta, itxuraz behintzat, egoerak okerrera egiten zuen urtetik urtera. Gogoan dudan lehen albiste benetan txarra Montgomery-ko (Alabama) protestak izan ziren. Orduan izan nuen Martin Luther King-en aditzea estreinako aldiz. Rosa Parks atxilotu zuten ez ziolako eserlekua utzi gizon zuri bati. Ondorioz, jende Beltzak boikota egin zien autobusei. Borroka zakarra izan zen. Jende Beltzak jazarpena eta erasoak jasan zituen, eta, oker ez bainaiz, Martin Luther Kingen etxean bonba bat jarri zuten. Ondoren, Little Rock gertatu zen. Gogoan ditut aldra zuri itsusi eta lazgarri haiek nire adin inguruko haurrei eraso egiten. Little Rocki buruzko albisteak zabaldu zirenean, isiltasun erabatekoa egin zen gure etxean. Hantxe eserita geratzen ginen, izututa. Batzuetan, norbaitek zerbait esaten zuen, baina normalean nor bere pentsamenduetan murgilduta egoten ginen. Ez dut uste ezer esan zitekeenik halako une batean. Eta, urterik urte, kaxa horren parean esertzen nintzen, eta ikusten nuen nire jendeari eraso egiten ziotela aldra zuriek, haginka egiten ziotela zakurrek eta ur-zurrustekin kolpekatzen ziotela poliziak; atxilotu eta akabatu egiten zituztela. Eta, orduan, albisteak errealegiak iruditzen zitzaizkidan.⁵

Ohikoa da, distantziak eta denborak eragiten duten deskokatetik, soka luzeko askapen-prozesuak epaitzea. Ordea, askoz interesgarriagoa da prozesu horietan egon ziren hipotesietan eta erakunde desberdinetako ahotsetan eta lanetan murgiltzea.

Zentzu horretan, eta euskarari dagokionez, Amaia Astobizak ekarri digun Rosa Parksekin batera beltzen askapenari lotutako hiru ildoren testigantza jaso dezakegu. Angela Davisen ibilbidea (lau liburu daude euskaratuta): AEBko Alderdi Komunistan osatu zen nazioarteko marxista hura, arraza guztiek osatutako erakunde batean. Eta, Assata Shakurrena: Askapen Armada Beltzeko (BLA, Black Liberation Army) militantea, borroka armatuan parte hartu zuena, eta atxilotu, torturatu, epaitu eta kartzelatu zutena AEBtik ihes egin ahal izan zuen arte, BLAren eta Maiatzak 19 Antolakunde Komunisten ekintza bati esker. Arrazakeria, klasismoaren makulu gisa, mundu osoan indarra hartzen ari den unean dator gure artera segregazioaren aurkako bizitza apal eta potentziaz betetako hau.

Iruñea
2025eko iraila

5 Assata Shakur, *Autobiografia bat*, Iruñea, Katakarak, 2022.



Montgomeryko autobusetako boikotean parte hartzeagatik atxilotu zutenean,
Rosa Parksek duintasunari eutsi zion
(Iturria: Schomburg Zentroa, New Yorkeko Liburutegi Publikoa)

Liburu hau nire ama Leona McCauleyren eta nire senar Raymond A. Parksen oroimenari eskaintzen diot.

Eskerrak eman nahi dizkiot Elaine Steeleri, nire lagun, bidaide eta Garapen Pertsonalerako Rosa eta Raymond Parks Institutuko zuzendari exekutiboari, liburu honetarako emandako laguntzagaririk.

Rosa Parksi,
zeinaren lekukotasun sortzaileak indarrez bultzatu baitzuen
askatasuneranzko urrats modernoa

Martin L. King Jr.¹

1 Hitz horiek ageri dira King doktoreak Rosa Parksi oparitutako *Stride Toward Freedom* bere liburuaren alearen frontispizioan.

BAT

HONELA HASI ZEN DENA

Arrats batez, 1955eko abenduaren hasieran, Montgomery Alabamako autobus bateko beltzen eremuko lehen lerroko jarlekuetan eserita nengoen. Zuriak zurien aldean eserita zeuden. Zuri gehiago igo ziren, eta zurien eremuko jarleku guztiak bete zituzten. Halakoe-tan, beltzok gure jarlekuak utzi behar izaten genizkien zuriei. Baina ez nintzen mugitu. Gidariak, zuria bera, esan zuen: «Libratu aurreko jarleku horiek». Ez nintzen jaiki. Nekatuta nengoen zurien aurrean amore emateaz.

—Poliziarri deituko diot —bota zuen gidariak.

—Egizu egin beharrekoa —erantzun nion.

Bi polizia zuri etorri ziren. Haietako bati galdetu nion:

—Zergatik erabiltzen gaituzue horrela?

Eta hark erantzun:

—Ez dakit, baina legea legea da, eta atxilotuta zaude.

Nire bizitzako lehen erdian, legeak eta usadioak egon izan dira Hegoan, afro-amerikarrak eta zuriak bereizten zituztenak eta zuriei bide ematen zietenak beltzak batere errespeturik gabe tratatzeko. Ez dut sekula uste izan hori bidezkoa denik, eta, txikitatik gehiago, errespetu faltari aurre egiten saiatu izan naiz. Baina oso zaila zen segregazioarekin edo arrazakeriarekin ezer egitea; izan ere, zuriek beren alde zuten legea.


Nola edo hala, legeak aldatu behar genituen. Eta, horretarako, helburuak lortzeko bezainbat zuri izan behar genuen gure alde. Montgomeryko autobus hartan nire jarlekua beste bati uzteari uko egin nionean, ez nuen inondik ere pentsatu nire

ekintza txiki hura lagungarria izango zenik Hegoko segregazio-legeei amaiera emateko. Une hartan nekien bakarra zen zurien aurrean amore emateaz nekatuta nengoela. Pertsona normala nintzen, beste edozein bezain zintzoa. Gutxi batzuetan, zuriek pertsona normal gisa tratatu izan ninduten; beraz, banekien nola sentiarazten ninduen horrek. Beste zuri batzuk ere ni hala tratatzen hasteko garaia zen.

Hautzaroaz dudan lehen oroitzapenetako batean, nire senideak ezohiko gertaera bati buruz berbetan ari dira: gizon batek neskaitila arrunt bat banintz bezala tratatu ninduen, ez neskaitila beltz bat banintz bezala. Lehen Mundu Gerraren ondotoxoan izan zen, 1919 inguruan. Bospasei urte nituen. Moses Hudson Pine Level Alabamako gure lur-zatiaren ondoko plantazioaren ugazaba zen; behin batean, Montgomery hiritik atera, eta bere jabetzak ikustera etorri zen, eta guretik ere pasatu zen. Moses Hudsonekin batera haren suhia ere etorri zen, Iparreko soldadu bat. Gure familia bisitatzeraz etorri ziren. Garai hartan, hegotarrok yanki esaten genien ipartar guztiei. Soldadu yankiak burua laztandu zidan, eta esan zuen oso neska polita nintzela. Arrats hartan, nire senideek horixe izan zuten berbagai, nola soldadu yankiak beste edozein neskaitila bat banintz bezala tratatu ninduen, ez neskaitila beltz bat banintz bezala. Hegoan, garai hartan, zuriek ez zituzten tratatzen neskaitila beltzak neskaitila zuriak tratatzen zituzten bezala. Eta Moses Hudson zaharra erabat deseroso sentiarazi zuen soldadu yankiaren nireganako jarrerak. Aitonak esan zuen ikusi zuela nola Moses Hudson zaharrari aurpegia piperra baino gorriagoa jarriz zitaion. Aitonak barre eta barre egin zuen.

Aitonaren etxean hazi nintzen, Pine Levelen, Montgomery barrutian, Montgomery hiritik gertu. Nire amaren senide guztiak Pine Levelekoak ziren. Nire amak Leona Edwards zuen izena. Nire aita Abbeville Alabamakoa zen. James McCauley zuen izena. Arotza eta igeltseroa zen, oso trebea adreiluzko eta harrizko igeltserotzan. Etxegintzak batetik bestera ibilarazten zuen.

Nire aitaren koinatua, izeba Addie-ren senarra, Dominick agurgarria zen. Mount Zion eliza metodista afrikarreko artzaina zen Pine Levelen, eta hantxe hain justu, Pine Levelen, ezagutu zuen aitak ama, hura han irakasle zela. Ezkondu ere hantxe ezkondu ziren, Pine Levelen, 1912ko apirilaren 12an. Amak hogeita lau urte zituen, eta aita amaren adin berekoa zen.



Rosa Parksen jaiotetxea Tuskegee Alabaman
(Iturria: Rosa Parks)

Ezkondu ostean, Tuskegee Alabamara joan ziren bizitzera. Tuskegee Institutua zegoen hantxe, beltzen eskola, Booker T. Washington jaunak 1881ean sortua. Nire gurasoak handik ez oso urrun bizi ziren. Hala buruzagi beltzentzat nola buruzagi zurientzat, herri hura arrazen arteko harreman onaren eredu zen, eta beharbada horregatik aldatu nahi izan zuen aitak hara. Gainera, eraikuntza-lan ugari zeuden Macon barrutian. Ama ere herri berean hasi zen lanean, irakasle-lanetan.

Luzaro gabe, lehen haurra izan zuten. Ni 1913ko otsailaren 4an jaio nintzen, Tuskegeen bertan, eta Rosa izena ipini zidaten,

amaren aldeko amona Rose bezala. Amak hogeita bost urte inguru zituen ni jaio nintzenean, eta beti esaten zuen artean ez zela egon ama izateko prestatuta. Ziurrenik kezkatuta ibiliko zen; aitzak barrutiko toki askotan jarduten zuen etxegintzan, eta ama bakar-bakarrik geratzen zen nahikotxotan. Ni jaio ostera arte irakaskuntza utzi behar izan zuen, eta behin eta berriro esaten zuen oso triste sentitu zela, haurdun egonik eta ia inortxo ezagutzen ez zuela. Garai hartan, emakume haurdunak ez ziren kalera irteten eta hara-hona ibiltzen eta jendearekin egoten, gaur egun bezala. Ia beti bakarrik egoten ziren. Esaten zuen luzaz egoten zela negar eta negar, bere artean pentsatuz zer egingo zuen eta nola moldatuko zen, ez baitzekien umeak zaintzen.

Irtisi nintzen, bada, eta ume gaixobera nintzen, txikia nire adinerako. Seguruenik zaila izango zen amarentzat nitaz ardurartzea. Gainera, aitaren anaia gazteena ere gurekin bizitzera etorri zen; beraz, amak beste batentzat ere kozinatu eta garbitu behar zuen. Osaba Robert ere arotza zen, eta Tuskegee Institutuan ize-na eman zuen arotzeria- eta eraikuntza-eskolak hartzeko. Baina amak beti esaten zuen osaba Robertek hainbeste zekiela irakatsi nahi zioten hartaz, ezen hark irakasten baitzien irakasleei. Eraikuntza-planoez hizketan hasten ziren aldiro, esaten zien: «Ez, uste dut beste era honetan jarri behar genukeela». Eta orduan osabak proposatu bezala jartzen zuten, eta ondo ateratzen zen. Ez zuen denbora asko egin Tuskegee Institutuan ikasle.

Badauzkat aitzak eta osabak eraikitako etxeen argazkiak, etxe eder askoak. Beren aitari ikasi zioten, nik uste. Ez zuten ezer ikasi Tuskegeen.

Halere, Tuskegee zen afro-amerikarrentzat Alabaman heziketa bat lortzeko tokirik onena, eta amak han geratu nahi zuen. Bere asmoa zen aitzak lana lortzea Tuskegee Institutuan. Garai hartan, irakasleek han bizitzeko etxeak eskuratzen zituzten; beraz, non geratu izango zuten. Bestalde, nik eta izango zituzten gainerako seme-alabek Institutuan ikasteko aukera izango genuen; izan ere, Hegoko ume beltzek oso aukera gutxi zuten eskolara joateko. Baina aita ez zegoen ados ideia harekin: kontratista izan nahi zuen, eta diru gehiago irabazi. Aita eta ama ez zetozen bat etorkizuneko planetan.



Rosaren ama Leona Edwards (eserita) eta Leonaren lehengusina Beatrice
(Iturria: Rosa Parks)

Aitak erabaki zuen ez zuela Tuskegeen geratu nahi. Bere familiarengana itzuli nahi zuen, Abbevillera. Amak ez zuen beste aukerarik izan, aitarekin joatea baino.

Halaxe, Abbevillera joan ginen, aitaren familiarekin bizitzera. Familia handia zen, eta ume mordo zegoen. Nire amona goiz hasi zen umeak ekartzen, eta jardun ere luze jardun zuen horretan. Ni jaio nintzenean, nire aitaren anaiarik gazteenak, George Gaines McCauleyk, zortzi urte zituen. Geroago esan ohi zidan umetan nire bekaitz izaten zela, ni jaio aurretik bera izan baitzen etxeko txikiena zortzi urtez; esaten zidan, halaber, ume-



Rosaren aita James McCauley, 1923an
(Iturria: Rosa Parks)

txo bat nintzenez ez ninduela batere gustuko. Koskortuz joan ahala, ordea, orduan bai, atsegin izan ninduen.

Aitaren familiaz dakidan guztia George osaba gazteari ikasi nion. Behin Georgek esan zuen nire aitaren aitona ezezaguna zela, eta besteren batek esan zuen Gerra Zibilean Hegoan borrokatu ziren soldadu yankietako bat zela. Nire aitaren amona neska esklabo zen, eta partez indigena, edo horrelako zerbait. Hori da dakidan guztia. Nire amak gehiago jakingo zuen beharbada, baina ez zidan sekula ezer esan. Susmoa dut sentitzen zuela bera eta bere ezkonsenideak ez zirela behar bezain bateragarriak.

Uste dut ama irakasle ibili zela aldi batez Abbeville, baina ez luzaz. Aitak iparrera jotzea erabaki zuen, eta amak ez zuen aitaren familiarekin geratu nahi izan hura kanpoan zen bitartean. Ordurako nire anaiaz haurdun zegoen, eta erabaki zuen bere gurasoenera itzultzea, etxalde txiki bat baitzuten Pine Levelen. Garai hartan, aitona eta amona biak bakarrik bizi ziren. Iloba bat

ere hazi zuten, baina jada ezkondua eta alde egina zen. Amak esaten zidan berak beti irudikatzen zuela Abbevilleko etxea aita batekin, ama batekin eta koskortzen zihoazen umeekin, eta halako batean ohartu zela beraren amak eta aitak ez zutela batere laguntasunik etxean. Eta, besterik gabe, puskak bildu eta gurasoenera joan zen.

Amak bere gurasoekin bizitzera eraman ninduenean Pine Levelera, orduantxe nintzen oinez ibiltzen hasia. Gero aita ere etorri zen gurekin, eta familia baten gisan bizi izan ginen bi urte eta erdi izan nituen arte. Baina aitak Pine Leveletik alde egin zuen lan bila, eta ez nuen berriz ikusi nik bost urte eta anaiak hiru izan genituen arte. Zenbait egunez geratu zen, eta berriz alde egin zuen. Ez nuen berriro ikusi ezkondu nintzen arte.

Ama eta aita ez ziren sekula berriz elkartu. Ezinezkoa zitzairen beren bizitzak bateratzea: aitak bidaiatu egin nahi zuen, eta amak etxe finko batean geratu nahi zuen.

Amaren gurasoez dauzkadan oroitzapenak oso argiak dira. Hain da hala, ezen nire lehen oroitzapena baita behin aitona medikutara eraman ninduenekoa eztarria begiratzera. Hautzaro guztian amigdalitis kronikoa izan nuen, baina oroitzapen hura lehen urteetakoa da. Bi urte eta erdi inguru izango nituen, ez gehiago; izan ere, horixe da etxe hartako ume bakarra nintzen garaitik gogoratzen dudana gauza bakarra. Ama ez zen gurekin etorri, uste dut gaixo antzean zebilela; beraz, anaia jaio aurretxoan izango zen. Aitonak denda batera eraman ninduen, han ez baitzegoen medikuaren kontsultarik. Salmahaiaren gainean eseri ninduen, eta gogoan dut belusezko berokitxo gorri bat eta txano bat neuzkala jantzita. Medikuak ahoa irekitzeko esan zidan, eta nik ireki egin nuen; akorduan daukat medikuak agindutako guztia egin nuela, atseginez egin ere. Jendea harritu egin omen zen, hain nintzen txikia eta hain esanekoa. Ahoa ireki nuen, eta medikuak zerbait sartu zidan, koilara bat edo, mihia-ri behean eusteko. Aitonak berriz etxera eraman ninduenean, amari eta amonari esan zien oso txintxo nintzela. Hori da neure buruaz daukadan lehen oroitzapena. Beti atseginez hartzen nuen edozer zela ere besteek ni gorestea. Pozik nengoen, aitona uste zuelako oso neskatila zintzoa nintzela.

Aiton-amonan etxean bizi izan ginen sasoi hartan, amaren familiaren historiari buruzko kontu asko ikasi nituen. Nire

birraitonak, amaren aitonak, Percival zuen abizena. Eskoziar-irlandarra zen, eta Estatu Batuetara ekarri zuten itsasontziz artean mutikoa zela. Zuria zen, baina ez askea.


Garai hartan, Europan, zuri behartsuak soldatarik gabeko langileak izaten ziren batzuetan. Hitzarmen bat sinatzen zuten: Ameriketarako bidaia ordaintzearen truke, norbaitentzat lan egingo zuten urte-kopuru jakin batez. Urte horietan ez zuten eskubiderik izaten, eta esklaboak bezain gaizki trata zitzaizketen.

Nire birraitona Charleston Hego Carolinako portuan zehar iritsi zen herrialde honetara, eta handik Alabamara ekarri zuten. Wright abizeneko batzuen soldata bako langilea izan zen Pine Levelen, baina ez zioten inoiz Percival abizena aldatu; uste dut sorlekutik ekarri zuela. Horretan desberdinak ziren esklabo beltzak eta soldata bako langile zuriak. Normalean, esklabo beltzei ez zieten uzten beren izena gordetzen, eta jabeek izen berriak jartzen zizkieten.

Birraitona Mary Jane Nobles-ekin ezkondu zen, jatorri afrikarrekoa bera, arbaso zuririk gabea. Esklaboa eta emagina zen, eta umeak ekartzen eta zaintzen laguntzen zuen. Ezkondu eta hiru ume izan zituzten, bi alaba eta seme bat, Abraham Lincoln presidenteak askatasuna aldarrikatu aurretik. Beste sei seme-alabak aske jaio ziren. Alaba zaharrenak, gure amona Rosek, bost urte zituen Gerra Zibila amaitu zenean, hau da, unionistek estatu konfederatuak garaitu zituztenean.

Amonak esan zidanez, soldadu unionistak iritsi aurretik, esklabo-jabeek zuloak eginarazi zituzten lurrean esklaboei, beren ondasunik baliozkoenak ezkutatzeko: platerak, zilarrerria eta bitxiak. Gero, haur esklabo gazteenak zulo estali berriaren gainean eseri behar izaten zuen, eta hantxe jolastu, lurra ondo-ondo zapaltzeko.

Gerra amaitu ostean, esklabotza ere amaitu zen. Baina esklabo ohi ugari beren lehenagoko lekuetan geratu ziren. Ez zekiten nora joan, eta ez zuten beren etxeetatik alde egin nahi. Nire birraitona eta birramona wrightarren lursaileko beren zurezko etxetxoan geratu ziren, eta familiarentzat lanean jarraitu zuten. Bizitza ez zen lehenagokotik oso desberdina, baina bazekiten nahi izanez gero handik alde egin zezaketela. Lurra erosteko eskubidea ere bazuten. Ez dakit nola edo noiz egin zuten, baina,



Rosaren osaba Robert McCauleyk postal hau bidali zuen, Rosaren aita James McCauleyrentzat eraikitzen ari zen etxea erakusteko eta familiaren berri izateko (Iturria: Rosa Parks)

emantzipaziotik denbora batera, birramonak eta birraitonak Hudson plantazioarenak izanak ziren hamabi akre lur erosi zituzten.

Esklabotza amaitu ondoren, jendea aske zela ohartu zenean, orduantxe eraiki zuen birraitonak zurezko mahai bat, jateko toki bat izan zezan bere familiak. Sasoi hartan, nire amonak sei urte zituen; bera zen etxeko umerik zaharrena, eta mahaia egiten lagundu zion aitari: pinu-adarrezko zuzi bati eusten zion gauez, aitak ilunetan ere ikusteko eta lanean jarraitu ahal izateko. Oraindik erabiltzen dut mahai hura.

Egunez, birraitonak altzariak egiten zituen Wright jaunarentzat, alegia, bere ugazaba izandakoarentzat. Seguruenik Wright jaunaren erremintak erabiliko zituen mahai txiki hura egiteko, edo beharbada bere mailua eta laztarina. Egurrean zuloak egiteko erreminta txiki bat da laztarina. Iltzeak erabili beharrean, zurezko ziri txiki bat zorrotzu eta han jartzen zuen, larakoa balitz bezala. Halaxe muntatu zuen mahaia.

Emantzipazioaren ondoren, amona wrightarren etxera aldatu zen, haien umeak zaintzeko. Ez zeuzkan sei urte baino gehiago, baina ume txiki bat zaintzeko bezainbatekoa zen tamai-



Leona eta James McCauley emazte-senarrak Rosa Louise alabarekin, 1914an. Rosak hemezortzi hilabete zituen (Iturria: Rosa Parks)

naz. Ez zuten soroetara lanera joan beharrik, eta etxean ere ez zuten lan handirik egin behar izaten.

Aitonaren aita plantazio-jabe zuri bat zen, John Edwards izenekoa, eta beraren ama giltzazain eta jostun esklabo bat, so-roan inoiz lanik egin behar izan ez zuena. Uste dut berak ere odol beltza eta zuria izango zituela nahasian, zeren eta aitona, birramonak beraren ugazabarekin eduki zuen haurra, ia-ia zuria zen. Birramona hil zenean, aitona oso gaztea zen, eta gero John Edwards ere hil zen, plantazioaren jabea.

Horren ondoren, haien haurra, nire aitona Sylvester, oso txarto tratatu zuten. Plantazioa Battle izeneko langileburu

baten kontrolpean geratu zen, eta halako herra zion nire aitonari, ezen jipoitu egiten baitzuen ikusten zuen aldiro. Aitonak kontatzen zuen berak gogoratzen zuenez txikitan sukaldeko langileek ezkutuan ematen zizkioten zarramarrak baino ez zituela jaten. Langileburuak jo egiten zuen, gosez hil zedin saiatzen zen, ez zion zapatak janzten uzten, eta hain txarto tratatzen zuen, ezen aitonari zurienganako herra bizia piztu baitzitzaion. Berak irakatsi zien nire amari eta haren ahizpei eta haien seme-alabei ez duzula inoren tratu txarrik onartu behar. Irakaspen hori ia-ia genetikoki pasatzen diogu belau-naldi batek hurrengoari.

Gogoan dut aitona oso sentibera eta ipurterrea zela. Amona, ostera, lasaia zen. Aitona oso azal argikoa zen, eta ile lisoa zeukan, eta batzuetan zuritzat hartzen zuten. Eta bera zuri-itxura izateak zekartzan abantaila guztiez baliatzen zen. Beti ibiltzen zen esaten edo egiten zuriak lotsarazi edo ernegaraziko zituen zer bait. Ezezagunekin hizketan hasten zenean, eskua luzatu eta bostekoa ematen zien. Ezagutzen ez zuen gizon zuriren bat aurkezten ziotenean, «Ni Edward naiz» esaten zien, eta bostekoa luzatu. Halakoetan, ezagun zutenak lotsatu egiten ziren, eta isilka besteei esan behar izaten zieten aitona ez zela zuria. Garai hartan, gizon zuriek ez zieten sekula bostekoa estutzen gizon beltzei. Eta ez zen espero gizon beltzek izena esatea beren burua aurkeztean, ezpada soilik abizena.

Eta gogoan dut batzuetan izenetik deitzen ziela gizon zuriei, edo izen-abizenetik, «jauna» esan gabe. Zuriek ez zuten beti ondo hartzen; egia esan, jokabide hura oso arriskutsua zen. Garai hartan, pentsaezina zen beltzek izenetik deitzea zuriei, «andrea» edo «jauna» esan gabe. Aitonak zakar samar jokatzeko zuen zuriekin oro har. Eta zurien bizkar barre egitea atsegin zuen.

Aitonak ez zuen nahi nik eta anaiak ume zuriekin jolasterik. Hudson plantazioko langileburu zuriak bazituen gure adineko zenbait seme-alaba. Haiekin jolastu nahi genuenean, edo haiek gurekin, aitona sutu egiten zen. Haiengandik urrun egon arazten gintuen. Ezin genuen ezta haiengana hurbildu ere. Esate batera, lurrean eserita egoten ginen, bagoi baten gerizpean jolasean, eta aitona garrasi egiten zigun eta haiengandik be-reiztera behartzen gintuen.

Zerbait ere egiteko aukera ikusten bazuen, egin egiten zuen. Ez zen izango apartekorik ezer, baina halaxe adierazten zuen berak zurienganako etsaitasuna. Eta, halere, zuriek ez zioten sekula modu txarrez erantzun. Ez dakit nola atera zen onik halakoak eginda eta hain ahohandia izanda, halako arrandiaz jardunda; izango zen oso zuria zelako eta haiengandik hain gertukoa zelako. Ziurrenik ondotxo ezagutuko zuten, eta horregatik ez zuten jipoituko.

Elbarria zen, eta horrexegatik ere izango zen hain suminkorra. Artritisa zeukan. Orduan erreuma esaten genion. Ez dakit zenbat urte zituen elbarri geratu zenean, baina uste dut oso gaztea zela. Ia ezinezkoa zitzaion zapatak janzte behatzaldeak aurrez zulatu gabe, eta batzuetan erabat ezinezkoa zitzaion oinez ibiltzea. Eta hantxe zebilen, familia bat zaintzeko ahaleginean.

Aitona eta amona oso gaztetan ezkondu ziren, eta aitona gauza bat nahi zuen beste guztien gainera: bere seme-alabek edo beste ezein senidek sekula zurientzat kozinatu edo garbitu behar ez izatea. Seme-alaba guztiek ikastea nahi zuen, halako lanik egin behar ez izateko.

Etxeko lanak egiteagatik gutxi ordaintzen zuten, eta etxeko lanak egiten zituztenak ez zituzten errespetatzen. Etxeko langile gehienek gogor lan egiten zuten, eta ez zuten izaten ikasteko aukerarik. Horregatik nahi zuen aitona amak ikastea eta eskolak ematea. Irakasletza prestigio handiko lana zen, eta gehiago ordaintzen zuten. Irakasle afro-amerikarrek ez zuten irabazten zuriek adina, baina etxeko langileek baino gehiago kobratzen zuten.

Nire aitona eta amonak hiru alaba izan zituzten. Alabetako bat gaztetxotan hil zen. Ez zen iritsi herritik irtetera eskolara joateko. Beste alaba batek, Fannie-k, aitona nahi ez zuen huraxe egin zuen: herritik alde egin eta Montgomery hirira joan, zurien etxeetan lan egitera. Hura ere ez zen iritsi herritik irtetera eskolara joateko, eta horrek esan nahi du ez zuela seigarren maila gainditu, Pine Level inguruko beltzen eskolak ez baitziren seigarren mailaz haragokoak; hortik aurrera ikasten jarraitzeko, kanpora atera behar zenuen. Alaba hura nire ama baino zazpi bat urte zaharragoa zen. Edo aitona ez zuen izan nahikoa diru biak eskolara bidaltzeko, edo zaharrenak ez zuen joan nahi



Argazki hau belaunaldiz belaunaldi gorde du Rosaren familiak; Mary Jane eta James Percival ageri dira (Iturria: Rosa Parks)

izan. Garai hartan, Hegoko emakume gehienek, beltz zein zuri, ez zuten oinarrizko hezkuntzaz harago ikasten. Uste dut behin amari entzun niola aitonak bazuela alaba zaharrak ikasiko zuen esperantza, baina badirudi Fanniek beste asmo batzuk zituela. Beharbada dirua irabazi nahiko zuen behingo batean, nahiz eta etxeko langileek sasoi hartan ez zuten gauza handirik eskuratzten. Bestalde, uste dut bakarrik egon nahi zuela, eta halaxe egon zen ezkondu zen arte. Gure ama baino zenbait urte lehenago ezkondu zen.

Gure ama, Leona Edwards, Selma Alabamako Payne Unibertsitaterra joan zen. Ez zuen ikasi unibertsitate-gradu bat lortzeko adina, baina irakaskuntzako ziurtagiria lortu zuen. Pine

Levelen jardun zuen irakasle, eta orduan, bistan denez, nire aita ezagutu zuen eta elkarrekin ezkondu ziren.

Esan bezala, ama eta biok Pine Levelera itzuli ginen, aiton-amonengana. Gero Sylvester anaia jaio zen, eta ama irakaskuntzara itzuli zen. Pine Leveleko beltzen institutuan bazenez jada irakasle bat, amak Spring Hill herrixkara joan behar izan zuen. Urrunegi zegoen egunero joan-etorria egiteko eta eskolak prestatzeko; beraz, astean zehar han geratzen zen, familia batenean. Oraindik ere akorduan daukat aitona gidari zela amak gurdian harako bidea hartu zueneko. Aitonak mando-gurdi txiki bat zeukan leku batetik bestera joateko. Nik ez nekien zehatz amak zergatik alde egin behar zuen. Amonari esan nion:

—Ama Leona zer doa, eskolak nola eman ikastera?

Eta amonak erantzun zidan:

—Ez, eskolak ematen zituen zu jaio aurretik, eta orain ere eskolak ematera doa.

Beraz, jada banekien zertara zihoan, baina, halere, asko pozten nintzen itzultzen zenean.

Atsegin nuen aiton-amonekin egotea. Batzuetan arrantzan eramaten ninduten plantazioko erreka batera. Apur bat adinekoak zirenez, zenbaitetan ezinezkoa zitzaien beita amuan jartzea, eta nik egiten nuen. Ziurrenik horregatik eraman nahi izaten ninduten arrantzan. Zizarea hartzen nuen, eta berdin zitzaidan zenbat bihurritzen zen; nahikoa nuen haren mutur bat amuan ipintzea. Batzuek zizareak zanpatu eta hiltzen zituzten, baina nik beti pentsatu izan nuen arrainak, zizarea bihurritzen ikusiz gero, hilda ikusita baino azkarrago helduko ziola amuari. Zizareez gain, jendeak beste gauza batzuk ere erabiltzen zituen, hala nola urdaia eta karramarro-buztanak.

Sylvester anaia, zeinari amaren aitaren izena ipini baitzioten, ni baino bi urte eta zazpi hilabete gazteagoa zen. Etengabe atzetik izaten nuen. Edozer esaten nuela ere, errepikatu egiten zuen. Beti okerkeriatan ibiltzen zen, baina nik asko babesten nuen. Ez daukat akorduan, baina amonak kontatu zidan nola bera behin, ama kanpoan zela, umeari astindu bat ematekotan egon zen; Sylvester mutiketxo bat besterik ez zen, eta amona hari agiraka ari zen, eta zarta txiki bat hartu zuen. Eta nik esan nion: «Amona, ez jo. Umetxo bat baino ez

da, eta ez dauka ez amatxorik ez aitatxorik». Beraz —esan zidan amonak—, zarta alde batera utzi, niri begiratu, eta erabaki zuen egun hartan ez zuela umea astinduko. Gogoan daukat zer bihurria zen Sylvester eta nola nik astindu gehiago jaso nituen berak egin zituen gauzak ez salatzeagatik nik egin nituenengatik baino. Gerora ere ez dut sekula gainetik kendu anaia babesteko bulkada hori.

BI

EZ BESTE NESKATILA BAT BAKARRIK

Agian anaia txikia babesteko ohitura horrek lagundu zidan neure burua babesten ikasten. Argi dagoena da zuzentasunari buruzko iritzi argia nuela. Eta jarrera horrek arazoak ekarri zizkidan batzuetan.

Behin batean, hamar urte inguru nituela, Franklin izeneko mutiko bat ezagutu nuen kalean. Nire neurrikoa-edo zen, apurtxo bat garaiagoa beharbada. Zerbait esan zidan, eta ni jotzeko keinua ere egin zuen, ukabila estutuz muturreko bat emateko moduan. Nik adreilu bat hartu nuen, eta jotzeko desafioa egin nion. Berak hobeto pentsatu, eta handik ospa egin zuen.

Ez nion horri beste bueltarik eman, eta ziurrenik berak ere ez zuen egingo. Alabaina, goiz batean amonari aipatu nion, ia oharkabean: «Lehengo batean, Franklin ikusi nuen. Ni jotzeko keinua egin zuen, baina nik adreilu bat hartu nuen bera jotzeko». Amonak errieta egin zidan, esanez kaskoan sartu beharra nuela zuriak zuri direla eta ezin niela zuriei berbarik egin edo ezin nuela zuriekin gisa horretan jardun. Zerbait egiten bazizuten, ezin zenuen mendeku hartu.

Horrek asko haserrarazi ninduen. Iruditzen zitzaidan eskubide osoa nuela nire esku zegoena egiteko neure burua defendatzeko. Amonak esan zidan oso kexua nintzela eta kontuz ibili ezean hogeitau urte bete aurretik ere lintxatuko nindutela. Ez nuen beste liskarrik izan Franklinekin, baina ez beldurra niolako. Ez dut gogoan hari kasu gehiago egin nionik, nahiz eta ziurrenik inguruan ibiliko zen tarteka. Baina amonaren jarrera mingarri zitzaidan nolabait, iruditzen baitzitzaidan Franklinen alde eta



Hegoan, beltzentzako eskolak txikiak ziren eta jendez gainezka zeuden; eskuarki, idazmahairik ere ez zuten izaten
(Iturria: NAACPren Harreman Publikoak)

nire kontra egiten zuela. Iruditzen zitzaidan une hartan, ni baino gehiago, hura aldeztu zuela.

Askoz geroago ohartu nintzen nigatik beldur zelako egiten zidala amonak agiraka. Bazekien arriskutsua zela nik Franklinen pare jokatzea, baita beste edozein zuriren pare ere. Hegoan, garai hartan, beltzak jipoitu edo hil egiten zituzten hala jokatzegatik.

Ez nuen beste liskar askorik izan ume zuriekin. Gehiengintan, ume zuriak beretara eta ume beltzak guretara ibiltzen ginen. Ikastetxe desberdinetara eta eliza desberdinetara joaten ginen, eta lantzean behin bakarrik egiten genuen topo.

Anaia eta biok urte bateko aldearekin hasi ginen eskolara, nahiz eta bi urte baino gehiagoko aldea genuen. Ni nahiko txikia nintzen nire adinerako, eta amak ez ninduen eskolara bidali nahi izan lehenago. Oso gaixobera nintzen, eta amigdalitis kronikoa neukan; hazi ere motelago hazten nintzen, txiki-txikitatik. Anaia, gazteagoa izanda ere, ni baino handiagoa zen, eta beti antzeko garaiera izaten genuen. Batzuetan, berak nik baino

gehiago pisatzen zuen. Begiak arrailduak zituen, eta ia asiarra ematen zuen. Hamahiru edo hamalau urte zituela, gurera etortzen zen gizon batek Chink esaten zion. Sylvester izugarri haserretzen zen.

Nik sei bat urte nituen eskolara hasi nintzenean. Sylvester urtebete geroago hasi zen, bost urte ingururekin. Pine Leveleko beltzen eskolara joan ginen, irakasle bakarrekoa; egurrezko ikastetxe txiki bat zen, eta gure etxetik gertu zegoen. Gure elizaren ondoan zegoen, Mount Zion izeneko eliza metodista afrikarraren ondoan; zehazki, hilerrian. Leku askotan, eliza erabiltzen zen eskola gisa, baina Pine Levelen aparteko ikastetxe bat geneukan elizaren lursailean. Lehenengo mailatik seigarrenera ematen genuen, eta berrogeita hamar eta hirurogei ume artean biltzen ginen hango gela bakarrean. Ilaratan esertzen ginen, adinaren arabera; batzuetan handienak ateratzen ziren oholtzara irakurtzera edo errezitatzera, eta beste batzuetan txikien txanda izaten zen.

Nire lehen irakaslea Sally Hill andereñoa izan zen. Oso atsegina zen. Gogoan dudanez, azal beltzaraneko andre bat zen, eta begi handi-handiak zituen. Eskolako umeek adarra jotzen bazidaten edo zerbait esaten bazidaten txikia nintzelako, negarrez hasten nintzen, eta oholtzara igo eta andereñoarekin esertzen nintzen. Batzuetan berak esaten zidan gora igotzeko, eta nirekin solasean aritzen zen.

Eskolan hasi nintzenerako banekien irakurtzen. Amak erakutsi zidan etxean. Egiaz, bera izan zen nire lehen irakaslea. Ez dut gogoan noiz hasi nintzen irakurtzen, baina hiru edo lau urte izango nituen. Liburuzalea nintzen oso, eta atsegin nuen leitzea eta atsegin nuen kontuak esatea. Uste nuen zoragarria zela liburu bat hartzea eta irakurtzera esertzea, edo nik irakurtzea zela uste nuen hura egitera. Liburu bat aurkitzen banuen eta ezin banituen hitzak irakurri, istorio bat asmatzen nuen eta irudiei buruz berba egiten nuen.

Eskolan, maitagarrien istorioak eta Antzara Amaren olerkiak atsegin nituen. Akorduan daukat behin Txanogorritxo aurkitzen saiatu nintzela, baten batek esan baitzuen liburu polita zela. Hill andereñoak edozein liburu emanda ere, eseri eta oso-osorik irakurtzen nuen, ez soilik bizpahiru orri. Eta orduan



Ku Klux Klanen kide berriak onartzeko zeremonia. Talde supremazista zuriak bere esku zegoen guztia egiten zuen beltzak beldurtu eta mendean hartzeko (Iturria: AEBko Kongresuko Liburutegia)

esaten nion: «Amaitu dut!». Gero idazten ikasten hasi nintzen, letrak marrazten.

Hill andereñoa urtebetez bakarrik egon zen gurekin. Haren ostean, Beulah McMillan andereñoa izan genuen. Beulah andereñoa esaten genion. Urte luzez jarduna zen irakaskuntzan, eta nire amaren andereñoa ere izan zen hura neskato bat zenean. Amak eskola txiki berean ateratako argazki bat zeukan, non ikasleak ikastetxearen aurrean jarrita baitzeuden, ilarak osatuz eskaileretan. Txikienak eta mutilak belauniko zeuden lurrean, haiek ere ilaran jarrian. Amak ez zuen nahi izaten nik hura inori erakusterik, argazki zahar zeharo maiztu bat zelako. Baina nik oso gustukoa nuen. Lupa hartu eta aurpegiei begiratzen nien, aurpegi txiki-txikiei. Gustukoa nuen Beulah andereñoa, eta gustukoa nuen eskola. Ederto ibiltzen ginen. Jolasgaraian, neskok «biribil-jolas»etan jarduten genuen: «Sally Walker txiki / pla-

tertxoan kukubil / altxa Sally altxa / zatoz gurekin dantzan».⁶ Mutilak baloiarekin jolasean ibiltzen ziren. Ez dut uste neskak eskolan baloiarekin asko jolasten ginenik. Etxean bai, apur bat. Amak gomazko pilota bat erosten zigun, eta kontu handiz ibili behar izaten genuen, ohartu orduko galtzen genuelako. Ez zuten askorik irauten. Jolasari *beisbol* deitzen genion. Nik ez nuen oso gogotsu jarduten, zeren gogotsu jarduten ahaleginduz gero lurrera erori eta min hartzen bainuen. Ez nintzen oso abila korrika egiteko kiroletan.

Eskolako mutil nagusietako batzuk oso onak ziren korrika egiteko kiroletan eta pilotarekin jolasean. Horiek ziren orobat eskolan egurraz arduratzen zirenak. Mutilik nagusienak eskolatik irten eta egurra moztera joaten ziren, eta gero egurra eskolara ekartzen zuten. Batzuetan, guraso batek gurdi bete egur ekartzen zuen eskolara, eta mutilak arduratzen ziren hura deskargatzeaz eta egurra barrura sartzeaz.

Zurien eskolan ez zuten horrelakorik egin behar izaten. Haienean udala edo barrutia arduratzen zen berokuntzaz. Gogoan dut nola ni artean oso gazte nintzela haur zurientzako eskola berri bat eraiki zuten gu bizi ginen lekutik ez oso urrun, eta, jakina, haren ondotik igaro behar izaten genuen. Adreiluzko eraikin polit bat zen, oraindik ere han dago. Geroago jakin nuen diru publikoarekin eraiki zela, hala zuriek nola beltzek ordaindutako zergekin. Beltzek, ostera, udalaren, barrutiaren edo estatuaren laguntzarik gabe eraiki eta berotu behar izaten zituzten beren eskolak.

Bazen beste alde bat zurien eskolaren eta gurearen artean: gurea bost hilabetekoa izaten zen, eta haiena, bederatzikoa. Ume beltzetako askok beren familiei lagundu behar izaten zieten; goldaketan eta landaketan udaberrian, eta uzta-bilketan udazkenean. Haien familiak partzuerrak ziren, nire aiton-amonen auzokoak bezala. Partzuerrek plantazio-jabeen lurrak lantzen zituzten, eta lortutako uztaren zati bat haientzat izaten zen. Gainerakoa plantazio-jabeari eman behar izaten zioten. Horregatik, seme-alabek ere lagundu behar izaten zieten. Ni eskolara hasi

6 «Little Sally Walker, sitting in the saucer; rise, Sally, rise; and ring around the roses» [Itzultzailean oharra]

nintzen garaian, udazken sartuxetik udaberri hasierara baino ez ginen joaten.

Eskolara hasi nintzenerako, jabetua nintzen beltzen eta zurien arteko alde handiaz. Aitonaren istorioak entzunak nituen, nola mutikotan langileburu zuriak txarto baino txartoago tratatu zuen. Amak esklabotza-garaiko istorioak kontatzen zizkidan, zaharrek berari kontatuak. Akorduan daukat behin kontatu zidala esklaboek beti zoriontsu agertu behar izaten zutela zurien aurrean. Izan ere, zuriak haserretu egiten ziren esklaboak triste sumatuz gero; gainera, esklaboen gogoko zirela ikusiz gero, ez zieten hain gogor egiten.

Zuriak hiltzen zirenean, beren esklaboek triste zeudela erakutsi behar zuten. Atzamarretan tu egiten zuten eta horrekin matrailak busti, negar-anpuluak antzeratzeko. Haur esklaboen aurrean egiten zuten, haiek ere gauza bera egin zezaten zuri nahigabetuen aurrean.

Pozten nintzen ez nintzelako bizi esklabo-garaian. Baina banekien nire bizi-baldintzak eta nire familiarenak, hein batean, ez zirela ordukoak baino askoz hobekak.

Ohartzen nintzen ez ginela ume zurien eskola berera joaten eta gure eskola ez zela haiena bezain ona. Gureak ez zeukan kristalik leihotetan, ezpada egurrezko tapak. Haien leihoek kristalezko xaflak zeuzkaten.

Haur zuri batzuk autobusez joaten ziren eskolara. Haur beltzok ez geneukan autobusik. Akorduan daukat nola eskolara oinez gindoazela batzuetan ume zurien autobusa gure ondotik igarotzen zen eta nola haur zuriek zaborra botatzen ziguten leihotik. Geroago, baina, zurien eskola-autobusa etortzen ikusten genuenean, bidetik apur bat baztertu eta soroetan zehar joaten ginen, kaminotik aparte. Orduan ez geneukan orain «eskubide zibil» esaten zaionik, eta, beraz, ez zegoen kexatzeko modurik, ezta kexak nori helarazi ere. Biziraupen-kontu bat zen; adibidez, bidetik ateratzea, egunetik egunera nor izaten jarraitzeko.

Pine Level txikiegia zen han segregazioa hirietakoa bezainbestekoa izateko. Ez dakit zein zen beltzen eta zurien arteko proportzioa, baina herri txiki bat zen. Azpiegitura publikoak, hala nola autobusak eta iturriak, oso urriak ziren; hortaz, haurra nintzelarik, ez nuen ikusi «Beltzak» eta «Zuriak» bereizten zituen iturriarik. Ez zegoen «herrigunerik». Hiru denda baino ez



Kotoi-bilketa lan gogorra eta nekagarria zen
Argazkia: Ben Shahn
(Iturria: AEBko Kongresuko Liburutegia)

zeuden, eta denek ere, funtsean, oinarrizko gaiak saltzen zituzten. Saltzaile guztiak zuriak ziren. Dendetako batean postetxe bat zegoen. Han ez zegoen tren-geltokirik, eta trenbiderik gertuena hoge kilometro ingurura zegoen, Ramer izeneko toki batean, mendebaldean.

Sei urte nituenerako, gai nintzen ohartzeko egiaz ez gine-la askeak. Ku Klux Klan komunitate beltzari erasotzen ari zen; elizak erretzen zituzten, jendea jipoitu, jendea hil. Orduan ez nintzen ohartzen zergatik ari zen Klana hainbeste ekintza egiten, baina gero ikasi nuen: soldadu afro-amerikarrak Lehen Mundu Gerratik itzultzen ari ziren, eta zurien eskubide berak balituzte bezala jokatzeko hasiak ziren, beren herrialdearen alde borrokatu zirelako.

Zuriek ez zuten gogoko beltzek halako jarrera izatea, eta beltzei hamaika modutan erasotzen hasi ziren, eskubiderik bati ere ez zutela gogorazteko.

Une batean, hain zen handia bortizkeria, ezen aitona beti eskura edukitzen baitzuen bere arma, bi kanoiko eskopeta bat. Eta akorduan daukat esaten zigutela kaleko arroparekin oheratu

behar genuela, Klaneko kideak gure etxean indarrez sartuz gero korrika atera ahal izateko. Gogoan dut aitonak esaten zuena: «Indarrez sartzen badira ez dakit zenbat eutsiko diodan, baina atetik sartzen den lehena garbituko dut».

Autobidea zeritzen hartan bizi ginen, zeina garai hartan hartxintzarrez egina baitzen, ez zeukan zolagainik. Klaneko kideak autobide hartatik ibiltzen ziren. Aitona ez zen hara kanpora aterako istilu bila, baina bere etxea defendatuko zuen. Akordatzen naiz pentsatzen nuela zer gerta ere nik ikusi egin nahi nuela. Aitona eskopetarekin tiro egiten ikusi nahi nuen. Ez ninduen lotan harrapatuko. Gogoan dut gaeuz sutondoan jesartzen zela bere kulunkaulkian eta ni lurrian jesartzen nintzela haren aulkiaren ondoan, eta eskopeta ondoan edukitzen zuen, zer jatzoko ere.

Zortea izan genuen, Klaneko kideak ez baitziren inoiz saiatu gure etxean sartzen. Eta hala, denbora batera, amaitu egin zen bortxa-sasoi ezohiko hura. Baina indarkeria beti hantxe izaten zen, eta beti jakiten genuen haren berri.

Gasatea nintzen eta ez neukan askorik irakurria arrazismoari buruz, baina gauza ugari aditzen nituen. Entzuten nuen beltz batzuk hilik agertu zirela eta inork ez zekiela zer gertatu zen; eta, gehiagoko barik, beste batzuek haien gorpuak jasotzen zituzten eta lur ematen zieten. Batzuetan galdetzen didate nola lortzen nuen ikara harekin aurrera egitea, baina hura zen nik ezagutzen nuen bizimodu bakarra eta, era berean, Pine Level zen ezagutzen nuen toki bakarra.

Gure aiton-amonak ziren plantazio hartako lur-jabe beltz bakarrak. Hemezortzi akre zeuzkaten. Hamabi akre gure birraitona James Percivalengandik jaso zituzten oinordetzan, zeinak erosi baitzituen beretzat eta bere emaztearentzat, gure birramona Mary Janerentzat, emantzipazioaren ondoren, eta txabolatxo bat eraiki zuen. Gainerako sei akreak haien alabari eman zizkioten, gure amona Roseri, bizi bitartean erabili ahal izateko. Izan ere, amona Rosek Wright familiako neskatila bat zaindu zuen, eta huraxe zen lurraren jabea. Neskatila nagusitu egin zen, eta Montgomeryko merkatari batekin ezkondu, Moses Hudsonekin. Plantazioa neskarena zen, baina, ezkonduz geroztik, Hudson Place izena jarri zioten. Moses Hudsonek amona Roseri eman

zizkion lurra eta wrightarren bizitoki izandako etxea. Etxe hartan bizi izan ginen.

Gure lursailean fruitu-arbolak, pekanondoak eta intxaurreondoak geneuzkan. Ortua ere bageneukan, eta oiloak eta zenbait behi hazten genituen. Ez genuen gauza handirik erosi behar izaten dendetan. Normalean aitona joaten zen erosketak egitera, baina batzuetan anaia eta biok ere joaten ginen berarekin gurdian. Aitonak arrautzak eramaten zituen saltzeko, eta gure familiak behar zuen eta ez zeukan beste edozerekin trukatzeko zituen. Oilaskoak eta zekorrak ere saltzen zituen. Behar genuen ia guztia aurkitzen genuen dendetan, baita oihalak ere. Ez dut gogoan inoiz jantzirik erosi genuenik Pine Levelen, baina oi hala erosten genuen eta amak arropak josten zizkigun. Irabazten genuen diru apurra amaren irakasle-lanetik eta besteen lurretan behar egitetik lortzen genuen.

Gure lurra lantzen amaitzen genuenean, Moses Hudsonen soroan lan egiten genuen. Sherman Gray jauna arduratzen zen lursaileko beharginez. Beti Sherman jauna edo Gray jauna deitzen genion; gizon zaharra zen, eta errespetatzen genuen. Jendeak «beltz goren» deitzen zion. Erdi zuria zen. Ume askoko familia ugaria zuen, eta gugandik hurre bizi ziren.

Oso gaztetatik hasi nintzen soroan lan egiten, sei edo zazpi urte baino zaharragoa ez nintzela. Beste umei bezalako irin-zaku bat ematen zidaten, libera bat edo bi kotoi bil nezan. Jolas egiten genuen, nork gehiago bilduko. Zaharragoa eta indartsuagoa nintzelarik, kotoia biltzen nuen batzuetan, eta kotoia mozten besteetan.

Udazkenean biltzen genuen kotoia, jada heldua eta kotoi-makinarako prest zegoenean. Makinak zuntza eta kotoi-haziak bereizten zituen. Mehazketa udaberrian egiten zen, landareak gazteak zirela. Landarearen inguruko belar txarrak mehaztu behar ziren, eta batzuetan kotoi-landareak ere bakandu behar izaten ziren, indartsu haz zitezen.

Kotoi-mehazketan jardundako egun bakoitzeko berrogeita hamar zentabo ordaintzen zizkiguten, eta dolar bat bildutako ehun liberako. Ez dakit zenbat bilduko nuen txikitan, umeok helduen tontor berean uzten baikenuen kotoi-zakua. Gure familiak bildutako kotoi guztia tontor berean jartzen genuen. Hamar-hamabi urte nituenean, nire tontorra bereiz pisatzen hasi ziren.

Lan gogorra zen kotoia biltzea eta me haztea. Esaten genuen «ahaletik ezinera» jarduten genuela, hau da, ikusten zenetik (egunsentitik) ikusi ezin zenera (ilunabarrera). Ez dut sekula ahaztuko nola erretzen nintzen eguzkitan. Harea beroak oinak erretzen zizkigun, zapata zaharrekin zein batere gabe.

Normalean ez genuen oinetakorik janzten. Bazen esatera bat: «Zapatarik ez zen han, soilik nagusiaren eta zaldiaren oinean», eta halaxe zen Hudson Placeko lursaileko beharginontzat. Bi oinetako-pare on baino ez zeuden soroan: langileburu zuri Freeman jaunarenak eta bera soroan zehar eramaten zuen zaldiarenak.

Freeman jaunaren ardurapean zegoen guztia. Aitonak ez zigun uzten haren seme-alabekin jolasten Sylvesterra eta bioi. Behin batean, Sherman Gray jauna Freeman jaunarengana joan zen eta galdetu zion: «Zer egingo zenukete zuriok gure gisako beltzak zuentzat lanean izango ez bagintuzue?», iradokiz lursailleko beharginek laudoriozko berbaren bat merezi zutela egiten ari ziren kalitate handiko lanagatik. Freeman jaunak aginteke-riaz erantzun zion: «Sherman, zuek niretzat lanean izango ez bazintuztet, beste batzuk izango nituzke. Beste beltz ergel batzuk izango nituzke niretzat lanean». Horixe esan zuen. Eta ondotxo dakit esan zuela, une hartantxe soroan lanean baikenbiltzan.

Gogoan dut horri buruz pentsatzen nuela, baita gure au-zoko beste gizon bati buruz ere. Hark ere seme-alaba ugariko familia zuen; gizon beltz erabat nahasi gabe bat zen, batere odol zuririk gabea. Zaharra zen, eta Gus Vaughn zuen izena. Haren emazteak eta seme-alabek soroan lan egiten zuten, baina Gus Vaughn jaunak ez zuen ezer egiten, makilarekin hara-hona ibili ez besterik. Ez zuen inorentzat lan egiten. Ez zuen ezer egiten, hara-hona ibili eta handikeriak esan ez besterik. Freeman jaunak ezin zuen Gus Vaughn jauna eraman. Esaten zion: «Gus, ez zaitut gustuko». Vaughn jaunak erantzuten zion: «Ez da alferreko maitasunik». Eta aurrera jarraitzen zuen. Hasieran ez nuen ulertzen Vaughn jaunak zer esan nahi zuen, baina gero ohartu nintzen zer ari zen esaten: berak ere ez zuen Freeman jauna gustuko, eta, beraz, haien artean ez zen debaldeko maitasunik.

Horrenbestez, ikusi nuen bazela gutxienez gizon beltz bat Freeman jaunarentzat lanik egiten ez zuena. Eta geroago, entzuten nituenean zuriak esaten azal zuriko beltzak zirela zuriei

aurre egitera ausartzen zirenak, atzera begiratu eta Gus Vaughn jaunarekin akordatzen nintzen, zeinak ez baitzeukan odol zuririk batere.

Pine Leveleko zuri guztiak ez ziren desatseginak beltzokin, eta ni ez nintzen hazi sentituz zuri guztiak gorrotagarriak zirela. Oso gazte nintzelarik, gogoan dut bazela andre zahar bat, andre zuri zahar bat, arrantzan eramaten ninduen. Zinez atseginaren, eta beste edozein bezala tratatzen gintuen. Askotan joaten zen nire aitona-amonak bisitatzen, eta luzaz egoten zen haiekin hizketan. Hortaz, baziren zenbait zuri atsegin Pine Levelen.

HIRU

ESKOLARATZEA MONTGOMERYN

Koskortzen ari nintzelarik, nire mundua Pine Levelen hasi eta hantxe bukatzen zen. Zortzi bat urterekin joan nintzen lehenengoz Montgomeryra, hiri handi gertukoenera. Irakasle-lizentzia ez galtzeko, amak eskolak hartzen zituen udan Alabama State Normal-en, hau da, beltzentzako unibertsitate publikoan (gaur egun, Alabamako Unibertsitate Publikoa da).

Autoz joaten ginen Pine Leveletik Montgomeryra. Ez dut gogoan nire lehen urteetan inoiz ibili nintzenik hiriarteko autobus publiko batean. Urte asko geroago, senarrak esan zidan bazela autobus publiko bat Tuskegee eta Montgomery lotzen zituena (bera Tuskegeen bizi izan zen denbora batez). Nolanahi ere, beltzei ez zieten uzten autobus haren barruan bidaiatzen; autobusaren gainean eseri behar izaten zuten, maletekin batera. Baina haurtzaroan, Pine Levelen, ez nuen sekula izan autobus haren berririk. Halakorik bazen, Pine Leveleko beltzek ez zuten halako umiliaziorik jasan nahiko. Nahiago zuten auto pribatuetan bidaiatu.

Pine Leveleko beltz batzuek autoa zeukaten, eta esan daiteke nolabaiteko garraio-zerbitzua eskaintzen zutela. Bazegoen norberak nahi zuen tokira ordainduta joatea, baldin eta autojabeak esandako ordurako prest egoten bazinen. Batzuetan oso goiz jaiki behar izaten genuen. Batzuek kamionetak zeukaten, eta jendea atzealdean zutik eramaten zuten. Ez dut gogoan inoiz halako batean ibili naizenik.

Gu batez ere Barefoot jauna izeneko gizon zahar batekin ibiltzen ginen. Hirira joateko aukera genuen aldiro, goizean goi-

zerako prest egon behar izaten genuen. Ford T txiki bat zeukan, eta jendez betetzen zuen.

Erosketak egitera joaten bazinen Montgomeryra, Bougahome izeneko toki txiki batean jaitsi behar zenuen; guk «bug-a(t)-home» [zomorro bat etxean] ahoskatzen genuen. Nekazarietzako auzo komertzial txiki bat zen, eta oinarrizko produktuak eta pentsuak erosten zituzten han. Montgomeryrako bideko lehen geralekua zen, eta Montgomerytik irteteko bideko azkena. Montgomeryn geratzeko asmoa izanez gero, lotarako leku bat bilatu behar zenuen. Beltzak ezin ziren joan hiriguneko hoteletara edo zuriertzako ostatuetara. Baziren beltzentzako ostatuak ere, baina guk senideen etxeetan geratu behar izaten genuen, amak diru gutxi irabazten zuelako irakasletzan. Ordurako baziren zenbait urte aita gugandik aparte zebilela, eta gutxitan jartzen zen amarekin harremanetan. Halako batean etxera idazten bazigun, diru apurtxo bat bidaltzen zuen, edo ezer ez. Gainera, emakume eta umeentzat hobe zen familiarenean geratzea, ez ostatuetan.

Amona Roseren lehengusina batenera joaten ginen, Ida Nobles-enera. Anaia, jakina, etxean geratzen zen aiton-amonekin. Sei bat urte zituen. Ida lehengusina ezkongabea zen, eta iloba bat zeukan bere ardurapean, ahizparen semea. Ahizpa Chicagora aldatua zen, eta tranbia batek harrapatuta hil zen. Seme hura utzi zuen, zeinak hamasei urte baitzituen, nahiz eta nik gizon heldutzat jo nuen, eta Ida lehengusinak bere etxean hartu zuen. Baina Idak gustuko ninduen, eta beraren neskatila izan nendin nahi zuen. Bestalde, amak nahi zuen ni Montgomeryko eskola batera joatea, han bederatzi hilabeteko ikasturteak zeuzkatelako. Ida lehengusina mediku baten ondoan bizi zen; beraz, eztarriko edo amigdaletako mina izanez gero, garai hartan izan ohi nuenez, erraza izango zen medikutara joatea. Amari egoera ezin hobea iruditu zitzaion, eta prest zegoen ikasturtean zehar ni Ida lehengusinarekin uzteko. Baina Ida lehengusinak legalki adoptatu nahi ninduen, eta beraren umetzat hartu, izena aldatuta eta hori guztia. Nik ez neukan asmo horien berririk, zeren helduek soil-soilik esan zidaten denbora batez beste norbaiten ardurapean egongo nintzela. Amak ez zuen nahi ni inori ematea, eta Ida lehengusinak ez zuen hori gustuko; beraz, beste lehengusina batenera joan ginen. Nik geroago izan nuen tirabira



«Beltzak» zioten kartelak zeuden iturrietan, legeak hala aginduta
Argazkia: John Vachon
(Iturria: AEBko Kongresuko Liburutegia)

haren berri, amak kontatuta. Edonola ere, nahiago nuen amarekin geratu. Eta nahiago nuen Sylvester anaia txikitzat edukitzea, eta ez Ida lehengusinarene iloba hura, Gus Delaney, anaia askoz zaharragozat.

Beraz, Ida lehengusinarene etxea utzi genuen eta amaren lehengusu batenera joan ginen, Rose amonaren iloba batenera. Haiiek percivaltarrak ziren, Lelar lehengusua eta haren emazte Saphonia. Hiru ume txiki zeuzkaten: Pauline, Claud eta haur jaioberri bat, Morris izenekoa. Huraxe izan zen jaioberri batekin bizitzeko izan nuen lehen aukera, eta atsegin izan nuen. Ama eta biok Percival familiarekin egon ginen udako eskolak amaitu ziren arte, eta gero Pine Levelera itzuli ginen.

Ama irakasle-lizentzia berritzeko eskolara joaten zen bitartean, ni Alabama State Normaleko eskolara joan nintzen. Oso gogoko nuen; gainera, udan neguan baino osasun hobea izaten nuenez, ez nintzen hainbeste gaixotzen eta ez nuen hainbestetan huts egiten. Prestakuntza-eskola bat zen, eta hantxe egiten zituzten praktikak irakasle izateko bidean ziren ikasleek. Herri-

ko eskolaren aldean, Alabama Normalekoa handia begitantzen zitzaidan. Bazen adreiluzko eraikin handi bat, Tullibody Hall izenekoa, eta eraikin txikiagoak ere baziren, lau edo. Zelai ireki bat zegoen kirolerako, estalperik gabeko harmailekin. Aste batzuk baino ez nituen egin han, berriz Pine Levelera itzuli aurretik.

Uste dut Pine Levelera itzuli ginenean jakin genuela Mount Zionen eskolak emateari utzi ziotela eta itxi egin zutela egurrezko eraikin txikia. Beraz, Spring Hilleko eskolara joan behar genuen, hamahiru bat kilometrora zegoen eliza batera. Gure ama zen hango irakaslea, eta oraindik ere Spring Hillen geratzen zen aste barruan. Sylvesterrek eta biok oinez egiten genuen egunero eskolarako joan-etorria.

Ama oso irakasle ona zen. Ez geneukan gimnasiorik, baina garrantzi handia ematen zion kirola egiteari. Luzaketa-ariketak egiten genituen eguna ondo hasteko. Kanpoan egiten genituen. Gure amak sormen handia zuen, eta eskola barruan ere gauza asko egiten genituen, ez bakarrik irakurri, idatzi eta ikasi. Neskok josten, kakorratz-lana egiten, trikotatzen eta brodatzen aritzen ginen. Eta otzarak ere egiten genituen arto-azalekin eta pinu-orratzekin. Ama izan nuen irakasle hamaika urte bete nituen arte. Gero Montgomeryko eskola batera bidali ninduen.

Eskola hark Montgomeryko Industria Eskola zuen izena, baina gehientsuenek White andereñoaren eskola deitzen zioten, zeren Alice L. White andereñoa zen haren zuzendaria, baita fundatzaileetako bat ere. Beste fundatzailea Margaret Beard andereñoa zen. White andereñoa zuria zen, orobat gainerako irakasle guztiak. Ikasle guztiak neska afro-amerikarrak ziren. Spring Hillen ezinezkoa nuen seigarren mailatik gora segitzea, eta inguru hartan ez zegoen beltzentzako bigarren hezkuntzako ikastetxe publikorik; horregatik bidali ninduen amak hara. Hezkuntza publikoan seigarren mailaz harago ikasi nahi zuen ikasle beltz orok Montgomeryra joan behar zuen, Alabama Normal prestakuntza-eskolara.

Halere, Ida lehengusinarekin geratu izan banintz, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikora joan ahalko nintzen. Zortzi urte nituelarik, Swayne Eskola deitzen zen. Geroago izena aldatu zioten, eta Booker T. Washington jarri. Haren ondotik igarotzen ginen, eta Ida lehengusinak esaten zidan berarekin geratuz gero hara joango nintzela eskolara. Baina hura ez zen ondo atera, eta

amari otu zitzaion White andereñoaren eskolara bidaltzea, ospe handia baitzuen, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoak baino hobea. Amak nahi zuen nik White andereñoak eskaintzen zuen heziketa jasotzea.

White andereñoa Melrose Massachusetts-ekoa zen, eta harekin lan egiten zuten irakasle guztiak Iparreko emakume zuriak ziren. Hortaz, Hegora etorri zirenean neska beltzak heztera, Montgomeryko komunitate zuriak erabat baztertu zituen. Bizitza soziala beltzekin egin beharrean zeuden, eta, beraz, beltzen elizetara joaten ziren, eta hala beste guztia. White andereñoak garai latza igaro zuen. Lehen urteetan, bitan erre zioten eskola. Nahiko urte zeramatzan martxan amak hara eraman ninduenerrako.

White andereñoaren eskolan hasi aurretik, amigdalak kendu zizkidaten Montgomeryn, amigdalitisa izaten bainuen bi urte inguru nituenetik. Artean ere krisi larriak izaten nituen, eta eskolara joan gabe egon behar izaten nuen askotan, batez ere eguraldiak hozten zuenean. Herrian, Spring Hilleko eliza-eskola hotz eta haize-lasterrez josian, beti hozten nintzen. Ia etengabe izaten nuen hotzeria eta eztarriko mina.

Herriko sendagileak esana zuen nire bihotza ahulegia zela ebakuntzan lo egoteko jarri ohi zuten anestesia orokorrari aurre egiteko. Eta amari azaldu zion bazuela ebakuntza beste modu batean egitea: ni aulki batean eserita nengoela, eta anestesia lokala soilik emanda. Baina amak esan zion ezetz, ez genuela hala egingo. Jasanezina zitzaion. Beraz, Montgomeryra joan zen. Fannie ahizpa zeukan hantxe, eta hark seme bat zuen, Thomas, ni baino hilabete gutxi batzuk gazteagoa. Haren amigdalek ez zuten inongo arazorik, edo hori esan zidan berak urte batzuk geroago, horretaz hitz egin genuenean. Baina nire ama eta haren ahizpa moldatu ziren, nolabait, bioi amigdalak ken ziezazkiguten ebakuntza bakarraren prezioan, eta, beraz, biok operatu gintuzten.

Amigdalak erauzi ondoren oso gaixo egon nintzen. Ez nuen ezer ikusten, begiak handituta neuzkan, eta eztarriak denboratxoa behar izan zuen osatzeko. Gau bat edo bi igaro genituen ospitalean. Hale erietxea zuen izena, eta sendagilea zuria zen, gogoan dudanez. Amak Pine Levelera eraman ninduen berriro, eta gaixorik egon nintzen denbora luzez. Thomas lehengusua

berehala indarberritu zen. Halako batean ni ere suspertu nintzen, eta, geroztik, hazi ere askoz azkarrago hazi nintzen.

Amigdalak erauzi ondoren ez nuen berriro amigdalitisik izan, baina, ebakuntzagatik eta gaixondoagatik galdu nituen eskola-egun guztiak zirela eta, seigarren mailan barik bosgarrenean jarri ninduten White andereñoaren eskolan. Spring Hallen ere bosgarren maila egin nuen, baina, landa-aldeko eskola batetik nentorrenez, pentsatu zuten beharbada atzean geratuko nintzela. Gogoan dut ikasturtearen erdialdean seigarren mailara pasatu nindutela.

Hamaika urterekin White andereñoaren eskolan hasi nintzenezan, amak nire matrikulari zegokion tasa ordaindu zuen. Geroago beka eman zidaten, amari gaitz zitziolako matrikula ordaintzea. Nire egitekoa zen ikasmahaietako hautsa kentzea, lurra erraztatzea eta sastarrontziak hustea, eta arbelak ere garbitzen nituen, han idatzitakoek hurrengo egunerako balio ez bazuten. Badakit ikasleen matrikula-tasak ez zirela eskolaren diru-iturri bakarra. Uste dut White andereñoak herriko eliza presbiterianoaren edo kongregazionalistaren laguntzaren bat jasotzen zuela. Rosenwald-en laguntza ere izango zuen, zeren gogoan dut behin Julius Rosenwald jauna eskolara etorri zela. Ez ziguten aurkeztu, baina bagenekien nor zen. Etorri eta begiratu egin zuen. Uste dut ni hara heldu eta gutxira izan zela hori.

Rosenwald jauna Sears, Roebuck & Co. enpresako presidentea zen, eta izugarri aberatsa zen. Hezkuntza asko interesatzen zitzaion, batez ere Hegoko ume beltzena. Landa-eremuetan gela bakarreko ikastetxeak eraiki zituen, eta jendeak Rosenwald eskola zeritzen haiei. Amak askotan hitz egiten zuen haietaz. Baina White andereñoaren eskola ez zen gela bakarrekoa, hiru solairuko eraikin bat zen. Oraindik ere hantxe dago, Montgomeryko Union Street kalean, High Streetetik gertu. Orain bigarren hezkuntzako Booker T. Washington ikastetxearen parte da.

Oholesi garai batek bereizten zuen eskola katoliko misto batetik. Ikasle guztiak beltzak ziren han, eta irakasleak eta arduradun erlijiosoak, berriz, denak zuriak. Itxura batean, nolabaiteko etsaitasuna zegoen bi eskolen artean. Eta etsaitasuna baino zerbait gehiago ere egongo zen oholesi hark bi ikastetxeak bereizi ez balitu. Batzuetan, eskola katolikoko ikasleak hesira igotzen ziren eta haren gainetik begiratzen zuten, baina ez askorik, zeren

White andereñoa adi-adi ibiltzen baitzen, ziurtatzeko ez zegoela ikasleen artean hartu-emanik; ez solasik, ez matrakarik.

Normalean oinez egiten genuen eskolarako joan-etorria. Eguraldia oso txarra zenean bakarrik hartzen genuen tranbia. Sasoi hartan ez zegoen hiri barruko autobus publikorik Montgomeryn, tranbiak bakarrik. Eta segregatuak ziren. Beltzok igotzen ginenean, bagoiaren atze-atzera joan behar izaten genuen.

Segregazioak beste alderdi batzuk ere bazituen Montgomeryn, eta ohitu egin behar izan nuen haietara. Esate batera, ur-iturri publikoak. Montgomeryko ur-iturri publikoetan «Zuriak» eta «Beltzak» zioten kartelak zeuden. Nire aurretiko eta osteko milioika haur beltzen antzera, nik ere neure artean pentsatzen nuen ea ur «zuria»k eta ur «beltza»k zapore desberdina zuten. Jakin nahi nuen ea ur «zuria» zuria zen eta ea ur «beltza»k beste kolore bat ote zuen. Denboratxoa behar izan nuen ulertzeko urak ez zirela ezertan desberdinak, kolore eta zapore bera zutela. Aldea zen zein iturri publikotatik edan zezakeen bakoitzak.

Garai hartan izeba Fannierekin eta haren seme-alabekin bizi nintzen: Howard, Thomas, Annie Mae eta Ella Frances Williamson. Izeba Fannieren senarra hila zen. Hiritik urruntxo bizi ginen, eta ezinezkoa zitzaigun etxera itzultzea auzo zuri bateatik igaro gabe. Behin batean, eskolatik bueltan nentorren Annie Mae lehengusinarekin eta beste ume batzuekin. Nire lehengusu-lehengusinak eskola publikora joaten ziren; familia hartan, ni nintzen White andereñoarenera joaten zen bakarra. Esan bezala, gu oinez gentozen, eta patinetan zihoan mutil zuri bat alboan jarri zitzaigun; eta orduan, auskalo zergatik, niri bultza egitea eta espaloitik behera botatzea otu zitzaion. Buelta eman, eta nik ere bultza egin nion berari. Bitartean, emakume zuri bat hantxe geldi zegoen, gugandik ez oso urrun. Itxura batean mutilaren ama zen, zeren esan baitzidan bere umeari bultza egin niola eta kartzela-zuloan sartuko ninduela eta ezin izango nintzela inoiz berriro handik irten. Esan nion mutilak bultzatu ninduela lehenik eta ez nuela nahi inork ni bultzatzerik, ez bainion ezer egin.

Gertaera haren ondoren, amak erabaki zuen hobe nuela berriro ere Lelar eta Saphonia Percival lehengusuenera aldatzea. Ez zuen nahi nik egunero auzo zuriak zeharkatzea izeba Fannieren etxerako joan-etorrietan. Patinetan zihoan mutil

zuriarekin jazotakoa denetan beldurgarriena izan zen, baina askotan gerturatzen zitzaizkigun mutiko zuriak batekoarekin edo besteoarekin mehatxu egitera. Zakar antzean erantzun behar izaten genien muturka ez amaitzeko.

Gogoko nuen White andereñoaren eskolara joatea. Ez zitzaidan gaitza suertatu irakasle zurietara ohitzea, ikasia bainuen Pine Levelen, batez ere arrantzan eramaten ninduen andre zaharrarengandik, zuriak pertsona arrunt bat banintz bezala tratanintzaketela. 250-300 bat ikasle zeuden eskolan, eta klaseko ohiko ikasgaiak ematen genituen, hala nola ingelesa, zientzia eta geografia. Ez dut gogoan zientziatarako mikroskopiorik geneukanik. Baldin eta bakarren bat bazegoen, nik ez nuen erabili. Eskola ez zen hain aurreratua. Edonola ere, garai hartan etxeko zereginak ziren neska gazteen heziketaren oinarria.

Uste dut etxeko zientzia esaten ziotela. Kozinatzen, josten eta gaixoak zaintzen erakusten ziguten. Testuliburu bat geneukan, non azaltzen baitzen nola zaindu gaixoak etxean, nola egin haien oheak, nola eman jaten, nola artatu. Garai hartan, batez ere Hegoan, jendea ez zen askorik joaten ospitalera. Gainera, ospitale eta sendagile gehienak zurientzat zirenez, beltz gaixo gehienak etxean geratzen ziren eta emakume beltzek zaintzen zituzten.

Bestalde, terapia okupazionala zeritzotena ere bazen eskolan. Gauzak egiten genituen; arropak, besteak beste. Joskintzan nahiko ondo trebatu nintzen. Ikasle zaharrenek tapizak ere egiten zituzten, baina ni ez nintzen sekula horretara iritsi.

White andereñoaren eskolan gauza bat ikasi nuen beste guztien gaintik: pertsona duina eta errespetagarria naizela eta ez dudala besteek baino helburu apalagorik izan behar beltza naizelako. Handinahiak izaten irakatsi ziguten, eta nahi genuena egiteko gai ginela sinesten. Hori ez nuen ikasi soilik White andereñoaren eskolan. Aiton-amonengandik eta amarengandik ere ikasi nuen. Baina White andereñoaren eskolako irakasleek etxean ikasitakoa finkatu zuten.

White andereñoaren eskola itxi egin zuten nik han hiru bat ikasturte egin ondoren. Gogoan dut zortzigarren ikasturtea amaitu berria nintzela. White andereñoa asko zahartua zen, eta ezinezkoa zitzaion eskolarekin aurrera jarraitzea. Zuzendarilana utzi behar izan zuen. Bere ardurapeko irakasle gehienak

ere adinean aurrera zihoazen, eta zail zitzaion irakasle gazteak kontratatzea. White andereñoaren irakasleetako bakar batek ere ez zuen eduki eskolaren zuzendaritza hartzeko indarrik, eta ez zegoen beste inor haren tokia har zezakeenik. Berak garai latzak igaroak zituen, eta pentsatzen dut neska beltzentzako eskola bat zuzentzea ez zela batere erakargarria zurientzat. White andereñoak Hegotik alde egin zuen; Massachusettsera itzuli zen, eta hantxe hil zen urte batzuk geroago. Gogoan dut haren eskutiz bat jaso nuela hura Iparrera itzuli eta gero.

1985ean, White andereñoaren eskolako ikasle ohien topaketa batera joan nintzen. Ez gara askorik geratzen. White andereñoaren Montgomeryko ikasleek haren eta Beard andereñoaren argazkiak jarri dituzte Estatuaren Artxiboetan; beraz, orain omendu egiten dituzte, nahiz eta lehen ostrazismora kondenatzen zituzten.

Zorionez, White andereñoaren eskola itxi zenerako, Montgomeryn bazen beltzentzako bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko bat. Lehenago, baina, lehen hezkuntzako bakarrik zegoen; ez zegoen beltzentzako bigarren hezkuntzako ikastetxe publikorik. Birminghamera joan behar zenuen, edo Alabama Normal prestakuntza-eskolara. Baina Swayne eskola, lehen hezkuntzako, Booker T. Washington Ikastetxea bihurtu zuten, bigarren hezkuntzako, eta hara joan nintzen bederatzigarren maila egitera.

Booker T. Washington ikastetxean hasi nintzenerako, izeba Fannie auzo beltz batera aldatua zen; beraz, ni ere berriz harenera joan nintzen. Izeba Fanniek landa-aldeko judu-elkar-tea garbitzen zuen; ez dut gogoan haren izena, *juduen elkar-tea* esaten genion. Izebak osasun makala izaten zuen; oso argal zegoen, eta ezinezkoa zitzaion lan asko egitea. Horregatik, umeok ere berekin eramaten gintuen, berarekin batera lan egin genezan. Elkar-tea auzo zuri batean zegoen, eta haren ondoan lursail huts bat zegoen.

Egun batean, izebaren alaba Annie Mae eta biok baiak biltzen ari ginen lursailean. Zurien etxeak zeuden inguruan. Mutiltxo bat guri begira geratu zen, eta esan zuen: «Aizue, beltzok, hobe duzue baia horiek bakean utzi». Beraz, Annie Mae eta biok hari agiraka hasi ginen, egingo genizkionak aletuz. Hesi batek bereizten gintuen harengandik, baina esan genion: «Hona ba-

zatoz, ederto jipoituko zaitugu». Gero izeba Fannieri kontatu genion mutiketoxo bat demandan hasi zitzaigula baiak biltzen ari ginelako eta guk ere hari epelak esan genizkiola. Eta esan zigun: «Burutik egin zaizue? Ahoa itxi hurrengoan. Norbaiti kontatu izan balio, lintxatu egingo zintuzketen, eta ezingo genukeen ezer egin. Negar, ez besterik!». Beraz, huraxe izan zen zuriei ez ihardesteari buruzko nire bigarren lezioa. Gertaera hark ez ninduen lehenak bezainbat aztoratu, Annie Mae eta biok elkarrekin geundelako.

Beste behin ere gertatu zen. Baso baten ondoan bizi ginen; erreka bat zegoen, eta gu basoan zehar genbiltzan, sugarriak biltzen etxerako. Orduko hartan nire anaia ere gurekin zegoen, Montgomeryko eskolara joaten baitzen. Mutil nerabe zuri batzuk atzetik jarraika eta mehatxuka hasi zitzaizkigun, anaia erre kara botako zutela esaka. Sylvester ez zen haiek bezain handia, baina horixe esaten zuten, «beltz handi» hura erre kara botako zutela. Atzetik joan nintzaian, eta esan nien: «Ez, ez duzue inor uretara botako, bestela guztiok joango gara barrura». Beraz, atzera egin zuten, gure ondotik haiek ere uretan amaituko zutela pentsatuta.

Ez dakit mutil zurien talde bera izango zen, baina beste behin anaiak kontatu zidan bera eta beraren lagun bat ez-dakit non zeudela eta mutil zuri batzuk harrika hasi zitzaizkiela. Beraz, berak ere harrika hasi ziren, eta mutiletako bat jo zuten eta mutil zuri guztiek alde egin zuten. Handik gutxira gizon batekin itzuli ziren, haietako baten aita beharbada, eta anaiak esan zuen gizonak eskopeta bat zeukala eta mutiko zuriari galdetu ziola ea nire anaia eta haren laguna ziren harrika aritu zirenak. Anaiak kontatu zidan ez zekiela zergatik baina mutikoak ezetz erantzun zuela: «Ez, ez dira hauek». Beharbada mutikoak ez zuen onartu nahi izan nork jo zuen. Edo agian ez zuen nahi mutil beltzei tiro egiterik. Garai hartan anaiak hamahiru edo hamalau urte izango zituen. Ozta-ozta libratu zen. Ez zuen inoiz ezer aipatu, harik eta behin, nagusitan, orduan gertatutakoari buruz hizketan aritu ginen arte.

Aski ohikoak ziren ume zuriekiko liskarrak, baina batzuk besteak baino gehiago nabarmentzen ziren. Asko ahaztuak ditut jada, batez ere hitzezkoak baino ez zirenak. Haur zuriak ez ziren krudelak berez, inguruko helduek jokarazten zieten horrela.

Hamargarren eta hamaikagarren mailak egiteko, Alabama State Normaleko prestakuntza-eskolara joan nintzen. Garai hartan Negroen Irakasle Eskola zuen izena, une hartan *negro* baitzen beltz-jendea gizalegez adierazteko gehien erabiltzen zen hitza. Artean ere, Montgomeryn ez zegoen beltzentzako bigarren hezkuntzako ikastetxe publikorik. Montgomeryko Udalak ez zuen halakorik ireki 1938ra arte, eta orduan ere ez zuen eraikin propiorik izan, 1946ra arte. Ikasle beltzak Alabama Stateko bigarren hezkuntzako prestakuntza-eskolara joan zitezkeen, irakasle beltzak trebatzeko programa baten barruan. Ni hamaikagarren mailara arte egon nintzen han. Hain justu ere, irailean hasi nuen hamaikagarrena, baina amona gaixo zegoen, eta hilabete-edo geroago eskola utzi nuen, hura zaintzeko. Handik hilabetera-edo hil zen. Hamasei urte nituen.

Haren ondoren Montgomeryra itzuli nintzen, eta nire «jendaurreko» lehen lana lortu nuen. Aurretik etxeko lanetan jarduna nintzen, noizbehinka etxeak garbitzen. Beste lan hura alkandora-fabrika batean zen, non gizonezkoen lan-arropak egiten baitzituzten, oihal bakero urdinezkoak. Denbora labur batez Alabama Satatera itzuli nintzen, baina orduan ama gaixotu zen, eta ezin izan nuen jarraitu. Migrainak izaten zituen, eta hankak eta oinak handitzen zitzaizkion; beraz, eskola utzi eta ama zaintzen hasi nintzen, eta Sylvester anaia lanera joaten zen.

Ez nuen gogo onez utzi eskola ez lehenengo aldian ez bigarrenean, baina neuri zegokidan amonarekin laguntzea lehenik eta ama zaintzea ondoren. Ez nintzen kexatu, halaxe egokitu zen.

Amak onera egin ondoren etxeko lanetan aritu nintzen inoiz edo behin, baina batez ere etxaldeaz arduratu nintzen ezkondu nintzen arte. Ikasketak ere ezkondu ostean amaitu nituen.

LAU

EZKONTZA ETA AKTIBISMOA

Hona nola ezagutu nuen Raymond Parks. Biok lagun genuen nire gertuko andre baten bidez izan zen. Parksek egin berriak zituen nire lagunak oso ondo ezagutzen zuen neska batekikoak, eta, beraz, lagunak Parksi esan zion ni ezagutu behar ninduela. Nolanahi ere, une hartan ez neukan gizonenganako interes handirik, nik ere lehentxeago zenbait maite-kontu zori-tzarreko izan nituelako.

Ikusi ninduenean etxera bisitan etorri nahi izan zuen, baina niri bera zuriegia begitandu zitzaidan. Gizon zuriek herra eragiten zidaten, aitonak izan ezik, eta Raymond Parks oso azal argikoa zen. Gertu zituen hogeita hamar urteak, eta bizargin ziharduen Montgomery erdialdeko beltzen bizartegi batean, O.L. Campbell jaunarenenean. Nik hogei urte ere ez nituen. Banekien niganako interesa zuela, baina, beste ezertarako biderik eman gabe, adeitasunez hitz egin nion eta ez nuen berriro harengan pentsatu.

Geroago, berriz ere nire bila etortzea erabaki zuen. Gure kaletik pasieran ibili zen autoz, eta nire ama ikusi zuen ataurrean. Lehentxeago, baina, adineko emakume batekin hitz egin zuen kalean, eta galdetu zion ea ezagutzen ninduen. Jendeak ez zuen ulertzen zer zela-eta ari zen haren gisako norbait inguruan itaunka; izan ere, gizon zuri bat zela uste zuten. Hortaz, berarekin topo egin zuen lehen pertsonak ez zion onartu ezagutzen ninduenik.

Beranduxeago, esan bezala, nire ama ikusi zuen ataurrean ilea txirikordaturik, eta harekin berba egiten geratu zen. Galdetu zion ea ezagutzen ninduen eta ea bazekien non bizi nintzen;

eta hara, nola ez ninduen ba ezagutuko, nire ama zen eta. Amak barrura sartzeko gonbita egin zion, eta hala ezagutu genuen elkar. Barrura sartu eta eseri egin zen, eta berbetan jardun genuen pixka batean. Ni oso lotsatia nintzen, eta oraindik ere ez neukan harenganako interesik. Berriz itzuli zen, eta orduko hartan ez nintzen ezta irten ere egin bera ikustera. Ohera joan, tapakipean sartu, eta ez nintzen atera. Entzun nion esaten: «Oheratu bada, ez naiz geratuko». Eta joan egin zen.

Baina berriz itzuli zen, eta handik aurrera autoz osterata egitera joaten hasi ginen. Nash gorri txiki bat zeukan, zeinak atzean jarleku bat zeukan kanpoaldean. Oso bitxia zen gizon beltz gazte batek bere autoa edukitzea, batez ere ez bazen gidari lanetan ari zuriaren batentzat. Beltzok kanpoaldeko jarlekuetan esertzen ginen, gidari zebiltzan lagunek norabait eraman gintzaten (zuriaren ezkutuan, noski).

Parks —denek Parks esaten zioten— oso pertsona atsegina zen, eta gustukoa nuen harekin hizketan jardutea. Gidatu bitartean bere bizipenen berri ematen zidan, eta kontatzen zidan nola hain azal argia izateak arazo ugari ekarri zizkion gaztetxotan.

1903ko otsailaren 12an jaio zen, nire hil berean, Alabaman, Wedowee izeneko toki batean; Roanoke-tik gertu zegoen, Randolph konderrian, Montgomeryren ipar-ekialdean. Haren gurasoak David Parks eta Geri Culberston Parks ziren. Biak hilak ziren elkar ezagutu genuenerako. Aitak ama utzi zuen Raymond txikia zela, eta Parksek ez zuen inoiz berriro ikusi. Etxe bateko teilatua gainera erorita hil zen, arotz-lanetan ari zela.

Azaldu zidan denak zuriak ziren auzo batean hazi zela, zuriz erabat inguratua. Hain zen azal argikoa, ezen bera ere zuritzat jo zitekeen, baina ilea ez zuen haiena bezalakoa. Auzoko ume beltz bakarra zen, eta ez zioten uzten auzo-eskolara joaten, zuriarena zelako. Beltzen eskolatik urruntxo bizi zirenez, amak irakatsi zion irakurtzen eta idazten. Gero gaztetxotan eskolara joan zen denbora labur batez, Roanokera. Horrez gain, ez zuen bestelako hezkuntza formalik jaso.

Ama eta amona gaixorik zituen, eta Parks biak zaintzeaz arduratu zen harik eta hil ziren arte, berak ia hogeitaz zituela. Gero sakristau-lanetan hasi zen Roanokeko zuriaren eliza baptista batean. Eliza eta inguruak zaintzen zituen. Zuhaiak batzuk erosi berriak zituzten elizaren inguruan landatzeko, eta Parksen

lanetako bat zen haiei ura egitea. Halaxe egiten zuen, baina ez eguerdiz, baizik eta iluntzean, eguzkia sartu ostean. Diakono baten emazteak artzainari esan zion Parksek ez zituela zuhaixkak urezatu.

Artzainak Parksekin hitz egin zuen, eta esan zion: «Jones andreak esan dit ez diezula urik egin zuhaixkei». Parksek erantzun zion baietz, ura egin ziela. Artzainak esan zion: «Jones andreak esan dit ez diezula urik egin, eta haren senarrak jakiten badu haren esana zalantzan jarri duzula, eliz inguru hau goitik behera eskobatuko du zu erratz gisa baliatuta». Parksek kontatu zidan artzainari esan ziola zuhaixkak urezatu zituela. Holaxe: «Ez nien ura egin eguerdian, baizik eta egin behar denean, eguzkiak ihartu ez ditzan. Eta Jones jaun-andreek ez dute eliz inguru eskobatuko ni erratz gisa baliatuta, ezta zuk ere». Esan zidanez, pistola bat zeraman poltsikoan, eta horregatik ausartu zen horrela hitz egiten; behar izanez gero, aterako zuen.

Parksek zioenez, jendearekin ondo moldatzeko ahalegina egiten zuen beti, baina, zuriaren bat hurreratuz gero, bere burua zaintzeko gauza zela erakusten zion. Garai hartan enbarazu gutxiago egiten zizuten esan beharrekoak artez esaten bazenituen. Beldurrez jokatzuz gero, ordea, iseka egiten zizuten.

Gertaera haren ondoren, Parksek etxetik alde egin zuen. Arreba txiki-txiki bat ere bazuen, baina lehengusina bati eskatu zion haren ardura hartzeko. Esan zidan ezinezkoa izan zitzaiola han luzaroago geratzea eta ez zuela inoiz gogoko izan zuriaren inguruan ibiltzea, zeren haiekin beti «lotsagabe» jokatu behar izaten baitzuen. Zuriak lotsagabetzat hartzen zintuzten esan beharrekoak esaten bazenizkien.

Parksek hogeita gutxi urte zituen etxetik alde egin zenean. Harrezkero hainbat lanetan aritu zen, eta bizilekuz aldatu behar izan zuen nahikotxotan. Nik ezagutu nuenean hogeita zortzi urte zituen; Montgomeryn bizi zen, eta bizargile ziharduen. Aitonaren ondoren, berarekin hitz egin nuen lehenengoz gure arrazari lotutako kontuei buruz. Eta bera izan zen, aitona eta Gus Vaughn jaunaz gain, zuriaren beldur inoiz izan ez zen nire lehen ezaguna. Afro-amerikar ugari zuten beti Charlie jaunaren —horrela deitzen genien gizon zuriei— mende egon behar zenuela eta ezin zenuela ezer egin hari aurpegi emateko. Bestela

esanda, Parksek pertsonatzat zuen bere burua, eta besteek ere pertsonatzat hartzea espero zuen.

Gustuko nuen Parksek zuriekiko jarrera otzanik ez edukitzea, beltzok «Osaba Tom»en jarrera deitzen geniona. Gizon atsegina iruditu zitzaidan, zuhurtasun handiz hitz egiten zuen gizon interesgarria. Luze hitz egin zezakeen bizi izandako gauza guztiez.

Parks izan zen, orobat, nik ezagutu nuen benetako lehen aktibista. Ordurako jada Beltzen Garapenerako Elkarte Nazionaleko (NAACP, National Association for the Advancement of Colored People) kidea zen aspalditik. Guk 1931ko udaberrian ezagutu genuen elkar, Scottsboro kasua gertatu zen garai berean, eta Parks izan zen kasu hura aipatu zidan lehena. Mutil haiekin zer gertatzen ari zen azaldu zidan, eta kontatu zidan bera eta beste gutxi batzuk dirua biltzen ari zirela epaitegiko gastuak ordaintzen laguntzeko eta hala epaitegietan haiek defendatzeko, aulki elektrikora eraman ez zitzaaten. Ezkutuan lan egiten zuten, eta besteen izenak ez zituen behin ere aipatu. Parksek zioenez, denek Larry zuten izena.

Scottsboroko mutilak bederatzi gazte ziren, elkar ezagutu ere egiten ez zutenak harik eta bi emakume zuri bortxatzea egotzirik guztiak atxilotu zituzten arte. Haywood Patterson, Eugene Williams eta Roy eta Andy Wrigh anaiak Chatanooga Tennesseekoak ziren. Clarence Norris, Charlie Weems, Olen Montgomery, Ozie Powell eta Willie Roberson, berriz, Georgiako zenbait tokitakoak. Hamalau eta hemeretzi urte bitarte zituzten, eta Georgian zehar Tennesseeetik Alabamarako bidea egiten zuen merkantzia-tren berean zihoazen. Beste asko ere baziren tren berean, bai afro-amerikarrak bai zuriak. Depresio Handiaren garaia zen, eta milioika langabe zeuden. Haietako askok lan bila bidaiatzen zuten trenean. Uneren batean, tren hartako zuriak beltzei hartxintxarrak jaurtitzen hasi ziren, eta trenetik jaisteko esaten. Beltzek aurre egin zieten, eta erasotzaile gehienak trenetik kanpora bota zituzten Stevenson Alabamatik gertu.

Geroago, trena Alabamako Paint Rocken geratu zen, berriz urez hornitzeko. Zuri-talde bat zegoen hantxe zain, makilak eta eskopetak eskuetan. Beltzak trenetik jaitsarazi, eta mehatxuka jardun zitzaien, lintxatu egingo zituztela esanez. Alabaina, polizia agertu zen eta jendetza sakabanatu zuen. Gero eskuburdinak



Scottsboro mutiletak zazpi; eskuburdinak jarrira eraman zituzten Morgan konderriko kartzelatik auzi-gelara 1933ko azaroan
(Iturria: AP/Wide World Photo)

jarri zizkieten mutiko beltzei, eta kartzelarik gertukoenera eraman zituzten, Alabamako Scottsboro herrira. Horregatik deitu zieten «Scottsboroko mutilak». Gazte zuriak ere kartzelatu zituen poliziak.

Biharamunean, poliziek mutil beltzak ziegatik atera zituzten, eta Rudy Bates eta Victoria Price izeneko emakume zurien aurrera eraman. Ruby Batesek haietako sei identifikatu zituen, eta bortxatu egin zutela adierazi zuen. Beraz, poliziari zentzuzkoa begitandu zitzaion pentsatzea gainerako hirurek Victoria Price bortxatu zutela, nahiz eta berak ez zuen inor identifikatu.

Akusatuen kontrako epaiaketak 1931ko apirilaren 6an hasi ziren. Konfesioarteko Artzainen Aliantzak —Chattanooga predikari beltzen talde bat— 50.000 dolar bildu zituen abokatu bat ordaintzeko, zeinak ordu-erdi izan baitzuen epaiaketaren aurretik

mutilekin biltzeko. Bederatzi akusatuek lau epaiketari aurre egin behar izan zieten hiru eguneko tartean. Bi emakumeek adierazi zuten akusatuek jipoitu egin zituztela eta pistolak eta labanak erabili zituztela, baina poliziak ez zuen aurkitu ez pistolarik ez labanarik. Bestalde, bi medikuk adierazi zuten emakumeek ez zutela zauririk edo ubelik. Edonola ere, epaile jaunak argi utzi zuen bere ustez akusatuak errudunak zirela eta epaiketa haiek denbora eta dirua alferrik galtzea besterik ez zekartela. Guztiak erruduntzat jo zituzten. Apirilaren 9an, epaileak zigorra jakinarazi zuten: aulki elektrikoan hil behar zuten guztiek, gazteenak izan ezik, uztailearen 10ean.

Izugarria iruditu zitzaidan egin ez zuten krimen bategatik heriotzara kondenatzea. Horrek erakusten zuen zer gutxi axola zitzaizkien segregazionistei beltzen bizitzak eta noraino iristeko gai ziren gu beti beldurrak airean edukitzearren.

Kasua jada egunkarietara iritsia zen, eta Hegotik kanpoko jendea ere erabat asaldatuta zegoen, dena zein azkar joan zen ikusita. Apirilaren amaieran, Langileen Nazioarteko Defentsa erakunde komunistak mutilen kasuan esku hartu zuen. Maiaztzaren hasieran, NAACP erakundeak ere haiekin bat egin zuen. Bi erakundeen artean, exekuzio-eguna bertan behera uztea lortu zuten, eta apelazioa aurkeztu zuten. Azaroan, AEBko Auzitegi Gorenak akusatuak berriz epaitzeko agindu zuen, argudiatuz lehen epaiketetako abokatuak ez zituela behar bezala ordezkatu. Epaiketak eta apelazioak urteetan luzatu ziren. Azken akusatua 1950ean askatu zuten, baldintzapean.

Parksek Scottsboroko mutilen alde jardun zuen hasieratik. Ez dakit erakunde handi horietakoren batekin ere ofizialki lanean aritu ote zen; halere, badakit berarekin batera ziharduteinak ez zirela Montgomerykoak. Nik ezagutu nuenean haiekin ari zen lanean, eta urte hartan eta hurrengoan ere horretan jarraitu zuen. Zuriek komunista izatea egozten zieten beltzen alde lan egiten zuten guztiei, baina ez dut uste Parks-en taldeko inor komunista zenik.

Oso harro nengoen Parksek Scottsboroko mutilen alde lan egiten zuelako. Haren ausardia ere miresten nuen. Jipoitu edo hil egin zezaketen egiten ari zenegatik. Geroago ulertu nuen beti izan zuela interesa eta prestasuna beraren arrazakoen, beraren familiaren eta beraren bizitza hobetzearen alde lan egiteko.

Elkarrekin egon ginen bigarren aldian, Parks ezkontzaz mintzatu zitzaidan. Ordura arte niri ez zitzaidan inoiz burutik pasatu ezkontza-konturik. Berak horri buruz hitz egin zidan, eta nik ez nion jaramonik egin. Nolanahi ere, behin esan zidan: «Zinez uste dut ezkondu behar genukeela», eta nik bat egin nuen berarekin. Biharamunean, ni elizan nengoela, nirekin ezkontzeko baimena eskatu zion amari; elizatik etxeratu nintzenean, amak esan zidan baiezkoa eman ziola. Egia esan, Parksek ez zidan inoiz ezkontzeko eskatu, ez formalki bederen.

Hori 1932ko abuztuan izan zen. 1932ko abenduan ezkondu ginen, Pine Levelen, nire amaren etxean. Ez zen izan ezkontza handi bat, senideak eta gertuko lagunak bakarrik etorri ziren. Gonbidapenik ere ez genuen bidali. Ezkondu ondoren, Montgomeryko ekialdera joan ginen bizitzera, Alabama State unibertsitatetik ez oso urruti. South Jackson Streeteko ostatu batera aldatu ginen, zeina Quaterman izeneko familia batena baitzen.

Senarrak begi onez ikusten zuen nik ikasketak amaitzea, eta ezkondu ondoren eskolara itzuli nintzen. 1933an, hogeituru urte nituela, bigarren hezkuntzako titulua eskuratu nuen. Garai hartan, Montgomeryko beltz gutxi batzuek baino ez zeukaten bigarren hezkuntzako titulua. 1940an, nik titulua lortu eta zazpi urtera, ehuneko zazpi baino ez zeukan maila horretako hezkuntza.

Halere, horrek ez zidan askorik lagundu lan bat lortzen. Bigarren hezkuntzako titulua eduki arren, halakorik eskatzen ez zuten lanak baino ez nituen aurkitzen. Laguntzaile aritu nintzen St. Margaret ospitalean, eta joste-lan batzuk ere egiten nituen etxean.

1941ean, lana lortu nuen Maxwell Field-en, aireko armadaren basean. Mistoa zen, Roosevelt presidenteak lege bidez debekatu baitzuen segregazioa base militarretako toki publikoetan, tranbietan eta autobusetan.

Beraz, banuen baseko tranbia mistoetan ibiltzea, baina gero, basetik irtetea, autobus segregatu batean itzuli behar izaten nuen etxera. Gogoan dut bazela emakume zuri bat, basean nik lanleku nuen eraikin berean bizi zena. Baseko autobusean aurrez aurre esertzen ginen. Mutiko bat zeukan, bederatzi urte ingurukoa. Emakumea eta mutikoa elkarrekin esertzen ziren,

eta Rose izeneko beste langile bat eta biok ere elkarrekin eser-
tzen ginen, eta batzuk eta besteok aurrez aurre joaten ginen eta
berbaz jarduten genuen. Baina gero, hiriko autobusa hartzen ge-
nuenean, baseko emakume zuria aurrean geratzen zen eta gu
atzera joaten ginen, eta mutikoak harriduraz begiratzen zigun.
Emakumea Mississippikoa zen, baina berari ez zitzaion axola
gurekin batera bidaiatzea. Basean, noizean behin, arazoak iza-
ten ziren pertsona jakin batzuekin. Nik neuk ez nuen bizi izan
gertaera desatseginik. Alabaina, urte batzuk geroago senarrak
lana lortu zuen baseko bizartegian, zeina kontzesio pribatukoa
baitzen, eta gogoan dut nola behin kontatu zidan kafetegira joan
zela eta mahai luze baten mutur batean eseri; bi emakume zuri
sartu ziren, eta beste muturrean eseri, eta orduan gizon zuri bat
alamena ematen hasi zitzaion Parksi, emakumeen mahai berean
eseri zelako. Baina hori ez zen base militarren errua, hori gizon
zehatz haren kontua zen.

Parksek Scottsboroko mutilei buruzko gau-bileretara
joaten jarraitu zuen. Ni ez nintzen halakoetara joaten, oso arris-
kutsua baitzen. Elkartzen ziren aldiro, norbait jartzen zuten
kanpoan zelatari, eta beste norbaitek pistola bat izaten zuen beti.
Parksek ez zuen nahi nik halako kontuetan aktiboki parte har-
tzea, zeren eta lantalde txiki hark gau beranduan eta goizaldera
arte elkartu behar izaten zuen, gainerako guztiak lotan zeudela.
Ez zuen nahi ni joatea, bestela ere aski gogorra izango baitzen
bat-batean korrika alde egin behar izatea. Berak ezingo ninduke
ni atzean utzi, eta nik ezingo nuke berak bezain azkar korrika
egin. Bestalde, iruditzen zitzaion gazteegia nintzela artean.

Bilera haietan gertatzen zenaz ere ez zidan gauza handirik
esaten. Hala, inork galdetuz gero, zintzotasun guztiz esan neza-
ke ezertxo ere ez nekiela. Babestu egin nahi ninduen.

Gogoan dut Huffman Streeten bizi ginen garaian bilera bat
egin genuela gure etxean, eskopeta-etxe deitzen zioten hartan;
tiro eginez gero, balak etxe guztia zeharkatuko luke, gelak bata
bestearen atzetik lerrokaturik zeudelako. Gure etxean egiten
genuen lehen bilera zen, eta egongelan bildu ginen. Mahai txi-
ki bat zegoen, jokorako mahai baten tamainakoa edo, eta haren
inguruan eseri ziren. Orduan ikusi nituen lehen aldiz hain gizon
gutxi hainbeste armarekin. Mahaia pistolaz beteta zegoen. Egia
esan, ez zitzaidan otu ere egin haiei ezer eskaintzea, mokaduren

bat edo edateko zerbait; nolana ere, mahaia pistolaz gainezka zela, ez dakit non jarri ahal izango nituzkeen platerak eta. Eta, dena den, inork ez zeukan jatekoa buruan.

Akorduan daukat etxe osteko portxean eserita egon nintzela; oinak goiko eskailera-mailan jarriak nituen, eta burua belaunetan bermatua, eta ez nintzen mugitu ere egin bilerak iraun zuen denbora guztian. Hantxe eserita geratu nintzen. Dozena-erdi bat gizon izango ziren. Ez dut gogoan nortzuk ziren, nahiz eta ziurrenik ezagunak nituen. Bilera amaitu ondoren, ondo akorduan daukat, senarrak sorbaldeetatik heldu eta portxeko zorutik altxatu ninduen. Izugarri amorratzen ninduen jakiteak gizon beltzek ezin zutela bilera bat egin zaurituak edo erailak izateko beldurrik gabe. Bestalde, akordatu nintzen nola behin, umetan, aitonaren ondoan eseri nintzen eta Ku Klux Klaneokoak gure bila etortzeko zain egon ginen.

Bilera horietan ez zen inoiz emakumerik izaten. Ez dut uste gizonek emakumeei bileretan parte hartzea galarazten zietenik; besterik gabe, oso arriskutsua zen. Nire senarrak emakume bati buruz hitz egiten zuen, Captola deitzen zion. Captola zerbaitetan ari zen besteekin batera, baina ez zen bileretara joaten. Gizon aktibista asko ere ez zegoen garai hartan; izan ere, bilerak egiten zituztela zabalduz gero, berehalakoan desagerraraziko lituzkete. Baina niri ez zitzaidan axola Parks-en emaztea izatea. Ezkondu aurretik ere halako kontuetan sartuta ibili zen, eta orduan ere banekien oso arriskutsua zela.

Bazen emakume zuri bat haiei laguntzen ziena. Ez zen inoiz etorri gurera, baina Parks eta biok harenera joan ginen behin. Parksek eta beraren lagunek behar adina diru zutela ziurtatzea zen haren egitekoa. Beste batzuetan, bost eta hamar zentaboko txanponak biltzen zituzten, edo eskuratu ahal zuten huraxe, abokatuari ordaintzeko. Denbora batera, Huffman Street utzi eta South Union Streetera aldatu ginen, eta han King Kelly jaunarenean jarri ginen. Kelly jauna Dexter Avenueko Eliza Baptistako diakonoa zen, eta bera eta beraren emaztea Parks egiten ari zenaren guztiz kontra zeuden. Diakonoa Capitol Clothing Storeko —Montgomeryko gizonen arropa-denda bat— langilea zen oso aspalditik, non apur bat denetarik egiten baitzuen, eta pentsatzen dut lana galtzeko beldur izango zela. Beraz, Parksek ez zuen inoiz bilerarik antolatu kellytarren etxean.

Scottsboro kasua egunkari guztietan agertu zen garaian, polizia jendea beldurtu nahian ibiltzen zen beti. Jakin nahi zuten non bizi ziren eta nor ziren gaueko ordu txikietan bilerak egiten ari zirenak. Gau batez, bi polizia igaro ziren gure etxe ondotik motorrean. Ni portxeko zabuan eserita nengoen, eta Kelly jauna ere nirekin zegoen. Ari nintzaion esaten nola egun pare bat lehenago poliziak bi gizon hil zituen, Parksen taldearekin zerikusia zutenak eta Parksek ondo ezagutzen zituenak. Senarrak haiekin bilera bat izaten zuen aldiro, neure buruari galdetzen nion bizirik itzuliko ote zen, ez ote zuten hilko.

Beraz, ni hantxe nengoen, portxeko zabuan, eta poliziak gure etxadian gora eta behera zebiltzan motorrean. Kalearen amaieraraino joaten ziren, eta berriz gurera itzuli. Beldurrak airean nengoen. Geroago, Kelly jaunak esan zidan: «Zabua ere entzuten nuen dardaraka, zu hor eserita zeundela». Une hartan ez nintzen jabetu nire ikararen norainokoaz.

Parks etxera itzuli zenean, bazekien polizia inguruan zebilela. Beraz, ate nagusitik sartu beharrean, ohi bezala, atzealdetik sartu zen. Gu bizi ginen lekuan Bainbridge Streetera zeraman bidexka bat zegoen, eta handik etorri eta atzeko atetik sartu zen. Hurrena jakin nuena izan zen jada etxean zegoela. Beraz, hobeto sentitu nintzen. Ez zuten harrapatu; ez ordukoan, bederen.

Kelly jaunarenean bizi ginela, gorabehera bat izan nuen, gero senarrari inoiz kontatuko ez niona. Hiriguneko tren-geltokira joan nintzen Kelly jaunarekin batera, haren alabari eta bi haurrei laguntzera eta trenean agur esatera. Ni haiek baino apur bat atzerago nindoan. Trenerako bidean gindoazela, polizia bat gerturatu zitzaidan eta galdetu zidan ea banuen txartelik. Ezetz esan nion. Barandaren kontra bultzatu ninduen, eta esan zidan: «Txartelik ez baduzu, ezin zara joan». Banekien berak borra eta pistola zituela aldean eta nik ez nuela ezer egiterik, handik ospa egin ez besterik. Gertaera hark biziki gogaitu ninduen.

Gainera, gehien gogaitu ninduena izan zen beste emakume beltz gazte bat ere bazela han, nire adin ingurukoa, hogeita gutxi urtekoa. Poliziaren ezaguna izango zen, zeren harekin jolasean ibili baitzen. Emakumeak esaten zuen: «Aurrera egingo dut». Eta poliziak erantzuten zion: «Ez, ez egin aurrera». Eta poliziak borrararekin jo-itxurak egiten zituen. Emakumeak barre

egiten zuen, eta horrek ere ernegatu ninduen, polizia gertukoa zuela ematen zuelako.

Nire ustez, emakumea beraren buruarekiko errespetu falta erakusten ari zen, bai emakume gisa bai, bereziki, emakume beltz gisa. Ikusi zuen poliziak ni batere errespeturik gabe tratatu ninduela, eta bera ere errespeturik gabe tratatzen ari zen; baina berak barrez hartzen zuen.

Kelly jauna itzuli zen, eta jakin nahi izan zuen zergatik ez nintzen joan beraren etxekoei agur esatera. «Poliziak ez dit utzi pasatzen». Ez nion kontatu zer gertatu zen. Senarrari ere ez nion ezer esan, zeren bestela asko ernegatuko zen.

BOST

BOTO-ESKUBIDEAREN ALDE BORROKAN

Scottsboroko mutilak heriotza-zigorretik libratu ondoren, Parks hautesle-erroldari buruzko kontuetan sartu zen buru-belarri. Gai hori guk biok elkar ezagutu aurretik ere interesatzen zitzaion; beltz gutxi zegoen botoa emateko erroldatuta, eta horrek asko nahigabetzen zuen.

Botoa emateko eskubidea oso garrantzitsua da estatubatuarrentzat. Gobernuan ordezkaturako gaituzten pertsonen alde ematen dugu botoa; ez badugu atsegin nola ordezkatzeko gaituzten, beste baten alde eman dezakegu. Garai hartan, ordea, Hegoko beltz gehienei ezinezkoa zitzaien botoa ematea.

Segregazionistek oztupo asko jartzen zituzten beltzek hautesle-errolan izena ez emateko. Erroldatu ahal izateko, beltzek nahitaezkoa zuten beren alde egingo zuten zurien babesaren lortzea. Zuriekin ondo moldatzen ziren beltz gutxi batzuek horrela lortu zuten erroldatzea. Baina, behin berek izena emanda, ez zuten nahi izaten beste beltz batzuek ere gauza bera egiterik. Uste dut pentsatzen zutela zurien babesarekin erroldatu ondoren goragoko maila batera igarotzen zirela. Parksi eta haren lagunei esaten zieten beren kontuez arduratzeko eta errolda eta hauteskundeak bakean uzteko. Halaxe zen garai hartan. Beltz gehienak beldur ziren. Zuriekin ondo moldatzen zirenek ez zuten beren posizio pribilegiatua galdu nahi, eta besteek ez zuten uste ezer egin zitekeenik. Egia esan, eskubide zibilen aldeko mugimenduak ez zuen jende askorik erakarri harik eta 1955ean Montgomeryko autobusen kontrako boikota antolatu zen arte. Horren aurretik, gutxi batzuk baino ez ziren aktibistak, eta, jakina, haiek ez ziren zuriekin ondo moldatzen.

Senarrak ez zuen sekula lortu Alabaman erroldatzea. Luzaz saiatu zen, baina ez zuen inoiz onartu zuriekin joan behar izatea erroldan izena ematera, ezta babestuko zutela agindu zioten ezagunekin ere. Bere kabuz erroldatu nahi zuen. Urte batzuk geroago eman zuen izena lehen aldiz, Detroit Michiganen bizi ginenean. Montgomeryn, 1940ko hamarkadan, Hautesleen Liga deitzen genuena geneukan, alegia, pertsona-talde bat bilerak egiten zituena orain baten etxean eta gero bestearenean, gehienetan gurean. Garai hartan, Alabaman erroldatutako boto-emaile beltzen zerrenda bat neukan. Hogeita hamaika lagun ageri ziren, eta haietako batzuk hilerrian zeuden. Hilak ziren jada, baina zerrendan jarraitzen zuten oraindik. Beraz, beltz erroldatuak oso gutxi ziren, eta ez genuen gauza handirik lortu E.D. Nixon jaunak oztupo hura gainditzea erabaki zuen arte.

Edgar Daniel Nixon jauna Montgomeryko afro-amerikar aktiboenetako bat zen. Treneko maletazaina zen, eta Ohe Bagoietako Maletazainen Anaidiaren Montgomeryko ataleko presidentea. Elkarte hura treneko langile beltzen sindikatu bat zen, A. Philip Randolph jaunak sortua. Nixon jaunak Montgomeryko atala sortu zuen 1920 inguruan. Nik 1943an ezagutu nuen bera. Gizon harro eta duina zen, orratza bezain arteza. Arthur A. Madison izeneko legelari beltz batek laguntzen zion beltzak erroldatzen. Madison jauna Alabamakoa zen jatorriz, eta New York hirian lan egiten zuen. Denboraldi baterako etorri zen Montgomeryra; gutako nahikotxorekin lan egin zuen, eta erroldatzeko jarraibideak eman zizkigun. Esan zigun ez zela beharrezkoa zuri baten babesa lortzea eta harekin batera errolda-bulegora joatea. Orobat azaldu zigun azterketa bat egin beharko genuela, alfabetatze-azterketa deitzen zutena, ikusteko gai ote ginen irakurtzeko eta idazteko eta AEBko konstituzioa ulertzeko. Atxilotu eta kartzelatu egin zuten guri laguntzearren, eta gero New Yorkera itzuli zen.

Erroldatzea erabaki nuen. 1943an saiatu nintzen lehenengoz. Ordu zehatz batzuetan baino ez zuten uzten erroldatzen. Ordutegiaren berririk ez bazenuen, aukera galtzen zenuen. Eta ez zuten inon iragartzen. Telefonoz deitu eta galdetu egin behar zenuen. Eta halako batez erabakitzen zuten, adibidez, erroldak asteazken goizez egitea, hamarretatik eguerdira, jakinda ere langile beltz gehienek ez zutela joaterik izango. Gainera, errol-

da-bulegora joateko lan-baimena eskatuta ere, gerta zitekeen erroldatu barik geratzea; izan ere, eguerdiko hamabi-hamabietan ateak ixten zituzten, ilaran zain zegoen jende-kopurua kontuan izan gabe. Eta hori guztia afro-amerikarrak ez erroldatzeko egiten zuten.

Barrura sartzea lortzen bazenuen ere, bazitekeen ezin erroldatu izatea. Garai batean, ezinbestekoa zen etxejabea izatea erroldan izena eman ahal izateko. Alabaina, ni erroldatzen saiatu nintzenerako, esaten zizuten: «Etxejabea izan behar zenuke, baina azterketako galderei ondo erantzuten badiezu, ez duzu etxejabe izan beharrik». Beraz, bi aukera zeuden: etxejabea izatea edo azterketa gainditzea.

Urte hartan ezin izan nintzen joan erroldatzeko ezarria zuten lehen egunean, lan egin beharra nuelako. Nixon jaunak eta —ziur naiz— Madison abokatuak beltzen komunitatea jakinaren ganean jartzeko aukera izan zuten; hortaz, erroldatzeko zain zeuden beltzek ilara luze bat osatu zuten justizia-jauregiaren inguruan. Horien artean nire ama eta lehengusina ere bazeuden, eta berek, beste askok bezala, posta bidez jaso zituzten boto-emailearen ziurtagiriak. Afro-amerikarroi posta bidez bidaltzen ziguten ziurtagiria; zuriak, ostera, azterketa amaitu bezain laster jasotzen zuten.

Biharamunean jai nuen lanean, eta errolda-bulegora joan nintzen. Azterketa egin nuen, baina ez zidaten ziurtagirik bidali.

Bigarrenez saiatu nintzenez, ezezkoa eman zidaten. Esan zidaten, huts-hutsik: «Ez duzu gainditu». Ez zuten arrazoirik eman behar. Azterketa ondo egin nuelakoan nengoan, baina ezin jakin. Esaten bazuten ez zenuela azterketa gainditu, ez zenukan zer eginik. Erroldatzaileek gogoak ematen ziena egin zezaketen.

Ni nahiko seguru nengoan azterketa gainditu nuela. Beraz, hirugarrenez egin nuenean, 1945ean, kopiatu ere egin nituen hogeita bat galdera haietan jarritako erantzunak. Garai hartan ez zegoen fotokopiagailurik, eskuz kopiatu nituen. Kopia hura gordetzeko eta errolda-batzordea auzitara eramateko asmoa nuen. Baina, halako batean, ziurtagiria jaso nuen posta bidez. Azkenean, hautesle-erroldan nengoan. Hurrena egin behar nuena zen sufragio-zerga metatua ordaindu.

Sufragio-zerga 1,50 dolar zen urtean, eta boto-emaile erroldatu guztiek ordaindu behar zuten. Baina beltzak ziren, nagusiki, atzeraeraginez ordaindu behar izaten zutenak. Izan ere, zuriei ez zieten ukatzen botoa emateko eskubidea; beraz, hogeita bat urte betetzearan (hori zen garai hartan botoa emateko gutxieneko adina, ez hemezortzi urte), errolda-bulegora joan eta izena ematen zuten, eta handik aurrera 1,50 dolar ordaintzen zuten urtean. Zaharragotan erroldatuz gero, hogeita bat urtetik aurrerako sufragio-zergak ordaindu behar zenituen atzeraeraginez. Ni 1945ean erroldatu nintzen, hogeita hamabi urterekin; hortaz, 1,50 dolar ordaindu behar izan nituen hogeita bat urte nituetik igarotako hamaika urteetako bakoitzagatik. Garai hartan, 16,50 dolar diru askotxo zen.

Hautesle-erroldakoak auzitara eramán izan banitu, legearen aurrean ordezkaturako ninduen norbait aurkitu behar nukeen. Eta hasieran ez zegoen niri laguntzeko prest egon zitekeen abokatu beltzik Montgomeryn. Egia esan, garai hartan oso abokatu beltz gutxi zeuden Alabaman. Abokatu bat behar izanez gero, Birminghameko Arthur D. Shores abokatuarengana soilik jo genezakeen. Batzuetan gurera etortzen zen, eta banekien lehenago ere William P. Mitchell ordezkatu zuela, baita Macan konderrian erroldatu nahi zuten beste batzuk ere. Baina ordurako Arthur A. Madisonek laguntzen zigun. Gogoan dut Nixon jaunarekin eta Madison abokatuarekin joan nintzela hautesle-erroldan izena ematera. Nolanahi ere, orduko hartan izena ematea lortu nuen, eta, beraz, ez nuen auzirik ipini behar izan.

Akorduan daukat gobernadorea aukeratzeko hauteskondeetan botoa eman nuen lehen aldia. Nik Jim Folsen-en alde bozkatu nuen, eta hark Handy Ellis zuen aurkari, gizon oso erreakzionario eta oso arrazista bat. Ez zen gertatu ezer desatseginik, eta iruditu zitzaidan oztopo larregi gainditu behar izan nituela hain gauza simple eta gorabeherarik gabea egiteko.

Botoa emateko erroldatzen saiatu nintzen bigarren aldian Montgomeryko autobus batetik jaitsarazi ninduten lehenengoz. Ez nituen arauak bete.

Beltzok arau bereziak bete behar genituen. Gidari batzuekin, bidaiari beltzek aurreko atetik sartu behar zuten txartela ordaintzeko, eta gero berriro jaitsi eta atzeko atetik sartu. As-

kotan, bidaiari beltzak atzeko atera iritsi aurretik abiatzen zen autobusa, haiek atzean utzita.

Montgomeryko autobusetan hogeita hamasei jarleku zeuden. Lehen hamar jarlekuak zurientzat erreserbatuta zeuden, baita autobusean zuririk ez bazegoen ere. Autobusaren atzealdeko hamar jarlekuentzat ez zegoen araurik, baina guztiok ulertzen genuen, nolabait, beltzentzat zirela. Beltzok autobusaren atzealdean eseri behar genuen; nahiz eta jarleku hutsak egon aurrean, debekatua genuen haietan esertzea. Atzeko jarlekuak bete ondoren, gainerako bidaiari beltz guztiek zutik joan behar zuten. Zuriek aurreko jarlekuak betetzen bazituzten, gidari batzuek atzeko jarlekuak librarazten zizkieten beltzei.

Gidarien esku zegoen, hala nahi bazuten, erdiko hamasei jarlekuen banaketa antolatzea. Pistolak eramaten zituzten, eta polizia-eskumenak zituzten jarlekuak berrantolatzeko eta autobusean ere segregazioari lotutako gainerako arau guztiak betearazteko. Autobus-gidari batzuk besteak baino doilorragoak ziren. Denak ez ziren gorrotagarriak, noski, baina segregazioa berez da ankerra, eta, nire ustez, ez zegoen segregazioa egoki, atsegin edo onargarri bihurtzeko modurik.

Autobusetik jaitsarazi ninduen gidaria doilorretako bat zen. Garaia eta mardula zen, jarrera larderiatsukoa. Azala latzaedo zuen, eta orezta bat zeukan ahoaren ondoan. Beltz guztiak txarto tratatzen zituen. Lehenago ere bere autobusean bidaiatua nintzen; gogoan dudanez, behin emakume gazte bat aurretik igo zen autobusera eta atzerantz abiatu, eta gidariak autobusetik jaitsarazi zuen eta atzeko atetik igoarazi. Eta halaxe, 1943ko neguko egun batean, autobusa iritsi zen eta atzealdea beltzez mukuruz zegoen. Haietako batzuk ateko eskaileretan ere bazeuden eserita. Baina aurreko jarleku batzuk hutsik zeuden, baita aurre-aurrekoak ere. Beraz, ni autobusaren aurrealdetik igo nintzen, eta atzera abiatu eta han zutik zeuden beltzen artetik igaro nintzen. Aurrerantz begiratu nuenean, hantxe ikus nuen gidaria, zutik eta niri so. Esan zidan autobusetik jaisteko, atzeko atera joateko eta handik igotzeko. Esan nion autobusean nengoela jada eta ez nuela ikusten handik jaisteko eta berriz igotzeko beharrik, jendea eskaileretan zutik egonik, gainera; eta, bestalde, nola sartu behar nuen atzetik, pilaketa haren erditik? Beraz, esan zidan atzeko atetik sartu ezin banintzen autobusetik jaitsi

behar nuela —«Nire autobusetik», esan zuen—. Hantxe geratu nintzen. Niregana etorri zen, eta jakaren mahukatik heldu zidan; ez besotik, baizik eta jakaren mahukatik.

Ez zuen pistola atera. Zertarako, ordea, ez nintzen-eta erronka joka ari. Besterik gabe, ez nintzen jaitsi eta atzeko atetik sartu, hark esan bezala. Beraz, gidariak jakaren mahukatik heldu ondoren, autobusaren aurrealdera joan nintzen eta esku-poltsa lurrera erortzen utzi nuen. Hura hartzeko makurtu edo okertu beharrean, aurreko jarlekuan eseri nintzen; eta, eserita nengoe-la, poltsa lurretik jaso nuen.

Gidaria aldamenean zutik neukan, eta esan zidan: «Jaitsi nire autobusetik». Esan nion baietz, jaitsiko nintzela. Bazirudien une batetik bestera joka hasiko zitzaidala. Esan nion: «Gauza bat esango dizut: hobe duzu ni ez jo». Ez ninduen jo. Jaitsi egin nintzen, eta norbait entzun nuen autobusaren atzealdean marmarka: «Nolatan ez doa atzeko atera eta handik igotzen?».

Ziurrenik beltzak gogaitzen ariko ziren, etxera joan nahi zutelako eta atzean zutik zeudelako eta zutik egoteaz nekatuta zeudelako. Badakit marmarka eta muzinka ari zirela autobusera igo nintzelako eta gero gidaria ni jaitsaraztera behartu nuelako. «Bazuen atzera joatea eta igotzea, eta bakea». Halakoetan, horixe galdetzen zioten beren buruari, zergatik ez ote zenuen izan nahi gainerako beltzak bezalakoa. 1940ko hamarkada zen; garai hartan, jendeak asko men egiten zuen, inori aurre egin gabe.

Ez nintzen autobusaren atzeko atera joan berriz handik igotzeko. Lanetik bueltan nentorren, eta banuen jada autobus-al-daketa ahalbidetzen zuen papertxoa hurrengo gidariari emateko. Ez nuen nahi sekula berriro igo gizon haren autobusera. Gertaera haren ondoren, autobusera igo aurretik gidaria nor zen begiratzten nuen. Ez nuen beste liskarrik izan nahi gizon anker harekin.

SEI

NAACP-KO IDAZKARIA

Autobusetik jaitsarazi ninduten garairako, NAACP erakundeko kidea nintzen. Nazio mailako erakunde bat zen, eta egoitza nagusia New Yorken zuen; beltzez eta zuriz osatutako talde txiki batek sortu zuen, guztiak ere demokraziaren oso aldekoak. 1909ko otsailaren 12an ekin zioten erakundearen ibilbideari, Abraham Lincoln presidentearen urtebetetzearen omenez. Arrazagatiko diskriminazioaren, lintxamenduen, bortizkeriaren eta hezkuntza-desberdinkeriaren aurka protestatzeko sortu zuten.

Alabaman, 1940ko hamarkadan, NAACPk Montgomeryn, Birminghamen eta Mobilen zeuzkan ordezkariak. Parks Montgomeryko ordezkariak kidea zen, baina ez ninduen berarekin batera parte hartzera bultzatu, arriskutsuegia zeritzolako. Izan ere, Montgomeryko NAACPko kideek zigorrak jaso zitzaizkien beren militantzia zela eta. Ez nekien erakundean emakumeak ere bazirenik, eta behin Johnnie Carr-en argazki bat ikusi nuen *Alabama Tribune* egunkarian; Johnnie nire laguna eta gelakidea izana zen White andereñoaren eskolan. Emakumezko kide bakarra zen, eta ordezkariak hark ez zeukan gazteen atalik.

Artikuluak zioen Johnniek NAACPren Montgomeryko ordezkariarekin lan egiten zuela; are gehiago, uste dut garai hartan bera zela idazkaria. Hortaz, erabaki nuen egunen batean NAACPra joango nintzela, Johnniekin topo egiten saiatzera. 1943ko abenduan ordezkariak hautatzeko urteroko bilera egin behar zuten, eta ni ere joan nintzen. Baina Johnniek ez zuen bilera hartan parte hartu, eta gizon gutxi batzuk baino ez zeuden, hamabi-hamabost inguru. Bazkidetza-kuota ordaindu nuen, eta gero ordezkariak aukeratzeko bozketa egin zuten. Ni nintzen


hango emakume bakarria, eta idazkari bat behar omen zuten; eta ni lotsatiegia nintzen ezetz esateko. Akta egiten hasi nintzen, eta halaxe hautatu ninduten idazkari. Ez nuen ordainik jasotzen, baina atsegin nuen lana, eta Parksek oso begi onez ikusten zuen nik erakundean parte hartzea.

1930eko hamarkadaren amaieratik —edo are lehenagotik ere— 1940ko hamarkadaren amaierara arte ez nuen ezagutu eskubide zibilen alde lanean ziharduen emakume askorik. Jakina, ni ere ez nengoen oso sartuta, gaztetxo nintzen eta. Alabaina, 1940ko hamarkadaren amaierarako, are 50eko eta 60ko hamarkadetan ere, gero eta emakume gehiagok parte hartzen zuten, eta, gainera, gero eta aktiboagoak ziren. Emakume gehiago saiatzen ziren hautesle-errolan izena ematen, eta emakume gehiago joaten ziren boto-emaleen bileretara.

Gogoan dut NAACPn sartu eta idazkari izendatu nindutenean Johnnie eta biok ginela bileretara joaten ginen emakume bakarrik. Garai hartan E.D. Nixon jauna zen presidentea, eta noizean behin Nixon andrea ere etortzen zen bileraren batera, baina uste dut senarra beti han izaten zelako jarraitzen zuela etortzen. Akorduan daukat ahalegin handia egiten nuela Nixon jaunaren artikulua publikatu zitezten: eskutitzak bidaltzen nituen, eta bileretara ere joaten nintzen. Berak barre egiten zuen, eta esaten zidan: «Toki bakarria dago emakumeentzat: sukaldea».

Nik esaten nion: «Hara, eta ni?». Eta erantzuten zuen: «Idazkari bat behar dut, eta zu idazkari ona zara». Beti goratzen zuen nire lana, eta jarraitzea animatzen ninduen.

Montgomeryko NAACPko kide gehienak beltzak ziren. Zuriek adore handia izan behar zuten erakundearekin bat egiteko; izan ere, zurien komunitateak baztertu egiten zituen gurekin bat egiten zutenak. Oraindik ere oso arriskutsua zen edozeinentzat, beltz ala zuri, beltzei laguntzen saiatzea. Iparreko zuriek gehiago laguntzen ziguten. Gogoan dut nola behin Scottsboroko mutil-takoko bat, Andy Wright, nahaspila batean sartu zen, Alabama estatutik irten eta baldintzapeko askatasuna urratu zuelako. Uste dut Tennessee estatura joan zela, amari bisita egitera. 1946ko abuztuan berriz atxilotu zuten, eta kartzelan ere egon zen, 1947an baldintzapeko askatasunaren batzordeak aske utzi zuen arte. Gero berriz atxilotu zuten eta kartzelara itzularazi, eta gero berriz aske utzi zuten baldintzapean. Bazen Zenobia John-



Montgomeryko NAACP (1953-1954). Rosa eskuinean dago, eta haren ama bi jarleku atzerago; erdiko ilarako lehena E.D. Nixon jauna da, eta bi jarleku atzerago Johnnie Carr dago (Iturria: Rosa Parks)

son izeneko andre bat, zeinak Andy Wrighten aldeko batzorde batean parte hartzen baitzuen. Beltza zen. Bera eta bere senarra Alabama State unibertsitateko jantokiaren arduradunak ziren; hantxe zegoen, hain zuzen ere, nik bigarren hezkuntzako praktikak egin nituen ikastetxea. Johnson andreak eta beste lau kidek —W.G. Porter jauna, J.E. Pierce katedraduna, E.D. Nixon jauna eta ni neu— Wrighten aldeko defentsa-komitea eratu genuen. Baldintzapeko askatasunaren batzordearekin elkartu ginen, den-denak zuriak eurak, Andy Wrighti laguntzeko.

Baldintzapeko askatasunaren batzordeko emakume batek esan zuen Andy eta Scottsboroko beste mutilak ez zituztela gaizki tratatzen kartzelan, Iparreko jarraitzaileek dirua bidaltzen zietelako. Nolabait ere, iradoki zuen «mainaturik» zeudela. Komiteak erantzun zion Scottsboroko mutilak bidegabeki kartzelatu zituztela eta askatuz gero ez lituzkeela inork «mainatu» beharko.

Andyri baldintzapeko askatasuna ematearen alde bozkatu zuen batzordeak. Montgomeryko NAACPk kamioilari-lana lortzen lagundu zion, eta harekin harremanetan jarraitu genuen.

NAACPko idazkari gisa, askotariko lanak egiten nituen: bazkidetza-ordainketak erregistratu eta dirua bulego nazionalera bidali, telefonoa hartu, eskutitzak idatzi eta prentsa-oharrak igorri egunkarietara. Nire eginkizun nagusietako bat zen beltzen kontrako bereizkeria-kasuak, tratu bidegabeak eta bortizkeria-ekintzak erregistratzea.

Erregistratu beharreko kasu asko eta asko zeuden. Gogoan dut Abbeville Alabamako kasu bat, hangoak ziren-eta gure aita eta haren familia. 1944ko irailaren 3an, Abbevilleko Recy Taylor andrea, emakume beltz bat, elizatik etxera bidean zihoan; bahitu egin zuten —auto batean sarrarazi zuten, pistolaz eta labanaz mehatxu eginda—, arropak kendu zizkioten eta bortxatu egin zuten sei gizon zuriren artean. Henry konderriko epaimahai batek uko egin zion sei gizon zuriak auzipetzeari, nahiz eta autoaren gidariak bere errua aitortu zuen eta bere gaizkideen izenak eman zituen. Gertaera hark jende asko sumindu zuen, hala zuriak nola beltzak. Zenbaiten artean Taylor andrearentzako Berdintasuneko Justiziaren aldeko Komitea eratu zuten. Komiteko idazkari exekutiboa emakume zuri bat zen, Caroline Bellin andrea. Taylor andreari laguntzen saiatu zen, eta Montgomeryko NAACPra etorri zen, Abbevillen ez baikeneukan ordezkartzarik. Hori guztia 1945eko udan izan zen.

Laguntzen ahalegindu ginen, baina ez zegoen askorik egiterik haren alde. Bellin andrea saiatu zen Taylor andrearen etxera joaten eta harekin egoten, baina Abbevilleko sheriffak estu hartu zuen eta beltzen eremutik kanpo egoteko agindu zion. NAACPk eta Taylor andrearen aldeko komiteak lortu zuten Chauncey Sparks gobernadoreak kasua ikertuko zuen epaimahai berezi bat eratzea, baina epaimahai berezi hark ere uko egin zion gizonak auzipetzeari.

Jakina, kontrakoa gertatzen zen emakume zuri batek esanez gero bortxatu zutela eta bortxatzailea gizon beltz bat zela. Zer ez ote zuten pairatu gizon beltz gazteek emakume zurien erruz! Gogoan dut Jeremiah Reeves gaixoa. Banatzaile gisa lan egiten zuen, eta artean mutil gazte bat baino ez zen. Maite-kontu

bat zuen emakume zuri batekin, eta hark bere etxera etorrazten zuen; azkenerako, jendea ohartzen hasia zen.

Egun hartan, auzoko batek edo besteren batek leihotik barrura begiratu zuen, eta arropak erantzten ari zirela harrapatu zituen. Norbait begira zutela ohartu bezain laster, emakumea oihuka hasi zen, bortxatu egin nahi zutela esanez. Polizia etorri zen, eta Jeremiah atzeman zuten. Hamazazpi edo hemezortzi urte zituen.

Haren amak NAACPra ekarri zuen kasua, eta horrekin bueltaka ibili ginen zenbait urtez. Nik orduan Crittenden jaunaren jostundegian lan egiten nuen, eta gogoan dut kasuari buruz berbetan aritu nintzela Bertha Butler lagun eta lankidearekin. Esan nion: «Emakume hori non bizi den jakin nahi nuke, hara joateko eta egia esanarazteko. Norbait nirekin etortzeko prest balego...».

Berthak erantzun zidan: «Badakizu amak eta senarrak ez dizutela utziko hara joaten». Halere, arriskatzeko prest nengoan, beste inor ere nirekin etortzea lortzen banuen.

Ez zen inoiz azaldu Jeremiah Reevesen aurkako frogarik; soilik emakume haren hitza, esanez hark bortxatu zuela. Gezurretan ari zela erakusteko moduren bat aurkitzen saiatu nintzen, baina ez nuen ezer lortu. Jeremiah heriotzaren korridorean egon zen hainbat urtez. Poesia idazten zuen. Poema batzuk argitaratu zituen, eta haiek irakurri eta gorde nituen. Poema pila bat idatzi zituen. Haren ama oso ederra zen gaztetan, niri zinema-izar bat begitantzen zitzaidan. Camella Snow zuen ezkondu aurreko izena. Zenbait ume zituen, Jeremiah zaharrena. NAACPren Montgomeryko ordezkartzan Jeremiah Reeves salbatzeko lanean aritu ginen zenbait urtez, baina ez genuen lortu. Heriotzaren korridorean egon zen hogeita bat urte bete arte, eta gero exekutatu egin zuten. Tragedia handia izan zen hark bizia galtzea. Batzuetan oso zaila zen aurrera jarraitzea, ikusirik gure lana alferrekoa zela.

Jakina, noizik noizera emakume zuriren batek ez zuen bortxaketaren aitzakia baliatzen bere burua salbatzeko. Gogoan dut behin Alabama hegoaldeko kasu bati buruzko artikulua irakurri nuela egunkarian; emakume zuri bat zen, alarguna bera, eta bederatzi urteko mutiko bat zuen. Emakumeak gizonezko lagun beltz bat zuen, bisitan joaten zitzaiena. Gizonak ere familia

zuen, eta, beraz, emakumeak ez zuen etxera eramaten. Gela bat atondu zuen garajea, logela bat, eta han egoten ziren gizona andrearengana joaten zenean. Norbait susmo txarra hartuta ibiliko zen, zeren halako batean polizia etorri zen eta hantxe aurkitu zituen. Emakumeak uko egin zion bortxatu zuela esateari, eta maite-kontu bat zeukatela onartu zuen. Ez zien utzi poliziei gizona ukitzen, debekatu egin zien; eta, beraz, emakumea atxilotu zuten. Garai hartan mestizajearen kontrako legeak zeuden, hau da, debekatuta zegoen beltzak eta zuriak maite-kontuetan ibiltzea edo ezkontzea. Gizonak hiritik alde egin zuen andreak eman ahal izan zion dirutxoarekin, izanduna baitzen. Emakumea hirian geratu zen, hango bizilagunek erabat baztertuta, eta geroago irakurri nuen bere buruaz beste egin zuela.

Beltzen kontrako indarkeria-kasuetan izugarri zaila zen jendeak poliziarengana jotzea eta horri buruz zekitena kontatzea. Gogoan dut Union Springs Alabamako eliz ministro beltz bat, zeina behin elkarrizketatzen saiatu bainintzen. Ministroak ikusi zuen nola gizon zuri batek Thomas izeneko gizon beltz bat tirokatu zuen, jakin baitzuen biak emakume beltz berarekin harremanetan ari zirela. Hortaz, ministroak tiroketa ikusi zuen, eta korrika hasi zen. Jendeak zioen arineketan eta behin ere geratu barik egin zuela Union Springsetik Montgomeryrako bidea. Iritsi zenean, lehen-lehenik nire senarrarekin hitz egin zuen, eta hark esan zion hobe zuela nirekin hitz egin. Nik bolaluma eta papera hartu nituen eta ministroaren deklarazioa idazten hasi nintzen, baina hari ezinezkoa egin zitzaion aurrera jarraitzea. Ez zuen onartu beldur zenik; soilik esan zuen etxetik urrun zegoela, familiarengandik aparte, eta gauza askori buruz pentsatu behar zuela.

Hiltzailea salatzeke, nahitaezkoa genuen lekuko bakararren deklarazioa. Baina ministroak ez zuen nahi, edo ezin zuen, lekukotasuna eman; ezta deklarazioa diktatu ere, bederen. Hura eskuratzuz gero, notarioaren egiaztagiria lortuko genuke eta Washington DCko Justizia Sailera bidali. Baina ministroak ezin izan zuen egin.

Parks gizonarekin haserretu zen, ezin izan zidalako ezer kontatu. Nik harekin hain gogor ez jokatzeko eskatu nion. Oso zaila zen. Jendeak ez zuen inondik inora ere nahi bere bizitza pikutara botatzea beste inoren kontra salaketa bat jartzearren.

Beste kasu bat ere izan zen, aurrekoaren oso antzekoa. Elmore Bolling izeneko gizon beltz bat zen, aski diruduna. Kamioi luze bat zeukan, eta ganadua garraiatzen zuen. Nik maiz ikusten nuen kamioiarekin igarotzen, ganadua hiltegiara eramaten. Hura ere gizon zuri batek hil zuen, lehenagoko arrazoi berarengatik. Gizon zuriak esan zuen Elmore Bollingek bere emaztea iraindu zuela telefonoz, eta bidezko defentsa argudiatu zuen. Baina hilketaren benetako arrazoia zen gizon zuria emakume beltz batekin harremanetan ari zela eta emakume hura eta Elmore Bolling elkarrekin harrapatu zituela.

Lehen gordeta neuzkan kasu guztiei buruzko oharrak, baina jada ez dauzkat. NAACPren bulegoan gordetzen nituen, beti han egoten nintzelako. Geroago, Nixon jaunak bere etxeko erai-kin txiki batean gorde nahi izan zituen, eta, han zirela, norbaitek zaramara bota zituen oharkabea. Historiaren zati handi bat galdu zen, kasu askori buruzko oharrak baikenituen. Nolanahi ere, ez genuen arrakasta handirik izan justizia lortzeko ahaleginean. Batez ere, ezarritako botereari aurre egiten saiatzen ginen, eta argi uzten ez genuela jarraitu nahi bigarren mailako herritar gisa tratatuak izaten.

ZAZPI

ZURIEN INDARKERIA GERO ETA HANDIAGOA

Beltzen aurkako bortizkeria-ekintza gehiago izan ziren 1940ko hamarkadaren bukaeran, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren. Armadan parte hartu zuten soldadu beltzak etxera itzultzen ari ziren, eta uste zuten berei ere zurien eskubide berak zegozkiela, beren herrialdearen alde borrokatu zirelako.

Sylvester anaiari 1940ko hamarkadaren hasieran deitu zioten armetara. Europan eta Pazifikokoan ibili zen soldadu. Armada segregaturik zegoen garai hartan, eta soldadu beltzei lanik esker txarrekoenak esleitzen zizkieten, hala nola mantentze-lanak eta larri zaurituen arta. Soldadu beltzek apenas zuten hierarkian gora egiterik. Bestela esanda, zaharrak berri armadan, hura ere zuri arrazisten menpe baitzegoen. Baina Ingalaterran eta Frantziaan adeitasunez hartu zituzten soldadu afro-amerikarrak. Haietako askok neska-lagun zuria zuten, eta batzuk ezkondu ere egin ziren emakume ingeles, frantses edo italiarrekin. Han bai, sentitzen zuten askatasunaren aldeko borrokan egiten ari ziren lana eskertzen zietela.

Sylvester ere gerratik itzuli zen. Berriz Hegoko segregazio legeztatuarekin topo egin zuen, eta izugarri kostatu zitzaion egoitzea. Ez zuen askorik pentsatuko oraindik ere egoera berean gongo ginel, edo are pixka bat okerragoan.

Bigarren Mundu Gerratik itzultitako beterano beltz asko hautesle-errolan izena ematen saiatu ziren, eta ez zuten lortu. Ohartu ziren are errespetu gutxiagorekin tratatzen zituztela, batez ere uniformeak jantzita zeramatenean. Zuriak uste zuten denak betiko bide beretik jarraitu behar zuela eta beterano beltzak harrotuegi zebiltzala. Anaiak, adibidez, ezin eraman zuen

zurien jokabide hura. Gainera, ezinezkoa zitzaion Montgomeryn lana aurkitzea, eta ez zuen nahi, ezta espero ere, beste inork bera mantentzea. Beraz, familia hartu eta Detroit Michiganera aldatu zen.

Gauza bategatik edo bestegatik, kasu ugari izan ziren 1949an. Haietako bat bereziki gogoan dut. New Jerseyko Newark hiriko bi anai-arreba gazte ziren, Edwina Johnson, hamasei urtekoa, eta Marshall Johnson, hamabostekoa. Bisitan etorri ziren Montgomeryra, baina inork ez zien azaldu autobusetan segregazio-legeak bete behar zirenik. Hiri barruko autobus batera igo, eta zurien eremuan eseri ziren. Gidariak, S.T. Lock izenekoa bera, pistola atera zuen eta autobusetik egotzi zituen. Poliziari ere deitu omen zion, zeren gazteak atzeman zituzten eta bi egunez atxilotuta eduki. Hori guztia 1949ko uztailean gertatu zen. Wiley C. Hill epaileak adingabeen zentro batera bidali nahi izan zituen hogeita bat urte bete arte, baina uste dut NAACPk abokatu bat lortu ziela eta azkenean isuna ordainduta libratu zirela.

Denean zeuden beltzen kontrako indarkeria-kasuak, ez bakarrik Alabaman. Akorduan daukat Hego Carolinako kasu bat. Isaac Woodard Jr. izeneko gizon beltz batek baimen-egun batzuk zeuzkan soldadutzan Hego Carolinan; autobusean zihoala, gizon zuri batek buruan kolpatu zuen, eta Woodardek ikusmena galdu zuen. Gizon zuriak Shore zuen izena. Auzitegian, epaimahaiko kide guzti-guztiak zuriak ziren, eta hamabost minutuan ebatzi zuten Shore errugabea zela. Haren abokatuak honelaxe esan zien epaimahaiko kideei: «Shoreren kontrako epaia ematen baduzue, Hego Carolinak berriz bereizi behar luke». Izan ere, Hegoko estatuak Batasunetik bereizi ziren Gerra Zibilaren aurretik.

1949. urtea bereziki txarra izan zen, nik gogoan dudanez. Herritar gehienek aditu ere egin ez zituzten gauza ugari gertatu ziren, egunkariek ez baitzuten haien berri ematen. Indarkeria eta gorroto hark guztiak gainezka egiten zidan zenbaitetan, baina aurrera egin beharra genuen, ez zegoen besterik.

Ordurako, nik bi zeregin nituen: NAACPren Adinekoen Ataleko idazkaria nintzen, baita NAACPren Gazte Kontseiluko aholkularia ere. Gustuko nuen gazteekin lan egitea. 16-18 urte bitarteko ikasleek osatzen zuten Gazte Kontseiluko talderik zabalena. Martxan jarri genuen ekimenetako bat zera zen, gazteak saiatzeari liburuak liburutegi nagusian mailegatzeko; izan ere, hi-



Soldadu beltzak gogor borrokatu ziren Bigarren Mundu Gerran, baina Hegora itzuli zirenean arrazismoa jaso zuten saritzat (Iturria: NAACPren Harreman Publikoak)

riaren beste muturreko eraikin txiki batera joan behar izaten zuten, huraxe baitzen beltzen liburutegia.

Beltzen liburutegian ez zegoen liburu askorik. Ikasle batek han ez zegoen liburu bat eskuratu nahi bazuen, eskaera bat bete behar zuen; eta, orduan, beltzen liburutegiak liburutegi nagusiari egiten zion eskaera. Gero, ikasleak beltzen liburutegira itzuli behar zuen liburua eskuratzera. NAACPren Gazte Kontseiluko kideak liburutegi nagusira joan ziren, eta hura erabiltzeko eskaria egin zuten, argudiatuz deserosoa zitzaiela beltzen liburutegira joatea, urrun samar zegoelako. Behin eta berriro eskatu arren, ez zuten lortu ezer aldatzea.

1950eko hamarkadaren hasierarako, E.D. Nixonek utzia zuen jada Montgomeryko NAACPren buruzagitza. Dena den, oraindik ere oso aktibo zebilen erakundean. Ohe Bagoietako Maletazainen Anaidiaren Montgomeryko ordezkariaren presidentea ere bazenez, sindikatuaren hiriguneko lokalean

zeukan bulegoa erabiltzen zuen komunitatearekin lotutako zereginetarako. Ni ere hara joaten nintzen Nixon jaunarentzat boluntario-lana egitera, hau da, lehenago ere NAACPren bulegoan eginak nituen gauza berak egitera. Nixon jaunak gogoko zuen esatea ni berak esku artean zeukan orenen idazkaria nintzela. Telefonoari eta eskutitzei erantzuten nien, eta Nixon jaunarengana laguntza eske jotzen zuten herritarren kasu askotarikoak erregistratzen nituen. Garai hartan jostun niharduen Solon Crittenden jaunaren jostundegian, eta arrats gehienetan, handik irtetean, bulegora joaten nintzen eta lan apur bat egiten nuen. Askotan ogitarteko bat eramaten nion Nixon jaunari. Treneko lanetan ari ez zenean, bulegoan egon ohi zen lanean.

Virginia Durr andrea Nixon jaunak aurkeztu zidan, beraren etxean baitzegoen. Nixon jauna nire bila etorri zen, eta hura ezagutzera eraman ninduen. Durr andrea emakume zuri bat zen, Birminghamen jaio eta hazia, eta, nola edo hala, ez zuen bere egin gaztaroan inguruan izan zuen arrazismoa. Berak eta bere senarrak, Clifford izenekoak, gauza asko egiten zituzten beltzen alde, eta, ondorioz, ez zeukaten lagun zuri askorik. Durr andreak berezkoa izango zuen halakoa izatea, haren familia segregazioaren aldekoa baitzen.

Nik 1954an ezagutu nuen. Josten nekiela entzun bezain laster lan batzuk enkargatu zizkidan, eta Lucy alabaren ezkontzarako jantziekin lagundu nion. Eztei-jantzia ez nuen nik egin, baina bai gainerako soinekoak. Handik aurrera, nik egiten nizkion etxerako behar zituen joste-lanak. Otoitz-talde misto bat zuen, eta nik ere parte hartzen nuen. Emakume afro-amerikar eta zuriak Durr andrearen etxean biltzen ginen, eta goizeko otoitzak elkarrekin egiten genituen. Denboragarrenera, baina, emakume zurien senarrek, aitek eta anaiek taldea desegin zuten. Iragarkiak jarri zituzten egunkarietan, beren emakumeak arbuaiatuz.

Virginia nahiko ondo ezagutzera iritsi nintzen (berarentzat lan egiten nuen garaian Durr andrea deitzen nion, nahiz eta berak nahiago zuen nik izenetik deitzea). Kontatu zidan etxetik irten eta unibertsitatera joan zenean jabetu zela arrazismoaz. Massachusettsen ikasi zuen, eta behin, fakultateko jangelan, neska beltz bat aurkitu zuen berari zegokion mahaian. Virginiak erabaki bat hartu behar izan zuen, neska beltzaren ondoan eseri



Rosaren anaia Sylvester McCauley uniforme jantzita
(Iturria: Rosa Parks)

ala beste mahai batera joan; izan ere, artean beltz baten ondoan sekula eseri gabea zen hura parekidetzat hartuta. Eta deliberatu zuen onartzea emakume hark gainerako ikasleek adina eskubide zuela toki hartan esertzeko. Esan zidanez, sekula ez zen bere erabakiaz damutu. Gero ezkondu egin zen, eta bera eta Durr jauna Washington DCn bizi izan ziren, non senarra Komunikazioen Batzorde Federaleko kidea baitzen. Alabamara itzultzeko asmotan zebiltzala, Durr andrea duda-mudan egon omen zen, bai baitzeekin berak eta senarrak segregazioari buruz zuten jarraera ez zela Alabamako zuri gehienena bezalakoa. Hogei urteren ondoren Alabamara itzulirik, segregazioari amaiera emateko egiten ari ginen ahaleginarekin bat egin nahi izan zuen, jakinik ere gainerako zuriek bizkarra eman eta sufriarazi egingo ziotela.



Lehen Hezkuntzako ikasgela bat Washington DCn, *Brown vs Hezkuntza Batzordea* auziaren epaiak hezkuntza segregatua konstituzioaren aurkakoa zela erabaki eta urtebetera (USN & WR Bilduma, AEBko Kongresuko Liburutegia)

Urte berean, 1954an, Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak *Brown vs Hezkuntza Batzordea* auziaren epai ezaguna eman zuen, zeinak konstituzioaren aurkakotzat jo baitzuen hezkuntza segregatua. NAACP auzi horretan lanean aritu zen urte asko eta askoan, 1925 ingurutik. Bide horretan, hezkuntza «bereizi baina berdina»ren kontra egin zuen ikuspuntu guztietatik; izan ere, edonondik begiratuta ere, Hegoan hezkuntza segregatua zen, noski, baina ez berdina. Nik ere ikusia nuen hori nire eskola-garaian.

1920ko eta 1930eko hamarkadetan, NAACP erakundea irakasle beltzen soldata-berdintasunaren alde borrokatzen hasia zen. Gogoan dut nire amak maiz esaten zuela irakasle beltzei zuriei baino gutxiago ordaintzen zirela. Berak ere horrexegatik egin zuen alde Montgomery konderritik, irakasle beltzen soldatak oso txikiak zirelako. Hegoan leku askotan, NAACPk soldata-berdintasunaren alde borrokatzen lagundu zien irakasle beltzei. Birminghameko irakasleei ere lagundu zien, baina borroka hura asko luzatu zen, zazpi urte edo, 1938etik 1945era. Hara: jende askoren izenean auzi edo demanda bat jartzeko —*demanda*

kolektibo esaten diote horri—, auzi-jartzaile bat izan behar duzu, hau da, guztien izenean jardungo duen pertsona bat. Baina garai hartan oso ausarta izan behar zenuen auzi-jartzaile gisa jarduteko. Zure bizitza arriskuan jartzen zenuen. Azkenean auzi-jartzaile bat lortu zuten Birminghamen, baina justu orduan soldadutzara deitu zioten, eta epaiketa behin eta berriro atzeratu behar izan zuten. Halere, NAACPk eta irakasleek auzia irabaztea lortu zuten; azkenean, 1945eko udazkenean, soldata-berdintasuna ezarri zen.

NAACP erakundeak 1951n *Brown vs Hezkuntza Batzordea* auzian demanda jarri aurretik ere, erakunde eta talde ugariak —tartean NAACP bera— dozena bat inguru demanda jarriak zituzten lehen eta bigarren hezkuntzako berdintasunik ezaren aurka zenbait estatutan: Arkansas, Texas, Ipar Carolina, Virginia eta Missouri. Edonola ere, Kansaseko Topeka hiriko *Brown* auzi hura izan zen AEBko Auzitegi Gorenera iritsi zen lehen, eta haren epaiak jurisprudentzia-aurrekari bat ezarriko zuen. Lorpen hori NAACPko bi abokatuk erdietsi zuten, Charles Hamilton Houston-ek eta Thurgood Marshall-ek. Marshall jaunak soziologo bat ere ekarri zuen, Kenneth Clark doktorea, zeinak adierazi baitzuen hezkuntza segregatuak haur beltzei kalte egiten zuela. Geroago, 1960ko hamarkadan, Thurgood Marshall AEBko Auzitegi Goreneko lehen epaile beltza bilakatu zen.

Nola azaldu zer poz handia zabaldu zen beltzen artean, baita zuri batzuen artean ere, 1954ko maiatzean Auzitegi Gorenak epaia eman zuenean. Auzitegiak esan zuen ezinezkoa zela hezkuntza bereizia berdintasunezkoa izatea, eta gutako asko ohartu ginen ideia hori beste esparru askotara ere zabaldu zitekeela; adibidez, garraio publikora.

Garai hura oso itxaropentsua izan zen. Afro-amerikarrok uste genuen azkenean bazela segregazio-legeak aldatzeko aukera erreal bat. Gogoan dut Fred Gray garaisua hartan itzuli zela Montgomeryra eta abokatu-bulego bat ireki zuela. Gray Montgomeryn jaio eta hazia zen. Hamabi urte zituela Kristoren Elizako ministro izendatu zuten, baina horretan jarduteak ez zuen libratu beltzen aurkako aurrejuzgetatik. Arraza-segregazioa zela eta, Iparrera joan behar izan zuen ikastera eta zuzenbidean lizentziatzerara. Bazeukan Iparreran geratzea eta lasaiago bizitzea, baina itzultzea erabaki zuen, afro-amerikarren eskubideen aldeko borrokan la-



Washington DCo eskola misto baten kanpoaldean, AEBko Auzitegi Gorenak hezkuntza segregatua berdintasunaren eta konstituzioaren aurkakotzat jo ondoren (USN & WR Bilduma, AEBko Kongresuko Liburutegia)

guntzera. Askok poztu nintzen Montgomeryko erdigunean bulego bat ireki eta han abokatu-lanetan hasi zenean. Hala, bi abokatu beltz izango genituen lege-kontuetan aholku emateko.

Beste abokatu beltza Charles Langford zen. Fred Grayk bere bulegoa zabaldu aurretik, Mahalia Ashley Dickerson izeneko emakume beltz batek, urte luzez nire laguna izana zenak, abokatu-bulego bat ireki zuen. Baina Montgomerytik alde egin behar izan zuen, zeren ez zuen behar besteko laguntzarik jaso komunitate afro-amerikarraren aldetik. Ez zioten nahikoa lanik eman bizimodua ateratzeko, eta hiru semearen ama ezkongabea zen.

Auzitegi Gorenak *Brown vs Hezkuntza Batzordea* auziko epaia eman ostean, ondoren etorriko zenaren zain geunden guztiok. Auzitegi Gorenak erabaki beharreko hurrengo kontua zen zein urrats egin behar ziren eskola-segregazioari amaiera

emateko. Auzitegiek ez zuten horri buruzko argudiorik entzun ia urtebete geroago arte, 1955eko apirillean; alabaina, aktibista ugari planak egiten jarraitu zuten. Durr andreak mintegi baten berri eman zidan: «Arraza-segregazioari amaiera ematea: nola gauzatu Auzitegi Gorenaren epaia». Monteagle Tennesseeen egitekoa zen, Highlander Herri Eskola izeneko leku batean. Durren ustez, ikastaro hartan parte hartu behar nuen; esan zidan dirulaguntza bat eskuratu zitekeela eta berak ere dirua bilduko zuela niri hamar eguneko bidaia-gastuak ordaintzeko. Nixon jaunak ere ongi iritzi zion ni hara joateari, eta, beraz, joan egin nintzen. 1955eko udan izan zen.

Durr andreak bere autobiografian (*Outside the Magic Circle* [Zirkulu magikotik at]) idatzi zuenez, nik ez neukan ez maletarik ez bainujantzirik eta berak eman zizkidan. Baina nik ez dut zehazki horrela gogoratzen. Ez neukan maletarik, hori egia da, artean ez nuelako bidaiatzen, baina ez nuen maletarik eraman Highlanderrera, gogoan dudanez. Bestalde, baneukan bainujantzi bat; izan ere, 1950ean Floridara joan nintzen, eta akorduan dut baneukala bat orduan. Montgomeryko familia batentzat lan egiten nuen, etxeko lanak egiten eta haien neskatila zaintzen, zeinak hiru urte baitzituen orduan eta sortzetiko asma baitzuen. Floridara joan ziren oporretan, Sunnyside Beach izeneko leku batera, Mexikoko golkora, eta ni haiekin joan nintzen; eta baneukan bainujantzia, hondartzara joaten nintzelako. Highlanderren laku bat zuten, baina ez nintzen behin ere sartu, ez bainaiz inoiz oso iaioa izan igeriketan.

Ez dut akorduan zer iritzi zion Parksek ni Highlanderre-ra joateari. Ez nuen lortu bera nirekin etortzea. Ez zuen atsegin etxetik asko aldentzea, baina ez zien eragozpenik jartzen nire bidaiei. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, nire ama gurekin bizitzen jarri zen, eta Parks eta bera ondo moldatuko ziren ni gabe. Parksek bazekien janaria prestatzen. Aski gaztea zela, bere ama eta amona gaixorik egon ziren, eta berak zaindu zituen.

Ez dut gogoan Durr andreak inoiz aipatu zuenik Highlander zurien eskola bat zela. Ez zuen arraza zehatzik aipatu; beraz, ez nekien zer aurkituko nuen hara iristean. Heldu ahala ohartu nintzen Tennesseeko Grundy konderrri osoan ez zegoela beltz bakar bat ere, soilik Highlanderreko mintegira etorri zirenak. Ezin izan nuen eskolatik kanpoko inorekin hitz egin, eta, beraz,

ezin inork esandakorik aipatu, baina banekien han ingurukoek ez zutela eskola batere gustuko, aukera izan zutenean eraikina erre baitzuten.

Chattanooga Tennesseeerako autobus bat hartu nuen. Han gizon zuri batek jaso ninduen, eta autoz eraman Monteagle Tennesseeera, laurogei bat kilometro iparraldera. Ez dut uste askorik hitz egin genuenik, baina ez nengoen deseroso. Ohitua nengoen zuriekin egotera, eta haiek ni onartu bezala onartzen nituen nik haiek. Ikuspegia eder-ederra zen, eta eskolara gerturatu ahala ulertu nuen zergatik deitu zioten Highlander: mendiko goi-ordoki batean zegoen, lorategiz eta abere-taldez inguratua.

Eskola Myles Horton-ek sortu zuen 1932an, Depresio Handiaren garaian. Haren ustez, jendeak bazeukan bere arazoak konpontzea, baldin eta orientabide egokia jasotzen bazuen. Eskola ireki zuenean, Appalache mendietako langile zuri zapalduen arazoetan jarri zuen arreta. Lan-harremanei, langileen eskubideei eta arraza-harremanei buruzko ikastaroak eman zituen. 1950eko hamarkadan, berriz, eskubide zibilak hartu zituen ardatz. Eskolak etorkizuneko liderrak trebatzeko ikastaroak eskaintzen zituen, gero haiek beren bizilekuetan aldaketaren alde lan egin zezaten eskolan ikasitakoa baliatuz. Orduan hasiko zen, ziurrenik, komunitate zuriaren etsaigoa.

Highlanderren Septima Clark izeneko emakume beltz bat ezagutu nuen, bere irakasle-lana galdutakoa Charleston Hego Carolinan. NAACPren hango ordezkarietako kide aktiboa izana zen, eta irakasle beltzek zuriak adinako soldata jaso zezatela lortzen saiatu zen. Clark andrea Waties Waring epailearen laguna ere bazen, zeinak Alderdi Demokratikoa klub pribatu izatearen aurkako epaia eman baitzuen; erabaki haren ondorioz, hautesle guztiek izango zuten alderdian izena emateko eskubidea. Izan ere, Hego Carolinako beltzei ezinezkoa zitzairen Alderdi Demokratikoan izena ematea, alderdiak klub pribatutzat baitzeukan bere burua (Alderdi Errepublikanoari buruz ez dut ezer esatekorik, noski, sasoi hartan ez baitzegoen halakorik Hego Carolinan). Ezagutu nuenean, Septima Poinsette Clark (Poinsette familiaren jabetzako esklabo baten alaba zen, eta familia hark eman zion izena poinsetia loreari) berrogeita hamar urte luzeko emakumea zen, eta herritartasunari buruzko eskolak ematen zituen Highlanderren. «Herritartasun-eskola» haren ardurapean zegoen, eta



Septima Clark eta Rosa 1955ean, Highlander Herri Eskolan solasean
(Iturria: Rosa Parks)

irakurtzen eta idazten irakasten zien helduei, baita herritartasunari buruzko oinarriak ere, gero haiek beste batzuei irakats ziezazkieten eta hautesle-errolan izena emateko modua izan zezaten. Highlanderren ezin erosoago sentitzen zen, baina komunitatetik kanpoko herritarrek gorriak pasarazten zizkioten. Eraikina erre zuten, Myles kanpoan zela eta Septima barruan zegoela. Kartzelara ere eraman zuten eta gauza asko egotzi zizkioten, hala nola likorea edatea eta komunista izatea. Ez zituzten gustuko berak egiten zituen gauzak. Geroago bere bizitzari buruzko liburu bat idatzi zuen, *Echo in My Soul* [Nire arimaren oihartzuna], eta haren ale bat eman zidan. Eskutitz bat ere bidaltzen zidan urtero Eguberrietan.

Ni han izan nintzen udan eskaini zuten lehenengoz helduen hezkuntza. Bernice Robinson izeneko ile-apaintzaile beltz batek irakasgai bat ematen zuen; astean bi gautan izaten zen, eta hamalau ikasle zituen. Oinarrizko gauzak irakasten zizkien; adibidez, izena idazten, txeke bat egiten, soldadutzan zeudenei



Rosa (eskuinean) Tuskegee Institutuko lehendakari Fred Paterson doktorearekin (erdian) eta James Johnsonekin hizketan Highlander Herri Eskolan (Iturria: Rosa Parks)

eskutitzak idazten. Ikastaroaren amaieran, ikasleetatik zortzik hautesle-errodan izena emateko azterketa gainditu zuten.

Hamar egun igaro nituen Highlanderren. Hainbat mintegitan parte hartu nuen, gehienak eskola-segregazioari amaiera emateko moduei buruzkoak. Dena oso ondo antolatua zegoen. Zereginak geneuzkan guztiok, eta horien zerrendak ohar-taulan jartzen zituzten egunero. Lana eta aisia, biak elkarrekin egiten genituen. Han geundela, haxe nuen plazerik handienetakoa: urdai frijituaren eta kafe egin berriaren usaina, banekielako nik barik zuriek prestatzen zituztela. Igeriketa-saioak egiten zituzten laku artifizialean, eta boleibolean eta herri-dantzetan ere aritzen ginen. Zinez gozatu nuen Highlanderren jende harekin egindako egonaldia. Ahaztu egin zitzaigun gutako bakoitza zein koloretakoa zen. Nik berrogeita bi urte nituen, eta huraxe izan zen zurien aldetik etsaigorik sentitu ez nuen aldi bakanetakoa bat. Arraza

eta jatorri desberdinetako jendearekin batera mintegietan parte hartzeko eta haiekin bakean eta harmonian bizitzeko aukera izan nuen. Sentitzen nuen zintzotasunez hitz egin nezakeela, ondorioen edo kontrako jarreraren beldur izan gabe.

Luzaroago geratuko nintzatekeen. Gogorra zen handik alde egitea, jakinik nora nentorren. Baina, noski, banekien alde egin beharra nuela. Hortaz, Montgomeryra itzuli nintzen, Montgomery Fair saltoki handiko jostun laguntzailearen lanpostura, non beti irribarretsu eta atsegin agertu behar baitzenuen, zakar tratatzen bazintuzten ere. Eta hiri-autobusetara ere itzuli nintzen, eta haien segregazio-arauetara.

ZORTZI

«ATXILOTUTA ZAUDE»

Ez dut uste ezein segregazio-legek autobuseko segregazioak adina gogaitarazten zituenik Montgomeryko beltzak. Eta halaxe izan zen garraio publikoko segregazioari buruzko legeak onartu zirenetik, hau da, 1900etik. Beltz-jendeak Montgomeryko tranbiak boikotatu zituen, harik eta Udalak ordenantza aldatzea lortu zuten arte; aurrerantzean, inor ez zen behartua izango bere jarlekua inori uztera, ez bazen bera beste jarleku batera aldatu zitekeela. Nolanahi ere, urteak joan urteak etorri, ohitura hori aldatuz joan zen, legea bera aldatu ez arren. 1943an autobuse-tik jaitsarazi nindutenean, gidariak urratu zuen legea, ez nik. 1945ean, gertaera hartatik bi urtera, Alabamako gobernuak lege bat onartu zuen, zeinaren arabera haren eskumeneko autobus-konpainia guztiek segregazioa aplikatu behar baitzuten. Halere, lege horiek ez zuten zehazten zer egin behar zuten autobus-gidariak nirea bezalako egoeretan.

Eta hantxe geunden, lehen segregazio-legetik mende erdira eta Montgomeryn 50.000 afro-amerikar bizi ginela. Beltzok gehiago erabiltzen genituen autobusak zuriek baino, zuri gehiagok zutelako autoa erosteko ahalmena. Egunean bi aldiz eta astean bost egunez, autobus segregatuetan bidaiatzen genuen hirigunera joan eta zuri entzat lan egiteko; zinez umiliagarria zen.

Istiluek ez zuten etenik. Durr andreak dioenez, behin eta berriro ematen nion halako gertakariren baten berri. Nixon jauna aldaketa txikiak negoziatzen saiatzen zen. Badakit behin kexaka joan zela autobus-konpainiara, beltzek txartela aurreko atean erosi eta gero atzeko atetik sartu beharra zeukatelako. Eta

honela erantzun zioten: «Zure lagunek hasi zuten hau. Hala egin nahi dute, eta hala egiten dute».

Beste behin, Day Street kaleko autobusaren ibilbidea luzatzeari buruz hitz egiteko joan zen hara. Day Streeteko zubiaren bestaldeko auzo txiki bateko beltzek ia kilometro bat egin behar zuten oinez zubia zeharkatzeko eta ibaiaren bestaldean autobusa hartzeko. Nixon jauna autobus-konpainiara joan zen kexatzera. Egia esan, behin eta berriro joaten zen hara dena delakoagatik protesta egitera; batzuetan bakarrik joaten zen, eta beste batzuetan norbait eramaten zuen berekin. Berak bazeukan autoa eta ez zen hiri-autobusetan ibiltzen, baina komunitatearen alde ari zen. Autobus-konpainian esan zioten jendea prest zegoela kilometro bat oinez ibiltzeko eta hirigunerako gainerako bidea ordainpeko autobusean egiteko eta, beraz, hori hala zen bitartean ez zutela autobusaren ibilbidea luzatzeko beharrik ikusten.

Jo Ann Robinson ingeles-irakaslea zen Alabama State uni-bertsitate publikoan. 1946an, Emakumeen Kontseilu Politikoa sortzen parte hartu zuen. Urteetan zehar zenbait gorabehera izan zituen autobus-gidariekin, baina hasieran ez zuen lortu Kontseiluko beste emakumeak horretaz arduratzea. Bera Cleveland Ohio-koa zen, eta gainerako gehienak Montgomeryn jaiok ziren. Autobus-gidarien zakarkeriaz kexatzen zenean, esaten zioten hori Montgomeryko bizitzaren parte zela. Askotan kexatu zitzaion autobus-konpainiari Emakumeen Kontseilu Politikoa- ren izenean, eta azkenean lortu zuen autobusak auzo beltzetako izkina guztietan geratzea, auzo zurietan egiten zuten bezalaxe. Baina hori garaipen txiki bat baino ez zen.

Beltzak bidaiarien ehuneko hirurogeita sei baino gehiago ziren, eta hori zen bera —baita gutako asko ere— gehien sumintzen zuena. Halere, ez autobus-konpainiak, ez alkateak, ez udal-ordezkariek ez ziguten kasurik egiten. Akorduan daukat gure artean komentatzen genuela hiri-autobusei boikot egiteak min handia egingo liokeela autobus-konpainiaren sakelari. Baina beste kontu bat ere badut akorduan: beltz gutxi batzuei galde-tu genien ea prest egongo lirartekeen denbora batez autobusik ez hartzeko baldin eta horrek gerora egoera hobetzea ekarriko bazuen, eta erantzun ziguten oso urrun lan egiten zutela eta ezinezkoa zitzaielara autobusik ez hartzea. Beraz, ez zirudien boikot bat egiteko babes handirik genuenik. Montgomeryko NAACP

hasia zen pentsatzen Udala auzitara eramatea autobusetako segregazioa zela eta. Horretarako, ordea, bi gauza behar zituzten: auzi-jartzaile egokia eta kasu sendo bat. Egokiena litzateke auzi-jartzailea emakumea izatea, emakume batek gizon batek baino elkartasun handiagoa piztuko lukeelako. Eta emakumeak zeharo aitzakiagabea behar luke izan, ospe onekoa eta inoiz ezer txarrik egin gabea, ez bada bere jarlekua inori uzteari uko egitea.

1955eko udaberrian, Claudette Colvin izeneko neska nerabe batek eta adineko emakume batek ez zuten onartu autobus baten erdialdeko beren jarlekuak zuriei uztea. Gidaria poliziarren bila joan zen, eta adineko emakumea autobusetik jaitsi zen, baina Claudettek ez zuen jaiki nahi izan; esan zuenez, txartela ordaindu zuen eta ez zeukan handik mugitzeko arrazoirik. Polizia etorri zenean, autobusetik herrestan atera eta atxilotu egin zuten. Neskaren izena ezaguna egiten zitzaidan; gero jakin nuen, Claudette Colvin gaztea Gus Vaughn jaunaren birbiloba zen —Pine Leveleko gizon beltz odol nahasgabe hura, seme-alaba ugari zituena eta gizon zurientzat lan egiteari uko egiten ziona—. Nonbait, birbilobak ere bazuen haren harrotasuna. Neskak eta kasuak interes handia piztu zidaten.

Claudette atxilotu ondoren, aktibista-talde batek eskaera bat aurkeztu zien autobus-konpainiaren ordezkariari eta udal-funtzionarioei. Bi gauza eskatzen zituzten, tratu adeitsuagoa eta autobusetan segregazioaren seinale bistakorik ez izatea. Ez zuten segregazioaren amaiera eskatzen, baizik eta autobusen erabilera adostea: zuriak autobusaren aurreko lerroetatik hasiko ziren esertzen eta beltzak atzekoetatik, eta batzuek eta besteek bat egiten zuten tokian egongo zen bien arteko banalerroa. Uste dut orobat eskatzen zutela gidari beltzak kontratatzea. Udal-funtzionarioek eta autobus-konpainiak hilabeteak behar izan zituzten eskaera hari erantzuteko, eta, azkenean, proposamen guzti-guztiak baztertu zituzten. Ni ez nintzen besteekin batera joan autobus-konpainiari eta udal-funtzionarioei eskaera hura aurkeztera, ez bainuen uste ezer lortu zitekeenik. Erabakia nuen ez nintzela inora joango paper-zati bat eskuan zuriei ezein mesede eskatzera. Neure kabuz hartu nuen erabakia, neure izenean.

Aldiz, Claudetterekin elkartu nintzen, Nixon jaunarekin eta Jo Ann Robinsonekin batera, eta haren kasua auzitegi federalera eramateaz hitz egin genuen. Claudette horretarako

prest agertu zen, eta beraren defentsa prestatzeko dirua biltzeko planak egiten hasi ginen, hiriko hainbat tokitan hitzaldiak antolatzen. Dena ondo joan zen, Nixon jauna ohartu zen arte Claudette haurdun zegoela. Ezkongabea zen, eta, beraz, hantxe amaitu zen dena. Berria zurien komunikabideetara iritsiz gero, pagotxa ederra haientzat. Emakume lizuntzat joko lukete, eta haren kasuak ez luke izango aurrera egiteko aukerarik. Beraz, erabaki genuen auzi-jartzaile prestuago bat izan arte itxarotea aitzina egin eta denbora, ahalegin eta diru gehiago inbertitu aurretik.

Uda berean beste gertakari bat izan zen autobusetan, eta orduko hartan ere emakume bat zegoen tartean. Nik ez nuen askorik ezagutzen. Louise Smith zuen izena, eta hemezortzi urte inguru zituen. Ziotenez, isuna ordaindu zuen eta ez zen kexatu; beraz, ez zen kasu egokia guretzat, eta Nixon jaunak ez zuen apelaziorik aurkeztu goragoko auzitegietan.

Banekien tatxarik gabeko auzi-jartzaile bat behar zutela, nik ere parte hartzen nuelako auzitegietara eramatekoak izan zitezkeen kasuei buruzko eztabaidetan. Nolanahi ere, ez nukan hori buruan ostegun hartan, 1955eko abenduaren 1ean, nire jarlekua gizon zuri bati uztea onartu ez nuenean. Ez nuen egin atxilotu nintzaten. Egia esan, zuhur ibili izan banintz, ez nintzen sekula autobus hartara igoko.

Lanez lepo nenbilen garai hartan. NAACPren mintegi bat antolatzen ari nintzen abenduaren 3rako, larunbata, eta 4rako, igandea; larunbateko bilera Alabama State unibertsitatean egin nahi genuen, eta saiatzen ari nintzen hango H. Council Trenholm jaunak horretarako aukera ematea. Baimena emana zuen jada, baina asko kostatzen ari zitzaidan eraikina erabiltzeko aukera ere ematea. Bestalde, hurrengo astean NAACPren Adinekoen Ataleko ordezkariak hautatzeko bozketak egin behar genituen, eta horren jakinarazpenak jasotzen ari nintzen postaz.

Abenduaren lehen egun hartan, lanetik irten eta Court Square-ra jo nuen oinez, ohi nuenez, Cleveland Avenuen autobusa hartu eta etxera joateko. Autobusera igotzerakoan ez nion gidariari erreparatu, eta txartela ordaindu ondoren ikusi nuen nor zen. Hain justu ere, gidari harexek behartu ninduen autobusetik jaistera hamabi urte lehenago, 1943an. Oraindik ere garaia eta sendokotea zen eta azala gorria eta latza zuen. Eta anker-



Beltzen eremua autobusaren atzealdean
(Iturria: NAACPren Harreman Publikoak)

itxura ere bazuen oraindik. Ez nekien lehenago ere ibilbide hura egiten aritu ote zen, batzuetan gidariak aldatzen baitzituzten. Baina badakit bera gidaria zela ikusten nuenean ez nintzela autobusera igotzen normalean.

Autobusaren erdialdean jarleku huts bat ikusi nuen, eta hantxe eseri nintzen. Ez nuen pentsatu ere egin zergatik zegoen jarleku hura libre, nahiz eta atzean jende nahikotxo zihoan zutik. Nolanahi ere, horretaz gogoeta eginez gero, ziur asko pentsatuko nukeen beharbada baten batek igotzen ikusi ninduela eta horregatik ez zuela berak hartu, niretzat libre uzteko. Gizon bat zegoen leihoaren ondoan eserita, eta bi emakume zeuden pasilloaren bestaldean.

Hurrengo geralekua Empire Theater zen, eta pertsona zuri batzuk igo ziren. Zurienezako jarlekuak bete zituzten, eta gizon batek zutik geratu behar izan zuen. Gidariak atzerantz begiratu zuen, eta gizona zutik zegoela ohartu zen. Orduan gure aldera begiratu zuen, eta esan zuen: «Libratu aurreko jarleku horiek». Izan ere, gu beltzen eremuko aurreneko ilaran gindoazen. Inor ez zen mugitu. Geunden lekuan geratu ginen, laurok. Orduan bigarren ezan esan zuen: «Hobe duzue istilurik ez sortu eta jarleku horiek libratu».

Leihoaren kontra eta nire ondoan zihoan gizona altxatu zen, eta ni apur bat mugitu nintzen hari pasatzen uzteko. Gero pasilloaren beste aldera begiratu nuen, eta bi emakumeak ere altxatu zirela ikusi nuen. Leiho ondoko jarlekura aldatu nintzen. Ez nuen ulertzen nola lagunduko zidan «istilurik ez sortzen» nire jarlekutik altxatzeak. Zenbat eta gehiago amore eman eta obeditu, orduan eta okerrago tratatzen gintuzten.

Orduan akordura etorri zitzaidan gaua erne eta esna igitzen nuen garaia, aitonak eskopeta supazterrean edukitzen zueneko, eta nola bera zaldi bakarreko organ norabait joatekoa bazen beti eskopeta eramaten zuen atzealdean. Jendeak esan ohi du nekatuta nengoelako ez nintzela altxatu nire jarlekutik, baina ez da egia. Ez nengoen fisikoki nekatuta, ez behintzat lane-gunaren amaieran egon ohi nintzen baino nekatuago. Ez nintzen zaharra, nahiz eta batzuek hala irudikatzen nauten garai hartan. Berrogeita bi urte nituen. Gauza bakarraz nengoen nekatuta: amore emateaz.

Autobus-gidariak ikusi zuen han eserita jarraitzen nuela, eta galdetu zidan ea altxatuko nintzen. «Ez», erantzun nion. Eta berak esan zuen: «Ondo da, atxilotzeko esango diet». Orduan esan nion: «Esan, ba». Horixe, besterik ez. Izena nola zuen ere ez

nuen jakin epaitegian elkartu ginen arte: James Blake. Autobusetik jaitsi zen, eta poliziaren zain egon zen minutu batzuez.

Hantxe eserita nengoela, saiatu nintzen gerta zitekeenari buruz ez pentsatzen. Izan ere, banekien edozer gerta zekidakeela. Bazuten ni indarrez ateratzea, bazuten ni jotzea. Bazuten ni atxilotzea ere. Jendeak galdetu izan dit ea une hartan ez ote zitzaidan otu hura izan zitekeela NAACP hainbeste denboraz birlatzen aritutako auzia, jurisprudentzia ezar zezakeena. Ez nuen horretan pentsatu. Egia esan, gerta zekidakeenari buruz gehiegi pentsatu izan banu, segur aski autobusetik jaitsiko nintzatekeen. Baina geratzea erabaki nuen.

Bitartean, jendea autobusetik jaisten ari zen, eta beste autobus bat etortzeko eskatzen; beraz, gero eta jende gutxiago zegoen, batez ere autobusaren atzealdean. Ez ziren guztiak jaitsi, baina denak zeuden isil-isilik. Eta hizketan ziharduten gutxiak ahapeka ari zen, inork ez zuen ozenki hitz egiten. Ikustekoa izango zen autobus osoa hustu izan balitz. Edo beste hirurek beren lekuetan jarraitu izan balute; zeren, bakarra eraman beharrean lau atxilotu behar izan bagintuzte, babes pixka bat izango nukeen. Baina ez zion axola. Ez nuen sekula haietaz gaizki pentsatu, eta ez nuen inoiz haiek kritikatzeko lana hartu.

Azkenean bi gizonezko polizia etorri ziren. Autobusera igo ziren, eta haietako batek galdetu zidan ea zergatik ez nintzen altxatu. Galdetu nion: «Zergatik erabiltzen gaituzue horrela?». Eta esan zidan, hitzez hitz: «Ez dakit, baina legea legea da, eta atxilotuta zaude». Polizietako batek nire esku-poltsa hartu zuen, besteak erosketena, eta biek batera patruila-autora eskoltatu ninduten. Autoan ginelarik, nire gauzak itzuli zizkidaten. Ez zidaten eskurik gainean jarri, eta ez ninduten autoan sartzera behartu. Ni autoan eseri ondoren, poliziak autobus-gidariarengana itzuli ziren, eta deklaratu nahi zuen galdetu zioten. Erantzun zuen lehendabizi bere ibilbidea bukatuko zuela eta gero zuzenean deklaratzera etorriko zela. Hark deklarazioa sinatu bitartean, ni poliziaren zaintzapean nengoen, ez legez atxilotuta.

Udaletxeko polizia-etxera eraman ninduten, Court Streetetik gertu. Harako bidean, polizietako batek berriz galdetu zidan: «Zergatik ez zara altxatu gidariak hala eskatu dizunean?». Ez nion erantzun. Isilik egin nuen udaletxerako bidea.

Eraikinean sartu ginenean, galdetu nuen ea ur pixka bat edan nezakeen, eztarria guztiz lehorra baineukan. Iturri bat zegoen hantxe ondoan. Polizietako batek baietz esan zidan, baina, edateko makurtu nintzenean, beste polizia batek esan zuen ezetz, ezin nuela urik edan eta kartzelara iritsi arte itxaron behar nuela. Beraz, ura edateko aukera ukatu zidan. Eztarria busti, ez nuen besterik egin nahi. Ez neukan ur pila bat edateko asmorik, nahiz eta oso egarrirituta nengoen. Haserretu egin nintzen, baina ez nuen ezer esan.

Polizia-etxean, bete beharreko formulario guztiak bete ziztuzten nik haien galderei erantzun ahala: nola nuen izena, non bizi nintzen. Galdetu nuen ea banuen telefono-dei bat egiterik, eta ezetz esan zidaten. Atxilotu ninduten lehen aldia zenez, ez nekien hori ere diskriminazioa ote zen, beltza nintzelako, edo ohiko prozedura bat, besterik gabe. Alabaina, iruditu zitzaidan hori ere diskriminazioa zela. Gero berriro patruila-autora eraman ninduten eta kartzelara joan ginen, North Ripley kalera.

Ez nintzen kartzelaren beldur. Beste ezeren gainetik, etsita nengoen. Ez dut gogoan oso haserre nengoenik; ez, behintzat, eztabaida bat izateko adina. Edozeri aurre egiteko prest nengoen. Berriz galdetu nuen ea telefono-dei bat egin nezakeen. Ez zidaten jaramonik egin.

Esku-poltsa mostradorean jartzeko eta sakeletatik nire gauzak ateratzeko eskatu zidaten. Zapi bat besterik ez neukan poltsikoan. Atera egin nuen. Ez ninduten miatu, eta ez zizkidaten eskuburdinak ipini.

Beste toki batera eraman ninduten, eta han hatz-markak hartu eta polizia-fitxarako argazkiak atera zizkidaten. Emakumezko zaindari zuri batek nire ziegara eraman ninduen, eta berriz galdetu nuen ea telefonoa erabil nezakeen. Esan zidan galdetuko zuela.

Eskaileretan gora eraman ninduen, ziegak bigarren solairuan baitzeuden. Metalezko sare batez estalitako ate bat zeharkatu genuen, eta argi-itzaletan zegoen korridore batetik aurrera jarraitu genuen. Ziega ilun huts batean sartu ninduen, eta atea kolpez itxi zuen. Urrats batzuk egin zituen, baina gero jiratu eta nigana itzuli zen. Eta esan zidan: «Bi neska daude beste aldean. Hemen bakarrik egon beharrean haiekin batera egon nahi baduzu, hara eramango zaitut». Erantzun nion berdin zi-

tzaidala, baina esan zuen: «Goazen hara, hala ez duzu ziegan bakarrik egon beharko». Atsegina izan nahi zuen. Ez ninduen hobeto sentiarazi.

Beste ziegarrantz gindoazela, berriz galdetu nion: «Telefonoa erabil dezaket?». Erantzun zidan begiratuko zuela.

Ziega hartan bi emakume beltz zeuden, zaindaria esan bezala. Batek berba egin zidan, besteak ez. Batek han egongo ez banintz bezala jokatzan zuen. Berba egiten zidanak galdetu zidan ea zer gertatu zitzaidan. Esan nion autobusean atxilotu nindutela. Eta esan zidan:

—Autobus-gidari batzuk zera baino gaitzagoak dira. Ez-konduta zaude?

—Bai —erantzun nuen.

—Orduan senarrak laster aterako zaitu.

Ezertan laguntzerik bazuen jakin nahi izan zuen, eta esan nion: «Edalontzi bat baduzu, ur pixka bat edango nuke». Meta-lezko katilu ilun bat zeukan komun gainean zintzilik; ur apur bat hartu zuen txorrotatik, eta bi zurrutada edan nituen. Orduan bere arazoez berbetan hasi zitzaidan. Haren istorioak arreta eman zidan, eta jakin nahi nuen zertan lagundu niezaiokeen.

Esan zidan berrogeita hamabost edo berrogeita hamazazpi egun zeramatzala han eta alarguna zela, senarra hila zuen. Beste gizon batekin ibiltzen hasi zen, eta hura haserretu egin zitzaion eta joka hasi. Emakumea gizonari jarraiki zitzaion eskuan aizkora bat hartuta, eta hark bera atxiloarazi zuen.

Esan zidan bi anaia zituela baina ezin izan zuela haiekin harremanetan jarri. Bitartean, andrea denbora batez kartzelan egon ondoren, gizona baretu-edo egin omen zen, eta orain emakumea kartzelatik atera nahi zuen, baina soilik berarekin jarraituko bazuen. Halere, emakumeak ez zuen harekin ezer jakin nahi. Beraz, hantxe zegoen kartzelan, eta ez zeukan handik atera zezakeen inorekin harremanetan jartzeko modurik.

Arkatza bazuen, baina paperik ez, eta ezta nik ere, zeren esku-poltsa kendu zidaten. Bere egoeraren berri ematen amaitu zuenerako, zaindaria itzuli zen eta ziegatik irteteko esan zidan. Ez nekien nora gindoazen, harik eta telefono-kabinara iritsi ginen arte. Txartel bat eman zidan, eta esan zidan idazteko nori deitu nahi nion eta zein zen haren telefono-zenbakia. Hamar

zentaboko txanpon bat jarri zuen artekan, zenbakia markatu zuen eta hantxe hurrean geratu zen, esaten nuena entzuten.

Etxera deitu nuen. Senarra eta ama zeuden. Amak hartu zuen telefonoa, eta esan nion:

—Kartzelan nago. Galdetu Parksi ea nire bila etor daitekeen.

—Jo zaituzte? —jakin nahi zuen.

—Ez, ez naute jo, baina kartzelan nago.

Amak nire senarrari eman zion telefonoa. Eta esan nion:

—Parks, etorriko zara nire bila kartzelara?

—Bost minutuan hor izango naiz —esan zuen.

Ez zeukan autorik, eta banekien denbora gehiago behar-ko zuela. Baina artean telefonoz ari ginela, lagun bat iritsi zen autoz. Atxilotu nindutela aditu zuen, eta gure etxera joan zen, Cleveland Court-era, laguntza eskaintzera. Esan zuen berak eka-riko zuela Parks kartzelara.

Orduan zaindariak berriz ziegara eramanez ninduen.

Parksen lagunak esan bezala, jada ahoz aho zebilen nire atxilotetaren berri. Nixon jaunari emazteak esan zion, eta hark auzo batek, Bertha Butlerrek, esanda jakin zuen. Auzoak ikusia zuen nola jaitsarazi ninduten poliziek autobusetik. Nixon jaunak kartzelara deitu zuen eta galdetu zuen ea zer egozten zidaten, baina ez zioten deus argitu. Orduan Fred Grayrekin harremanetan jartzen saiatu zen —Montgomeryko bi abokatu beltzetako bat—, baina ez zegoen etxean. Beraz, azkenean Nixon jaunak Clifford Durri deitu zion, abokatu zuria bera, Virginia Durr andrearen senarra. Durr jaunak kartzelara deitu zuen, eta esan zioten segregazioari buruzko legeak urratzeagatik atxilotu nindutela. Fidantza zenbatekoa zen ere esan zioten.

Bien bitartean, Parksek bere ezaguna zen gizon zuri bati deitu zion, bazekien-eta hark fidantza ordaindu zezakeela. Parks etxera bila joan zitzaion, lagunak autoan eramanda. Ez dut go-goan zenbatekoa zen fidantza.

Ziegara itzuli nintzenerako, han zegoen emakumeak paper-zati txiki zimurtu bat aurkitua zuen eta bere anaien izenak eta telefono-zenbakiak idatziak zituen. Esan zidan goizean goiz deitzeko, seiak inguruan lanera joaten zirelako. Esan nion baietz, deituko niela.

Orduantxe zaindaria etorri zen esanez askatu egingo nindutela; papera, ordea, andrearen eskuetan zegoen oraindik. Presaka atera ninduten, eta emakumea justu nire atzean zegoen. Bazekienez ezingo zuela zeharkatu eskaileraren bukaerako ate sareduna, papera hartu eta eskaileretan behera bota zuen, eta hantxe nire aurre-aurrean erori zen. Jaso egin nuen, eta sakelan gorde.

Durr andrea izan zen bi aldeetan zaindari bana nuela ate sareduna gurutzatu nuenean ikusi nuen lehena. Begiak malkotan zituen, eta hunkitua zirudien; arduratuta egon omen zen zer egingo ote zidaten pentsatzen. Zaindarien ni askatu bezain laster, Durr andreak besoez inguratu ninduen, eta besarkatu eta musu eman zidan ahizpak bagina bezala.

Askok poztu nintzen Nixon jauna eta Durr abokatua ere ikusteaz. Mostradorera joan ginen; nire gauzak jaso nituen, eta epaiketarako data eman zidaten. Nixon jaunak eskatu zuen epaiketa hurrengo astelehenean izan zedila, 1955eko abenduaren 5ean, bera treneko maletazaina zelako eta ordura arte Montgomerytik kanpo ibiliko zelako. Elkarri gauza handirik esan gabe alde egin genuen, baina oso une hunkigarria izan zen. Handik irten arte, ez nintzen ohartu kartzelako egonaldiak eragin zidan nahigabeaz.

Eskaileretan behera gindoazela, Parksekin eta haren lagunekin topo egin genuen; beraz, ni haien autora igo nintzen, eta Nixon guri jarraika etorri zen.

Ettxera iritsi nintzenerako, gaueko bederatzi eta erdiak edo hamarrak ziren. Ama asko poztu zen jada etxean nengoelako, eta zer edo zer behar nuen galdetu zidan. Gose nintzela esan nion (ez dakit zergatik, baina bazkaldu gabe nengoan), eta jateko zerbait prestatu zidan. Durr andrea eta Bertha Butler nire laguna ere han zeuden, eta amari lagundu zioten. Ezin nuen burutik kendu biharamunean lanera joan behar nuela, baina banekien oraindik ere asko luzatuko zela oherako ordua.

Denak haserre zeuden niri gertatutakoagatik, eta esaten zuten ezin zela berriro halakorik gertatu. Nik banekien ez nuela behin ere berriro autobus segregatu bat hartuko, ezta lanera oinez joan behar banuen ere. Baina oraindik ez zitzaidan burutik pasatu ere egin niri gertatutako huraxe izan zitekeen autobus segregatuen kontrako jurisprudentzia ezar zezakeen auzia.

Orduan, Nixon jaunak galdetu zidan ea prest egongo nintzatekeen nire kasua segregazioaren kontrako aurrekari bihurtzeko. Esan nion amarekin eta senarrarekin hitz egin behar nuela. Parks sutan jarri zen. Claudette Colvinen kasuarekin gertatu bezala, uste zuen nire kasuan ere oso zaila izango zela jurisprudentzia ezar zezakeen auzi bat eraikitzeko babes lortzea. Luze eztabaidatu genuen. Azkenean, Parks eta ama alde agertu ziren. Segregazioaren aurka zeuden, baita haren kontra borrokatzeko prest ere. Bestalde, ni auzi judizial ugaritan aritua nintzen, eta ondotxo nekien auzi-jartzailerik gabe ezinezkoa zela epai bat ematea. Beraz, auzi-jartzailea izatea onartu nuen.

BEDERATZI

«BEHAR EZ ZENAREKIN SARTU DIRA»

Nixon jauna ezin pozago jarri zen baietz esan nionean. Nik ez ditut gogoan haren hitz zehatzak, baina, beraren arabera, honela esan zuen: «Jainko maitea, begira zer jarri duen segregazioak nire eskura». Alegia, auzi-jartzaile perfektua nintzen. «Hau gertatu aurretik ere, Rosa Parksek nirekin lan egin zuen hamabi urtez», esan zien geroago kazetariei. «Nik martxan jarritako guztiaren idazkaria izan zen: Ohe Bagoietako Maletazainen Anaidia, NAACP, Alabamako Hautesleen Liga... den-dena. Banekien irmo utsiko ziola. Zintzoa zen, prestua, aitzakiagabea. Pentsak ezin-go zuen haizatu Parksek egindako okerrik, ez iazkorik, ez joan den hilekorik, ez duela bost urtekorik. Ezin zioten horrelakorik egotzi Rosa Parksi».

Ez neukan aurrekari penalik, bizitza osoa lanean emana nuen, eta ez neraman sasiko haur bat sabelean. Zuriek ezin zuten esan hala tratatua izatea merezi nuenik, halakorik merezi izateko zerbait egin nuenik; beltz jaio nintzen, horixe ez besterik.

Bitartean, Fred Gray abokatu beltzak Jo Ann Robinsoni deitu zion nire atxiloketaren berri emateko. Jo Annek Emakumeen Kontseilu Politikoko beste buru batzuekin hitz egin zuen, eta adostu zuten autobusen aurkako boikot bat antolatzea; hurrengo astelehenean abiatuko zen, hau da, abenduaren 5ean, nire epaiketa-egunean. Eta atxilotu minduten egun berean, ostegun gauerdian, Alabama State unibertsitatean elkartu ziren eta 35.000 eskuorri inprimatu zituzten mimeografo batean. Biharamun goizean, Jo Annek bere autoan sartu zituen ikasle batzuek lagunduta, eta hiriko lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxi-



Bezero beltzik gabe, autobusak maiz bidaiari gutxirekin edo batere gabe ibiltzen ziren
Argazkia: Dan Weiner
(Iturria: Sandra Weiner)

lergoko ikastetxe beltz guztietan banatu zituen, hango ikasleek etxera eraman eta beren gurasoei eman ziezazkieten.

Hauxe zioen eskuorriak:

Hau astelehenerako da, 1955eko abenduaren 5erako.

Beste emakume beltz bat atxilotu dute eta ziegan sartu, uko egin diolako autobusean bere jarlekutik altxatzeari eta hura zuri bati uzteari.

Claudette Colvineren kasuaz geroztik, arrazoi hori dela-eta emakume beltz bat atxilotzen duten bigarren aldia da. Nahikoa da.

Beltzok ere badauzkagu eskubideak; izan ere, guk autobusik erabiliko ez bagenu, zerbitzua eten egin behar lukete. Bidaiariaren hiru laurdenak beltzak gara, eta, halere, atxilotu egiten gaituzte, edo zutik joan behar dugu, baita jarleku batzuk hutsik daudenean ere. Atxiloketa horiek geldiarazteko zerbait egiten ez badugu, gehiago etorriko dira. Hurrengoan zu izan zintezke, edo zure alaba, edo zure ama.

Emakume honen kasua astelehenean epaituko dute. Beraz, beltz guztiei eskatzen dizuegu astelehenean autobusik ez hartzeko eta, hala, atxiloke-

taren eta epaiketaren aurka protesta egiteko. Ez joan autobusez lanera, hirigunera, eskolara edo beste inora astelehenean.

Egun batekoagatik, eskolara huts egin dezakezu. Langilea bazara, hartu taxi bat, edo zoaz oinez. Baina, mesedez, haur zein heldu, ez hartu autobusa astelehenean. Arren eskatzen dizuegu astelehenean autobusik ez erabiltzeko.

Ostiral hartan, goizean goiz, Nixon jaunak Ralph David Abernathy agurgarriari deitu zion, zeina Lehen Eliza Baptistako ministroa baitzen. Nixon jaunak erabaki zuen ministro beltzek beste inork baino gehiago egin zezaketela gure komunitatearen barruan babesa mobilizatzeko. Beste hemezortzi ministrori ere deitu zion, eta bilera bat antolatu zuen arrats hartarako. Nixon jaunak maletazain jardun behar zuen Montgomery-Atlanta-New York ibilbidean; beraz, ezin izango zuen bileran parte hartu, baina telefonoz azaldu zion zer nahi zuen haiek egitea.

Gero *Montgomery Advertisereko* Joe Azbell kazetari zuria-ri deitu zion, eta harekin elkartu zen Union Station geralekuan, eskuorria erakusteko. Izan ere, Nixon jaunak lehen orrialdean atera nahi zuen albistea. Joe Azbellek esan zion bere esku zegoena egingo zuela. Nire atxiloketaren berri ere eman zuten egun hartako egunkarian, artikulu txiki batean.

Kartzelan egon ondorengo biharamun goizean, lehen-lehenik ziegako emakumeak paper zimurtu hartan idatzitako telefono-zenbakira deitu nuen. Haren anaia batekin hitz egin nuen, eta deiaren zergatia azaldu nion. «Ados», esan zuen, edo antzeko zerbait. Ez genuen besterik hitz egin. Esan nion beraren arrebak esan zidala gustatuko litzaiokeela anaia bisitan joatea.

Bi egun geroago, emakumea kalean ikusi nuen, Dorsey Streeteko bilera baterantz nindoala. Izan ere, boikota abiatu zenetik, jendea etengabe ari zen elkartzen; gutxi batzuk batzea lortzen zen aldiro, bilera bat egiten zen. Hasieran ez nuen eza-gutu. Apain zihonan, eta oso itxura ona zuen. Garbi zegoen, eta orrazkera polita zeraman. Haren aldamenetik igaro nintzen.

—Kaixo, zer moduz? —esan zidan.— Ez dakizu nor naizen?

—Ez —esan nion.

—Zurekin kartzelan egon zena —esan zidan.

—Hara, pozten naiz zu kalean ikusteaz —esan nion. Ez zitzaidan burutik pasatu izena, helbidea edo telefono-zenbakia

eskatzea, eta aurrera jarraitu nuen. Orduantxe bakarrik ikusi nuen, eta itxura ezin hobea zuen.

Abenduaren 2an, ostirala, agindutako dei hura egin ondoren, Felix Thomas-i deitu nion, zeinak taxi-konpainia bat baitzeraman, eta taxiz joan nintzen lanera. Ez neukan egundo berriro autobusa hartzeko asmorik. John Ball jauna, gizonentzako arropen konponketa-arduraduna Montgomery Fair-en, harri eta zur geratu zen. «Ez nuen uste etorriko zinenik», esan zidan, «uste nuen oraindik ere dardara batean egongo zinela». Eta erantzun nion: «Zergatik jarriko nau dardara batean kartzelak?». Eta gero, bazkaritarako irten orduko, Fred Grayren bulegora joan nintzen.

Maiz egiten nuen hori Fredek Montgomeryn abokatu-bulegoa ireki zuenetik. Nik zerbait erosten nuen bazkaritarako, eta berak etxetik ekartzen zuen. Elkarrekin bazkaltzen genuen, eta batzuetan, bulegotik irten eta enkarguren bat egin behar zuenean, nik erantzuten nituen bulegoko deiak, berriz lanerako garaia iristen zitzaidan arte. Fredek ez zeukan idazkaririk, eta sarri laguntzen nion. Nire atxiloketaren biharamunean, Fred Grayren bulegoak erlauntza bat ematen zuen. Jendea deika ari zen etengabe, eta bulegora ere etortzen ziren, boikotari buruz eta ministroek gauerako antolatu zuten bileraren inguruan galdezka.

Lana amaitutakoan, Dexter Avenueko Eliza Baptistako bilerrara joan nintzen. Atxiloketaren inguruabarrak azaldu nituen, eta gero handik aurrera egin beharrekoari buruzko eztabaida luzeak egon ziren. Ministro batzuek protesta babesteko moduez hitz egin nahi zuten, baina beste batzuek protesta antolatzearen egokitasunaz eztabaidatu nahi zuten. Haietako askok erabaki bat hartu aurretik egin zuten alde bileratik. Nolanahi ere, han geratu ziren ministro gehienek ontzat jo zuten igandeko sermoietan protestari buruz hitz egitea eta astelehen gauean beste bilera bat egitea, erabakitzeko ea protestarekin aurrera jarraitu behar genuen. Ministro batzuek batzorde bat eratu zuten eskuorri motzago bat egiteko. Funtsean, Jo Ann Robinsonek eta Emakumeen Kontseilu Politikoak egindakoaren laburpen bat zen, eta honela zioen:

Abenduaren 5ean, astelehenarekin, ez hartu autobusa lanera, hirigunera, eskolara edo beste inora joateko.

Beste emakume beltz bat atxilotu eta kartzelatu dute, uko egin diolako autobusean bere jarlekua beste inori uzteari.

Astelehenean, ez hartu autobusa lanera, hirigunera, eskolara edo beste inora joateko. Lanera joan behar baduzu, hartu taxi bat, edo joan autoz beste norbaitekin, edo oinez.

Honi buruz gehiago jakiteko, zatoz Holt Streeteko Eliza Baptistako bilerara astelehenean, arratsaldeko 7etan.

Astelehenean, *Montgomery Advertiser*ek Jo Ann Robinsonen eskuorriaren kopia bat argitaratu zuen lehen orrialdean, eta hori oso lagungarria izan zen orririk jaso ez zutenen edo elizara joan ez zirenen artean ere boikotaren berri zabaltzeko. Edonola ere, ezinezkoa zen jakitea protesta arrakastatsua izango ote zen. Eskuorria irakurtzeak edo elizan boikotaren berri izateak ez zuen esan nahi jendeak autobusak erabiliko ez zituenik. Beltzen jabetzako hemezortzi taxi-konpainia zeuden Montgomeryn, eta guztiek onartu zuten autobus-geltokietan geratzea eta hamar zentabo soilik kobratzea, autobusen prezio bera. Nolanahi ere, bidaiariak tokiren bat libre zuen taxi bat etorri arte itxaron beharko zuten. Hori guztia nahikoa ez eta, bazirudien astelehena euria ekarriko zuela.

Zeru ilunez esnatu zen astelehena, baina horrek ez zuen ezer aldatu. Azkenean ere, autobusetako segregazioak beltz gehienak gogaitarazi zituen. Ez zuten autobusik erabili. Autobus-geltokietan zain egon ziren, beltzen jabetzako taxiak noiz agertuko. Batzuk oinez joan ziren, eta beste batzuk autoz, jende gehiagorekin. Horrenbestez, Montgomeryko hiri-autobusak ia hutsik zeuden. Jakina, beltz gutxi batzuek autobusa hartu zuten, batez ere protestaren berri izan ez zutenek. Haietako batzuk autobusetatik aldenarazi zituzten. Hiriko poliziak hitzemana zuen autobusa hartu nahi zuten guztiak babestuko zituela, eta autobusek bina polizia-motor zeramatzaten aldamenean. Alabaina, boikotaren jakitun ez zeuden beltzek uste zuten polizia autobusean ibiltzeagatik atxilotzera joan zitzaizela, ez *babestera*. Eta gero baziren gutxi batzuk inork gogaitzerik nahi ez zutenak; beren autobusak beltzez mukuru zeuden autobus-geltokietatik igaro ahala, burua makurtzen zuten, inork ikus ez zitzaizkan.

Nik ez neukan ideiarik ere hartatik guztitik zer aterako ote zen, baina uste dut guztiak ere zur eta lur geratu ginela ikusita zenbat jendeak erabaki zuen autobusik ez hartzea. Esango nuke denok ezustean harrapatu gintuela. Nixon jaunak esan bezala, «guk geuk ere ez genuen halakorik espero». Ordura arte

beltzek ez zuten sekula hain argi erakutsi zenbateraino ziren hiri-autobusak haien mendeko. Eta, are garrantzitsuagoa dena, Montgomeryko komunitate beltzak ez zuen sekula modu hartan bat egin autobusetako segregazioaren aurka protesta egiteko.

Astelehen hartan ez nintzen lanera joan. Justizia-jauregira joan nintzen, nire epaiketara. Parks ere nirekin etorri zen. Ez nuen denbora askorik eman arropak aukeratzen, baina oso gogoan dut soineko beltz zuzen eta mahuka luzeko bat jantzi nuela, lepoa eta eskumuturrak zuriak zituena; belusezko kape-latxo beltz bat ere eraman nuen, goialdean perlak zituena, eta beroki gris ilun bat. Esku-poltsa beltz bat neraman, eta eskularru zuriak. Ez nengoen bereziki urduri. Banekien zer egin behar nuen.

Jende-andana zegoen justizia-jauregian; hainbeste ziren, non batzuk ezin izan ziren barrura sartu. Parksi ia debekatu zioten justizia-jauregira sartzea, baina nire senarra zela esan zuen, eta sartzen utzi zioten. Halako jendetza zegoen, ia ez zen kalea ikusten. NAACPko Gazte Kontseiluko kide asko ere bazeuden animo-hitzak oihukatzen.

Jendetza haren artean Mary Frances izeneko neska bat zegoen. Oso ahots zolia zuen, eta holaxe entzun nion esaten: «O, hain da gozoa. Behar ez zenarekin sartu dira». Lelo bat balitz bezala esan zuen: «Behar ez zenarekin sartu dira».

Epaiketa ez zen asko luzatu. Autobus-gidaria zen akusazioaren lekuko nagusia. Orduantxe jakin nuen haren izena, eta geroztik zerbait gehiago irakurri dut hari buruz. James P. Blake zuen izena, eta Seman-en jaioa zen, Alabamako Elmore barrutian. Semanetik hegoaldera, kilometro gutxi batzuetara, Equality izeneko herri bat dago; izen bitxia, noski, segregazioa hain bortitza den estatu batean egoteko. Gidaria ni baino bederatzi hilabete eta erdi zaharragoa zen. Hamalau urte zituela utzi zion ikasteari. Emazteak Edna zuen izena. 1939an aldatu ziren Montgomeryra, eta 1942an hasi zen gidari-lanetan Montgomery City Lines autobus-konpainian. Hurrengo urtean armadara deitu zuten, eta European aritu zen soldadu. 1945ean Montgomeryra itzuli zen, baita autobus-gidaritzara ere. Horretan jardun zuen 1972an erretiroa hartu zuen arte.

Akusazioak emakume zuri bat ere deitu zuen lekuko gisa, eta hark esan zuen autobusaren atzealdean jarleku bat libre ze-



Martin Luther King Jr. agurgarria, autobusen aurkako boikoteko bilera jendetsu batean hizketan
Argazkia: Dan Weiner (Iturria: Sandra Weiner)

goela eta uko egin niola toki hartan esertzeari. Hori ez zen egia. Gero jakin nuen J.E. Pierce irakaslea, zeina nirekin aritu baitzen NAACP erakundearen Andy Wrighten aldeko defentsa-batzordean, asko atsekabetu zela emakume haren lekukotza entzutean. Holaxe esan zion Nixon jaunari: «Arraioa, beti aurkituko duzu gezurra esateko prest dagoen emakume zuri bat».

Ez zidaten deitu nire alde deklaratzera. Nire abokatuek, Charles Langford eta Fred Gray, «errugabea» nintzela adierazi zuten, baina ez zuten ni defenditzeko asmorik. Nire auziak aurrerari bat ezarri ahal izateko, nahitaezkoa zen ni erruduntzat jotzea, gero guk zigorraren kontrako apelazioa aurkeztu ahal izateko goragoko auzitegi batean. Izan ere, segregazio-legeak goi-mailako epaitegietan baino ezin ziren aldatu, tokiko auzitegietako epaileek ez zuten ezer egingo egoera aldatzeko. Beraz, segregazio-legeak urratu izanaren errudun jo ninduten eta baldintzapeko askatasuna eman zidaten. Hamar dolarreko isuna jarri zidaten, eta lau dolarreko auzitegi-kostuak ere ordaindu behar izan nituen. Jendetza haserre zegoen, baina ez zen izan protesta antolaturik.

Ez nintzen etxera joan epaiketa amaitu ostean. Hirigunean geratu nintzen. Ezertan laguntzerik banuen jakin nahien. Fred Grayk esan zidan eskertuko lukeela bere bulegoan egotea eta telefonoari kasu egitea. Beraz, horixe egin nuen. Hara iristearekin bat, telefonoa joka hasi zen, jendeak bazuelako jada epaiaren berri. Nik ez nien esaten niri buruz galdezka ari zirenik; deiei erantzun, eta mezuak jaso nituen. Fred itzuli zenean, Nixon jaunak etxera eraman ninduen. Ia ilundua zuen, eta etxera joan beharra neukan, arrats hartan Holt Streeteko Eliza Baptistan izatekoa zen bilerarako prestatzeko.

Egun berean, baina lehenago, Abernathy agurgarriak — zeinak hogeita bederatzi urte baitzituen orduan— eta beste eliz ministro batzuek bilera bat egin zuten, eta erabaki zuten erakunde berri bat sortzea: Montgomery Hobetzeko Elkartea (MIA, Montgomery Improvement Association). Nixon jauna han zen, baita Fred Gray ere. Iruditu zitzaion hobe zela erakunde berri bat sortzea, eta ez zeregin hura jada finkatua zen talde baten esku uztea, hala nola NAACP. Izan ere, NAACP aski ahula zen Alabaman, ez zen masa-erakunde bat; kide gutxi zeuzkan, eta oso zaila zen jende gehiago erakartzea. Bestalde, erakundea alde batera utzi nahi zuten, botere faktikoek esan ez zezaten agerraldi eta indar-erakustaldi haiek kanpoko agitatzaileek sustatzen zituztela. Hori egiten baitzuten zuriak, arazo guztiak kanpoko agitatzaileei egotzi. Ez zuten sinetsi nahi Montgomeryko beltzek beren eskubideen alde borrokatzeko adorea zutenik.

Beraz, esan bezala, arratsalde hartan bilera bat egin zuten, eta erabaki zuten presidente bat aukeratu behar zutela. Eta Martin Luther King Jr. agurgarria hautatu zuten, Dexter Avenueko Eliza Baptistako artzaina.

Nik artean ez nuen ezagutzen King doktorea. 1955eko abuztuan ikusi nuen lehenengoz, hitzaldi bat eman baitzuen NAACPren bilera batean. Nolanahi ere, ez nintzen askotan joaten Dexter Avenueko Eliza Baptistara, zeinak aurrez aurre baitzuen Alabamako Kapitolioaren eraikin zuri handia, bere bandera konfederatuarekin. Geroago jakin nuen King doktorearen emaztea ezagutzen nuela. Ez askorik, noski, baina hark parte hartutako kontzertu batzuetan izana nintzen, abeslaria baitzen. Artzain batekin ezkonduka zegoenik ere ez nekien.

King doktorea berria zen Montgomeryn, eta Abernathy doktorea behin baino gehiagotan saiatu zen hura eskubide zibilen aldeko mugimenduan inplikatzan. Rufus Lewis Dexter Avenueko Eliza Baptistara joaten zen, eta oso iritzi ona zuen King doktoreaz. Rufus Lewisek diskoteka eskusibo bat zeukan, zeinera soilik hautesle errolatuak joan baitzitezkeen. Berak proposatu zuen King doktorea MIAren presidentetzarako.

King doktorea presidente izateak bazuen abantaila bat: iritsi berria zen Montgomeryra eta eskubide zibilen aldeko aktibismora, eta artean ez zuen izan lagun edo etsai handiak egiteko astirik. Nixon jaunari aukera ona iruditu zitzaion. Honela azaldu zien *Eyes on the Prize: America's Civil Rights Years 1954-1965* [Begiak sarian: eskubide zibilen urteak AEBn (1954-1965)] dokumentalaren egileei:

King agurgarria gizon gaztea zen, oso azkarra. Denbora gutxi zeraman inguruan, eta artean ere udal-ordezkariek ez zuten izan haren gainean eskua jartzerik. Eskuarki, gizon gazte bat hirira etorri berria zela jakin ahal... bizkarreko bat ematen zioten, eta haren elizaren edertasuna gores ten zuten. [Esaten zioten,] «Jaun agurgarria, zure janzkiak ez dira egokiak holako edo halako Eliza Baptistaren izenean jarduteko»... eta jantzi berri bat ematen zioten... Kontuz ibili beharra zegoen halakoekin. (73. or.)

Horregatik ziren hain kontserbadoreak Hegoan itzal luzeko beltz ugari. Zuri en mesedeak onartuak zituzten, eta ez zituzten haiek mindu nahi. Horixe ikusten genuen behin eta berriro hautesle-errolan izena emateko egiten genituen kanpainetan. Komunitate afro-amerikarreko jenderik inportanteenetako batzuk ez zeuden errolatuta. Bazen R.R. Pierce izeneko bat, Lowndes barrutikoa, hango eskolako zuzendaria; inork ez zuen lortu hark hautesle-errolan izena ematerik.

Arrats hartan, jendeak bilerara joateko beldurrik izan ez zezan antolatu zuten bilera Holt Streeteko Elizan, auzo beltzaren erdi-erdian. Ez zekiten zenbat jende joango zen, eta espero baino askoz gehiago azaldu ziren. Eliza lepo bete zen, eta ehunka lagun kanpoan geratu ziren; beraz, bozgorailuak jarri zituzten, kanpo-koek ere barruan esaten zena entzun zezaten. Bilera jada hasita zegoen ni iritsi nintzenean, eta, hainbeste jende zegoenez, izugarri kostatu zitzaidan elizara sartzea. Azkenean ere oholtzara iritsi nintzen, eta aulki bat eman zidaten.

Erabakigai nagusi bat zegoen: boikotarekin jarraitu ala ez. Batzuen ustez, hobe genuen bertan behera utzi, artean garaile ginela. Eta ia inork ez zuen uste boikota astearen amaieraz harago luzatu behar genuenik, hau da, beste lau egunetik harago. Arriskutsua zen horrenbeste luzatzea, denok baikenekien zuriek ez zutela onartuko.

Nik akorduan dudanaren arabera, Nixon jaunak hitz egin zuen lehenengo. Arduratuta egongo zen, noski, jendeak boikot luze bat babestuko ez zuen beldurrez. Gogora ekarri zituen urte haiek guztiak, zeinetan ezinezkoa izan baitzen beltz-jendea borrokarako elkartzea. Esan zuen: «Beldur zaretenok, hobe duzue jaka eta kapela hartu eta etxera joan. Honek luze joko du. Gauza bat esan nahi dizuet: urte luzez, behin eta berriro esan izan dut ez dudala nahi nire atzetik datozenek nik urte hauetan guztietan jasan dudan umiliazioa jasatea. Bada, orain bestela pentsatzen dut: nik neuk ere ezagutu nahi dut askatasun hori».

King doktorea sortu berria zen Montgomery Hobetzeko Elkarteko presidente gisa aurkeztu zuten jendaurrean. Hizlari bikaina zen, eta beraren hitzaldiak zirrara ikaragarria eragin zion jendeari. Besteak beste, hauxe esan zuen:

Une batetik aurrera, jendea nekatu egiten da. Arrats honetan hemen elkarturik, gauza bat esan nahi diegu hainbeste urtez txarto tratatu gaituztenei: nekatuta gaude. Nekatuta gaude segregazioaz eta umiliazioaz, nekatuta gaude zapaltzailearen mespretxu basatiaz... Urte luzez, pazientzia ikaragarria erakutsi dugu. Batzuetan, gure anaia zuriei aditzera eman diegu atsegin dugula nola tratatzen gaituzten. Alabaina, gaur libratu egingo gara askatasunera eta justiziara iristen ez den oro-rekin egonarriz jokatzera bultzatzen gaituen pazientziaz. Demokraziaren loriarik handienetako bat zera da, eskubideen alde protestatzeko eskubidea. [...] Ausardiaz protestatzen baduzue, baina baita duintasunez eta maitasun kristauetz ere, etorkizuneko belaunaldietako historiagileek idazteari utziko diote une batez, eta esango dute: «Han bazen jende handi bat, beltz-jendea, zainak asmo eta duintasun berri bat injektatu baitzizkion zibilizazioari zainetan». Hori da gure erronka, gure erantzukizun erabatekoa. (*Eyes on the Prize*, 76. or.)

Jendeak bibaka, txaloka eta amenka hartu zuen. Gero ni aurkeztu ninduten. Aurretik, antolatzaileei galdetu nien ea zerbait esan beharra nuen. Esan zidaten: «Nahikoa izan duzu, eta nahikoa esan duzu. Ez duzu ezer esan beharrik». Beraz, ez nuen hitz egin. Besteek hitz egin zuten. Nik ez nuen hitz egiteko

beharrik sentitzen. Gustura egon nintzen besteei entzuten eta jendearen irrikari begira.

Ondoren, Ralph Abemathy agurgarriak eskaera-zerrenda bat irakurri zuen, Montgomery Hobetzeko Elkartek autobus-konpainiari eta hiriko agintari zuriei aurkeztuko ziena. Hiru eskaera ziren: 1) autobusetan adeitsuki tratatzea; 2) iritsitako ordenaren arabera esertzea, zuriak aurrean eta beltzak atzean; 3) auzo beltzetako ibilbideetarako gidari beltzak kontratatzea. Gero jendeari eskatu zion eskaera horiek bozkatzeko, alegia, zutitzeko boikotarekin aurrera jarraitu nahi bazuten eta eskaera haiek egin nahi bazituzten. Jendea zutitzen hasi zen, banaka edo binaka hasieran, eta ondoren gero eta gehiago, elizako jende guzti-guztia zutik jarri zen arte. Kanpoan, denek poz-pez oihukatzen zuten: «Bai!».

HAMAR

URRATS BAT ASKATASUNERANTZ

Hurrengo ostegunean, abenduak 8, King doktoreak, Fred Gray abokatuak eta beste zenbaitek bilera bat egin zuten Montgomeryko udal-ordezkariekin eta autobus-konpainiakoekin. Hiru eskariak aurkeztu zituzten. Autobus-konpainiakoez ez zuten onartu gidariak adeitasunik gabe jokatzeko zutenik bidaiari beltzekin, eta ez zuten entzun ere egin nahi izan nagusiki beltzek egiten zituzten ibilbideetarako gidari beltzak kontratatze konturik. Halaber esan zuten iritsitako ordenaren arabera esertzeko eskaerak hiriko segregazio-legeak urratzen zituela. Fred Grayk esan zuen hori ez zela egia eta autobus-konpainia berak sistema hura onartzen zuela Alabamako beste hiri batean, Mobilen. Baina ez ziren iritziz aldatu.

Udal-ordezkariek ere ez zuten eskaera bakar bat ere onartu. Ez zuten ezertan amore eman nahi, ezta arrazoizko eskaeren aurrean ere. Beldur zioten beltzekin ezer adosteari.

Boikota aste osoan zehar luzatu zen, baita hurrengoan ere. Inork ez zekien azkenean zenbat iraungo zuen. Batzuek zioten ezin izango zuela aurrera jarraitu, baina bazirudien zuriak zirela hori esaten zutenak, ez gu. Zuriak beren esku zegoen guztia egin zuten boikota bukarazteko.


Polizia beltz-jendearen atzetik hasi zen, autobus-geltokietan beltzen jabetzako taxien zain zeuden beltz-taldeak esesten lehenik, eta mehatxuka ondoren; esaten zuten taxi-gidariak atxilotuko zituztela baldin eta erdialderako bidaia ohiko prezioan kobratzen ez bazuten, berrogeita bost zentabo uste dut, eta ez hamar, autobusek kobratzen zutena. Beste herritar zuri arruntek ere boikotari aurre egin zioten.

Boikotarekin bat egiteak lana galtzea ekarri zion jende askori. Parksek eta biok ere lana galdu genuen, baina ez bata ez bestea ez gintuzten kaleratu. Parksek dimisioa eman zuen aireko armadaren Maxwell Field baseko bizartegian. Izan ere, Armstrong jaunak, haren kontzesio pribatuaren jabe zuriak, debekatu egin zuen «establezimendu honetan autobusen protestari edo Rosa Parksi buruz» berba egitea. Parksek esan zuen ez zegoela prest bere emaztearen izena aipatu ezin zen leku batean lan egiteko.

Niri Montgomery Fair saltoki handiko kontratua eten zidaten 1956ko urtarrilean, baina giza baliabideetako arduradunak ez zidan esan boikotagatik zenik, eta ez dut gustuko frogarik gabe ondorioak ateratzea. Jostundegiko arduradun gazteak bere lantegia ireki zuen kale berean, eta aparteko ordainsaria kobratu ahal izateko besterik ez zen geratuko Eguberriak arte saltokian; gero, urtarrileko lehenengo astetik aurrera, lanaldi osoz arituko zen bere jostundegian. Beraz, azaldu zidatenez, sastrerik gabe geratu zirelako ezin nuen jarraitu han lanean. Jakina, nik banekien josten, jostundegiko lana egiten, baina ez zidaten inoiz eskatu dendara joateko eta gizonezkoen arropen neurriak hartzeko. Eta laguntzaile gisa lanean ari zen gizon gaztea ere ez zen inoiz aritu lan horretan. Hortaz, jostundegia itxi zuten. Bi asteko soldata eta zegokidan aparteko ordainsaria eman zizkidaten, eta etxera joan nintzen.

Uste dut onerako izan zela hein batean, hala ez bainuen pentsatu behar nola egingo nuen lanerako joan-etorria autobusik hartu gabe. Handik aurrera etxean josten hasi nintzen, enkarguzko lanak egiten. Bidaia nahikotxo egiten hasi nintzen, atxilotetari eta boikotari buruzkoak kontatzeko agerraldiak egiten baintuen. Eta MIArentzat ere lan egiten nuen.

MIAko zuzendaritza-batzordeko kide nintzen, eta denetariakoak egiten nituen. Jantziak eta oinetakoak ematen nizkien haien beharrea zeudenei. Izan ere, jantzi eta oinetako pila bat bidaltzen zizkiguten herrialdearen luze-zabaletik. Jende asko zegoen halakoen beharrea, ez zutelako lanik eta ezin zutelako arroparik erosi. Eta lana bazutenek zapata-mordoa urratzen zuten, oinez egiten baitzuten lanerako joan-etorria. Tarte labur batez MIAko Garraio Batzordeko operadore gisa ere jardun nuen.



Boikotak iraun zuen bitartean, beltzek taxi boluntarioen sistema sofistikatu bat jarri zuten martxan, eta E.L. Posey aparkalekua geralekurik inportanteenetako bat zen (Argazkia: Dan Weiner; iturria: Sandra Weiner)

Bidaia osorik kobratzen ez zutela-eta polizia taxi-gidariak atxilotzen hasi zenean, MIAk gidari boluntarioak eskatu zituen. Haietako bat Jo Ann Robinson zen. Elizek dirua bildu zuten eta zenbait kamioneta erosi zituzten. Beltz arruntek ere jarri zuten dirua, baita Montgomeryko zenbait zuri inportantek ere, hala nola Durr familiak. Operadore gisa, nire lana zen nonbaitera joan beharra zutenen deiak jasotzea eta gero auto pribatuetako eta kamionetetako gidariei deitzea, ziurtatzeko bidaiari guztiak jasotzen zituztela zeuden lekuan zeudela.

Eguna joan eguna etorri, nahiko sistema sofistikatua garatu genuen. Hogei auto pribatu eta hamalau kamioneta genuzkan. Bestalde, ibilgailu bat hartzeko eta ibilgailuz aldatzeko hogeita hamabi gune zeuden, eta zerbitzuaren ordutegia goizeko bost eta erdietan hasi eta gaueko hamabi eta erdietan amaitzen



1956ko otsailean laurogeita bederatzita pertsona atxilotu zituzten, «arrazoi justurik edo legezko aitzakiarik gabe» boikota egiteagatik; haietako bat zen Rosa (AP/Wide World Photo)

zen. 30.000 lagun inguru ibiltzen genituen egunero lanerako joan-etorrian.

Eta nola moldatzen ziren lanera eskuarki autobusez joaten ziren gainerakoak? Tira, ez daukat kopuru zehatzik, baina asko eta asko enplegatzaileek eramaten zituzten. Emakume zuri batzuk ez ziren gai neskamerik gabe moldatzeko. Emakume zuri ugarik autoz ekarri eta eramaten zituzten egunero beren neska-me eta sukaldariak. Alkateak holakorik ez egiteko eskatu zien, boikotari laguntzen ziolako. Zioenez, horregatik ari zen arrakastatsua izaten boikota, emakume zuriak beren neskameak etxetik lanera eta lanetik etxera eramaten ari zirelako. Baina emakume zuriek berenean jarraitu zuten. Esaten zuten: «Alkateak nire etxera etorri nahi badu arropak garbitu eta lisatzera, nire hau-

rrak zaintzera eta etxea garbitu eta janaria prestatzera, ados, datorrela. Baina ni ez naiz geratuko neskamerik gabe».

Polizia hura guztia eteten saiatu zen. Gure gidari beltzak etengabe atxilotzen zituzten trafikoko arau-hausterik txikienaren aitzakian. Eta zuriak ere mehatxatzen zituzten, telefono-deien eta eskutitz anonimoen bidez. Eskutitzetan, honelako berbak irakur zitezkeen:

Adiskide hori:

Beheko zerrendan, oraindik ere beren neska beltzak autoz eramaten ari diren pertsona zurietako batzuen izenak daude. Hori eten beharra dago. Pertsona horiei ondo letorkieke zure dei bat jasotzea, egunez zein gauez. Jakinaraz diezaiogun zer irizten diogun haiek beltzak autoz eramateari.

Montgomery Hobetzeko Elkarteak bilerak egiten zituen astelehen eta ostegun gauean, jendeak goiari eusteko eta azken arazoei eta haien konponbideei buruz berba egiteko. Urtarrila iritsi zen. Zuriak gero eta haserreago zeuden. Gogoan dut baten batek esan zuela garai hartan erruz ugaritu zirela Montgomery-ko Ku Klux Klaneko kideak eta Herritar Zuri Kontseilukoak. W.A. Gayle alkatea bera ere Herritar Zuri Kontseiluko kide egin zen, eta, gainera, harro-harro iragarri zuen jendaurrean.

Urtarrilaren amaieran, hiriko hiru udal-agintariak MIAko kide ez ziren hiru eliz ministro beltzekin batzartu ziren. Ministro haiek autobuseko eserlekuak antolatzekeo plan bat onartu zuten; haren arabera, autobusaren aurrealdeko hamar jarleku zurientzat erreserbatuko ziren, atzealdeko hamar beltzentzat, eta gainerakoak bidaiariak iritsi ahala beteko ziren. Udal-ordezkariek planaren berri eman zioten *Montgomery Advertiser* egunkariari, eta igande hartan boikotaren amaiera iragarri zuten titular ikusgarrietan. Baina King doktoreak, Abemathy agurgarriak eta MIAko beste buruzagi batzuek gertatzen ari zenaren berri izan zuten. Larunbat gauean komunitate beltz guztiari jakinarazi zioten gezurra zela egunkarian azalduko zena. Eta igandean ministroek beren eliztarrei esan zieten albiste hura ez zela egia. Beraz, ia den-denak geunden jakinaren ganean, eta astelehe-nean beltz bakan batzuk baino ez ziren ibili autobusetan.

Orduan, Gayle alkateak iragarri zuen ez zuela jarraituko boikotatzaileekin negoziatzen, nahiz eta, bistan zenez, artean ere ez zuen hartarako asmo handirik agertu. Bestalde, alkateak adierazi zuen boikotaren liderrak beltz erradikalen aldra bat

besterik ez zirela. Ordurako jada jendearen kontrako indarkeria handia zegoen. Urtarrilaren amaieran, bonba bat leherrarazi zuten King doktorearen etxean. Bi egun geroago, beste lehegailu bat jarri zuten Nixon jaunaren etxean. Inor ez zen saiatu nire etxean bonba bat zartarazten, baina mehatxuzko dei ugari jaso nituen. Honelakoak esaten zizkidaten: «Zu zara honen guztiaren erruduna. Hil egin behar zintuzkete». Beldurgarria zen halako deiak jasotzea, eta asko kezkatzen nintzen telefonoa amak hartzen bazuen eta horrelako dei bat izaten bazen.

Otsailaren hasieran, Fred Grayk demanda bat aurkeztu zuen AEBko Distritu Auzitegian, alegatuz segregazioa konstituzioaren aurkakoa zela. Lehenagotik nire helegitea teknizismo batengatik baztertua zuten, eta, beraz, baita nire zigorra berretsia ere. Hortaz, demanda haren xedea zen gure jarrera gogortzea. Izan ere, udalbatzak, autobus-konpainiak eta alkateak ez zuten ezertan amore ematen, ez zuten onartzen ezta autobus-gidariak desatseginak zirenik ere; eta Fred Grayk autobusen segregazio-sistema osoaren kontra jo nahi zuen, eta Auzitegi Gorenera iritsi. Clifford Durr hari laguntzeko prest azaldu zen, eta, esan bezala, demanda bat jarri zuten autobusetan tratu txarrak jasan zituzten bost emakumeren izenean. Bost horien artetik, bi bakarrik atxilotu gintuzten: Claudette Colvin eta ni neu. Atxilotu ez zituzten hiruren artean Claudette Colvinen ama zegoen.

Bitartean, autobus-konpainia dirua galtzen ari zen boikotarekin. Egunero-egunero, bidaiari zuri bat edo bi zeramaten autobusak igarotzen ziren bata bestearen atzetik. Gero autobusak jartzeari utzi zioten. Boikotak erdialdeko negozioei ere min egiten zien, eta zenbait negozio-gizon, Montgomeryko Gizonak izenpean bilduak, beren kabuz MIArekin negoziatzen saiatu ziren. Baina bilera haiek ez zuten ezer ekarri.

Otsailaren erdialdean, abokatu zurien talde bat boikotak debekatzen zituen lege zahar batekin agertu zen, eta otsailaren 21ean epaimahai handi batek laurogeita bederatzi salaketa jarri zituen gutako zenbaiten aurka: King doktorea, beste hogeit hamar ministro baino gehiago, MIAko buruzagiak eta beste zenbait herritar. Neu ere inputatu ninduten berriro.

Hatz-markak hartu zizkiguten guztioi. Egunkarietako argazkilariek salaketen berri izan zuten, eta hartz-markak hartzen zizkiguten unea argazkitan jaso nahi izan zuten. Nirea,



1956ko martxoan, E.D. Nixonek Rosarekin batera igo zituen justizia-jauregiko eskailerak boikotaren epaiketara bidean (AP/Wide World Photo)

adibidez, *The New York Times*en lehen orrialdean argitaratu zuten. Geroagoko urteetan, jendeak argazki hura erabili zuen nire lehen atxilotetarena zelakoan. MIAk guztion fidantzak ordaindu zituen; aske utzi gintuzten, eta etxera joan ginen, epaiketaren zain. Nire senarra lekukoa izatekoa zen, baita gure parean bizi zen emakumea ere. Haren senarra tiroz hil zuten 1950eko abuztuan, soldadutzatik etxera etorri eta hurrengo egunean.

Hilliard Brooks zuen izena, eta hirigunerako autobusa hartu zuen. Mozkor egotea eta desordena publikoa eragitea leporatu zioten, eta polizia tiroz hil zuen. Ez dakit une hartan uniformeak jantzita zeraman, baina badakit zuriek ez zutela atsegin beterrano beltzek uniformeak janzterik.

Epaiketak martxoan abiatu ziren, eta King doktorea epaitu zuten lehenik. Hilaren 19a zen, eta justizia-jauregira gerturatu nintzen. Jauregi ingurua jendez gainezka zegoen. Barrura sartzen saiatu nintzen, baina, jartzeko tokirik ezean, ez zioten inori sartzen uzten; ez zioten inori utzi lurrian esertzen edo pasilloetan zutik egoten. Lekuko pila bat joan ziren King doktorearen alde deklaratzera, eta autobusetan bete beharreko baldintzen berri eman zuten. Gure auzoko emakumeari ere, senarra tiroz hil ziotenari, galdetu zioten ea autobusez ibiltzen zen, eta ezetz erantzun zuen. Orduan, jakin nahi izan zuten zergatik utzi zion autobusez ibiltzeari, eta esan zuen poliziak senarra autobus batean tiroz hil zuenetik ez zuela inoiz autobusik hartzen. Guztiek zuten arrazoi pertsonalen bat. Emakume bat deklaratzera irten zen, eta luze jardun zuen hizketan. Moztu egin zuten, eta gaitzitu zitzaion. Esan zuen: «Gehiago ere badut esateko». Denek hitz egin nahi zuten.

King doktorea errudun jo zuten. Zigorra jarri zioten: 500 dolarreko isuna edo urtebeteko gatibu-lana. Ez zuen egin ez bata ez bestea; helegitea jarri genuen, baita irabazi ere. Bera bakarrik epaitu zuten. Halere, Montgomeryko Udalak nola tratatu gintuen ikusita, King doktoreak inoiz baino argiago zuen boikotarekin aurrrera egin behar genuela. Jendea gogoz zegoen. Udaberri osoan zehar, oinez ibili ginen eta autoak partekatu genituen hirian aurrrera eta atzera mugitzeko.

Ordurako jada boikotak Montgomerytik kanpo ere piztua zuen interes handia, komunikabideek arreta handia eskaintzen ziotelako. Nire bizipenen berri ematera joateko gonbidapena jaso nuen zenbait eliza, eskola eta erakundetatik. Ahal nuen guztia egin nuen —bidaia-gastuetarako dirua onartzen nuen; ez, ordea, hitzaldiak ordaintzea—, eta horrek kamionetak eta beste gastu batzuk ordaintzeko dirua lortzen lagundu zigun. Ia udaberri osoa igaro nuen agerraldiak egiten eta hitzaldiak ematen. Parks nire segurtasunak kezkatzen zuen, baina, egia esan, ez zitzaidan egokitu gorabehera desatseginik.

New Yorkera ere joan nintzen lehen aldiz, Myles Horton-ek gonbitatuta. Horton jauna Monteagle Tennesseeko Highlander Herri Eskolaren sortzailea zen. Emaztea hil berria zuen, eta hiriko zenbait bileratan berarekin batera parte hartzeko eskatu zidan. Charlotte eta Stewart Meacham izeneko bikote kuakero



Rosa Highlander Herri Eskolan, Leona McCauley amarekin (eskuinean) eta Septima Clarkekin (erdian) (Iturria: Rosa Parks)

baten etxean geratu nintzen. Hiria erakutsi zidaten, atsegina zen. Haien semea oporretatik itzuli zenean, gela bat hartu nuen Lower East Side aldeko Henry Street auzo-etxean. Gure herri-mugimenduarekin zerikusia zuten zenbait bileratara joan ginen, eta jendeak hitz egiteko eskatzen zidan. Bestalde, Montgomeryko NAACPko ordezkaria nintzenez, ordezkari nazionalekin bildu nintzen zenbait aldiz.

Bileretako bat NAACPren urteroko batzar nazionala izan zen, San Franciscon. Gogoan dut New Yorketik joan nintzela hara. Denbora asko neraman etxetik kanpo, eta ezin izan nuen lorik egin; beraz, nerbioak hala-hola nituen. Nolanahi ere, elkarrizketa bat egin behar nuen San Franciscoko egunkari bateko

kazetari batekin. Haren galderei ahalik eta ondoen erantzuten saiatzen ari nintzen, baina bistan zen ez nuela esaten berak entzun nahi zuena, edo nik al dakit. Kazetari zuri bat zen, eta gogoan dut elkarrizketa hasi berritan honako hau esan zidala: «Ez begiratu horrela, hain artez». Nire ustez, normal ari nintzaion begira. Oso urduri jarri ninduen. Orduan, harrokeriaz esan zidan: «Erraiak arakatuko dizkizut, eta zure grinaren jatorria aurkituko dut». Beldurtu egin nahi ninduen, bai eta lortu ere.

Katilu eta platertxo bana ekarri zizkidaten, tea edaten ari nintzen itxura egiteko kazetariarekin batera etorri zen argazkilariauren aurrean, eta gogoan dut katiluak ere tintin egiten zuela, hainbestekoa zen nire dardara. Gizona nazkagarri portatzen ari zen, eta ni ahal bezain adeitsua eta atsegina izaten saiatzen ari nintzen. Bat-batean, baina, ezin izan nion gehiago eutsi. Neure onetik atera nintzen. Oihuka hasi nintzen, eta negarrari eman nion.

Kazetariak alde egin zuen, bere kontuekin jarraitzeko. Ez zidan inork kasurik egin. Hantxe eserita geratu nintzen, negarez. Eta ez dut sekula ahaztuko zer goxo gerturatu zitzaidan Roy Wilkins, NAACPren burua. Nire ondoan eseri eta hantxe egon zen, hitz-erdi bat ere esan gabe. Beso batez sorbaldak inguratu zizkidan, eta kolpetxo batzuk eman zizkidan bizkarrean. Lasaitu egin ninduen.

Ez dakit zergatik lehertu nintzen hala. Baten batek kontatu zidan Atherine Lucyk ere arazoak izan zituela osorik eusteko garai batean, beltzek ere Alabamako Unibertsitatean ikasteko aukera izan zezaten borrokan aritu zenean. Bere senetik irten omen zen. Ez dakit berari maiz pasatzen zitzaion, niri aldi hartan soilik gertatu zitzaidan.

Ez nengoen ohituta halako arreta jasotzera. Garai batean, oso gogaikarria zitzaidan jendeak ni beti gertaera harekin lotzea. Gero ohartu nintzen *gertaera hark* eragin zuela hainbeste jende babestea Montgomeryko autobusen kontrako boikota.

Ekainean, hiru epaileko Distritu Auzitegi federal berezi batek autobusetako segregazioaren aurkako gure demandaren aldeko epaia eman zuen, bi epaileren aldeko botoarekin eta baten kontrakoarekin. Alabaina, udal-ordezkariek helegitea jarri zuten AEBko Auzitegi Gorenean, eta bagenekien hark zenbait hilabete beharko zituela epaia emateko.

Uda iritsi zen, eta ni Montgomeryra itzuli nintzen. Oraindik ere ez genituen autobusak erabiltzen. Zuriak boikota zapuzten saiatu ziren, elizaren ibilgailuei aseguru ukatuz. Eliza guztiek zeuzkaten kamionetak, eta beren izenak jartzen zizkieten aldamenetan. Legez kanpokoa zen asegururik gabe ibiltzea. Konpainia berri baten aseguru lortzen zuten aldiro, bat-batean poliza indargabetzen zieten. Nolanahi ere, King doktorea Atlantako aseguru-agente beltz batekin harremanetan jarri zen; T.M. Alexander zuen izena, eta hark zera lortu zuen, Londreseko Lloyds-ek, Ingalaterrako aseguru-konpainia handiak, elizaren ibilgailuak aseguratzea.

Ondoren, Gayle alkateak epaitegietara jo zuen. Beltzak kale-kantoietan biltzen ziren elizen ibilgailuen zain zeuden bitartean, eta berak hori eragotziko zuen agindu bat lortu nahi zuen. Alkateak zioenez, «ordena publikoa asaldatzen zuten», ozen abesten zutelako eta ingurukoak gogaitzen zituztelako. Epaitegi batek agindu hori ematea lortu zuen, baina egun berean beste albiste bat ere izan genuen, AEBko Auzitegi Gorenak gure aldeko epaia eman baitzuen: Montgomeryko autobusetako segregazioa konstituzioaren aurkakoa zen.

Hori 1956ko azaroaren 13an izan zen. King doktoreak bilera jendetsu bat antolatu zuen albistearen berri emateko, eta hura poza gurea. Nolanahi ere, MIAk ez zion jendeari eskatu berri autobusak erabiltzen hasteko. Beste hilabete bat-edo igaroko zen Auzitegi Gorenak agindu hura ofizialki argitaratu arte; beraz, ez genuen autobusik erabiliko agindua ofiziala izan arte.

Bitartean, abenduko egun batzuk Highlander Herri Eskolan igarotzeko gonbita jaso nuen. Sasoi hartan, Clinton Tennesseeko sei ikasle beltz unibertsitateak misto bihurtzeko ahaleaginean ari ziren; haiek unibertsitate zurietan ikasten zuten, eta babesgabe zeuden, presio eta arrisku handiaren pean. Ziurrenik amore ematekotan egongo ziren, eta Highlanderreko jendeak Montea-glera gonbidatu zituen; eta ni ere gonbidatu ninduten, haiek adoretzen saiatu nendin borrokarekin aurrera jarraitu zezaten. Orduko hartan Nixon jauna ere etorri zen, eta nik ikasleekin hitz egin nuen. Bazen mutil oso gazte bat, ez dut gogoan haren izena; kontatu zuen mutil zuri batzuek gainera jauzi egin ziotela eta, lurrean zetzala, hantxe ondo oratuta eduki zutela eta orduan berak aiztoa atera zuela eta bati ebaki bat egin ziola eskumutu-

rrean eta ihes egitea lortu zuela. Halere, ikastetxe berean jarraitu zuen. Highlanderren denbora batez egon ostean, Urteberria igaro ondoren berriz hara itzultzekotan geratu ziren.

Aldi hartan ama ere eraman nuen nirekin Highlanderre-
ra, eta pozarren ibili zen. Nolanahi ere, Highlanderrekoek nahi zuten ni hara aldatzea eta eurekin batera lan egitea, Septima Poinsette Clarke bezala, eta amak ezetz esan zuen. Ez zuen «zuriak besterik ikusten ez dudan leku batean» egon nahi. Beraz, hortxe amaitu zen. Dena den, une hartan ezinezkoa nuen Montgomery utzi eta beste norabait aldatzea.

Nolanahi ere, bisitan joaten nintzen Highlanderrera. Behin Robert Graetz agurgarriarekin joan nintzen; Montgomeryko ministro luterano zuri bat zen, hura ere boikotaren alde jardundakoa. Gogoratzen naiz aldi hartan Highlanderretik alde egin behar izan genuela; telefonoz deitu zioten, gaztigitzeko beraren etxean bonba bat leherrarazi zutela. Geroago, 1957ko urtarrilean, berriz ere lehergailu bat jarri zioten etxean. Eta beste bonbat bat ere zartarazi zuten, orduko hura Ralph Abernathy agurgarriaren etxean, zeina orduan King doktorearen laguntzailea baitzen. Eta lehergailuak jarri zituzten hiru elizatan ere: Lehen Eliza Baptistetan eta Bell Streeteko eta Hutchinson Streeteko eliza baptistetan.

Urte berean, Highlander Herri Eskolaren hogeita bosgarren urteurreneko ospakizunera joan nintzen King doktorearekin batera.

Handik berriz Montgomeryra itzuli ginen. AEBko Auzitegi Gorenaren agindua abenduaren 20an argitaratu zen, eta hurrengo egunean berriz autobusetara itzuli ginen. Orotara, boikotak urtebete baino gehiago iraun zuen. King doktoreak, Abernathy agurgarriak, Nixon jaunak eta Glen Smileyk —boikota babestu zuen Montgomeryko zuri bakanetako bat— ikuskizun handia bihurtu zuten Montgomeryko lehen autobus mistoan bidaiatzeko unea. Liburu batzuetan jartzen du ni ere haiekin batera egon nintzela, baina ez da egia. Etxean geratzea eta autobusa ez hartzea erabaki nuen, ama ondoezik zegoelako. Halere, gure helbidearen berri emango zien norbaitek Look aldizkariko hiru kazetariri, zeren etxean azaldu baitziren eta hantxe zain egon, nik nire egitekoak —amari gosaria atondu edo— bukatu nituen arte. Orduan kalerako prestatu nintzen; kazetariekin batera



Rosa Montgomeryko autobus baten aurreko eserlekuan eseri zen argazkirako 1956ko abenduaren 21ean, autobusak misto bihurtu ziren egunean (UPI/Bettman)

autoan sartu, eta hirigunera joan ginen. Argazkiak egin nahi zituztenez, autobusetan gora eta behera ibili behar izan nuen.

Hartu nuen autobusetako baten gidaria James Blake zen, ni atxiloarazi ninduen. Berak ez zuen inon aipatua izan nahi, eta ni ere ez nengoen batere gustura. Egia esan, nahiago nukeen halakorik egin izan ez banu. Uste dut bi autobus desberdin hartu nituela, eta argazki ugari egin zituzten aldiro, nahikoa iritzi zioten arte. Kazetaria nire atzean eseri zen argazki guztietan.

James Blakek ez du inoiz kontatu zer sentitu zuen berak gertaera haien guztien aurrean. Batzuetan, autobusen aurkako boikotaren urteurrenean-eta, kazetariak hura elkarrizketatzen saiatu izan dira, baina, nik dakidala, ez dute sekula lortu. Go-

goan dut 1970eko hamarkadan nonbait irakurri nuela kazetari bat saiatu zela hura elkarrizketatzen eta haren emazteak esan zuela senarra gaixorik zegoela eta ez zuela «anabasa hartaz» hitz egin nahi. Susmoa dut ez zuela inoiz aldatu afro-amerikarrez zuen jarrera eta jarraitzen zuela pentsatzen tratu hura merezi genuela. Askok ez dute aldatu nahi izaten, horrexegatik zen hain garrantzitsua legeak gutxienez aldatzea; hala, behinik behin, babes pixka bat izango genuen.

Montgomeryko autobusak misto bihurtzeko prozesua ez zen erraza izan. Frankotiratzaileak zebiltzan autobusei tiroka, eta Udalak egun bukaerako ordutegiak mugatu zituen. Autobusek debekatua zuten arratsaldeko bostetatik aurrera ibiltzea; hortaz, bederatzietatik bostetara lanean aritzen zirenek ez zuten autobusez etxeratzerik. Zuri-talde bat zurientzat bakarrik izango zen autobus-linea bat sortzen ahalegindu zen, baina saiakera hark ez zuen aurrera egin. Eta, lehenago esan bezala, bonbak leherrarazi zituzten eliz ministro batzuen etxeetan eta elizetan. Azkenean, baina, indarkeria-zantzu gehienak desagertu ziren. Beldurrak ez zituen beltzak autobusetara igoarazi boikotaren garaian, eta ez zituen orain haietatik jaitsaraziko.

Beste hiri batzuetako afro-amerikarrak —hala nola Birmingham Alabamakoak eta Tallahassee Floridakoak— autobus segregatuen aurkako boikotak egiten hasi ziren. Martxan zen eskubide zibilen aldeko ekintza zuzeneko mugimendua.

HAMAIKA

DETROITERA GOAZ

Autobusen aurkako boikota amaitu ondoren, ez nintzen luzaroan geratu Montgomeryn. Anaiak bizitokiz aldatzeko kontuekin lagundu zigun, ez baitzuen uste Alabaman seguru geundenik. Egia esan, bazen gure aurkako nolabaiteko jazarpena.

Auzitegi Gorenaren erabakiaren ondoren ere, mehatxuzko deiak jasotzen jarraitu genuen. Denboraldi batez, senarrak pistola bat izaten zuen beti eskura lotarakoan. Bestalde, Bertha Butler Montgomeryko lagun minak kontaktzen duenez, batzuetan gure amak telefonoz deitzen zion gauez eta luzaz jarduten zuten, linea okupatuta edukitzeko eta gorrotozko deirik ez jasotzeko. Behin, kalean nengoela, gizon zuri batek ezagutu egin ninduen, eta gauza oso desatseginak esan zizkidan. Gainera, nire argazkia egunkarietan agertu zen, eta ez zitzaidan erraza izango Montgomeryko negozio zuri batean lana lortzea.

Anaia Detroitera aldatua zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eta geroztik ez zen sekula Alabamara itzuli. Ezta behin ere. Gu Detroitera aldatzeko zereginetan laguntzeko prest agertu zen, eta, beraz, haraxe joango ginen 1957an. Ordurako jada ia guztiz desagertuak ziren mehatxuzko deiak eta jazarpena, baina, halere, iruditzen zitzaigun Detroiten hobeto biziko ginela.

Joan aurreko egunean, Montgomeryko lagunek gure omenezko ekitaldi bat antolatu zuten, eta diru pixka bat bildu zuten, agur-opari gisa emateko. Zortziehun dolar inguru ziren, eta zinez eskertu genuen, ez baikeneukan diru askorik. Sylvester anaiak apartamentu bat alokatu zuen guretzat Detroiten, hain

justu ere Euclid Avenueko eraikin bateko goi-solairu batean, eta hara aldatu ginen senarra, ama eta hirurok.

Oraindik ere segitzen nuen batetik bestera bidaiatzen eta agerraldiak egiten. Detroytera aldatu eta hilabete ingurura, Boston Massachusetsera joan nintzen. Han nengoela, Hampton Institutuko lehendakaria ezagutu nuen; beltzentzako fakultate bat zen, eta Virginiako Hampton hirian zegoen. Lehendakariak harreragile-lanpostua eskaini zidan Holly Tree Inn-en; campuseko ikasleen egoitza zen, baita bisitarien ostatua ere. Ni campusekoak ez ziren bisitariez arduratuko nintzen, orobat han bizi ziren gizon eta emakumeez, hau da, irakasle eta bestelako langileez. Lau emakumek egun erdiz lan egiten zuten logelak garbitzen, eta ni haien arduraduna izango nintzen. Beraz, Hamptoneko lanpostua onartu nuen, pentsatuz senararentzat eta amarentzat ere izango zutela leku bat, baina asmo horrek ez zuen aurrera egin, eta haiek Detroyten geratu ziren. Gutako inor ez geunden ondo, nahiz eta Parksi polito zihoakion eta bizargile-titulua atera zuen ni kanpoan nintzen bitartean. Michigan estatuan bizargile jarduteko, ezinbestekoa zen titulua ateratzea. Lana lortu zuen bizargin-eskola batean, eta irakasletzan eta mantentze-lanetan aritzen zen. Ni bakarrik sentitzen nintzen, eta ez nuen gogoko familiarengandik urrun egotea.

Hortaz, Hampton Institutuan nengoen 1958ko udan, Martin Luther King Jr. New Yorken sastakatu zutenean. Gogoan dut gertakariaren berri izan nuenean haren lehen liburu irakurtzen ari nintzela, *Stride Toward Freedom* [Urrats bat askatasunerantz], berak propio niretzat sinatutako alea bainekuan. Eta, hain justu ere, egun hartan liburu haren aleak sinatzen ari zen New Yorkeko liburu-denda batean, eta burutik egindako emakume bat berarengana hurbildu eta aiztoa sartu zion. Ospitalean zegoen, oso larri.

Kolpe latza hartu nuen. Negarrari eman nion, neure onetik aterata. Gero itzelezko arindua hartu nuen ebakuntza ondo atera zela eta King doktorea onik zegoela jakin nuenean.

Ni han bakarrik egonda, oso zaila gertatu zitzaidan horri guztiari aurre egitea. Gainera, Hamptonen nengoelarik, osasunez ere ez nenbilen erabat ondo. Eguberrietako oporretan Detroytera itzuli nintzen, eta medikuarenera joan nintzen ebakuntza txiki bat egitera. Hamptonen galdezka ibilia nintzen hirurontzako



Selmatik Montgomeryrako ibilaldia. Ezkerretik eskuinera: Rosa, Ralph David Abernathy agurgarria, Juanita Abernathy andrea, Ralph Bunche enbaxadorea, Martin Luther King Jr. doktorea, Jean Young andrea, Coretta Scott King andrea eta L.V. Reese agurgarria (Argazkia: Elaine Tomlin; iturria: SCLC)

bizileku bat lortzeko eta senarrari lana bilatzeko beltzentzako hango bizartegian, baina ez nuen lortu ez bata ez bestea. Holly Tree Inn-en alboko eraikinean bazen apartamentu bat; hura erabiltzeko baimena eskatu nuen, baina ez zidaten onartu. Ez zidaten azalpenik eman, baina uste dut irakasleentzat gorde nahi zutela.

Senarrak eta amak nire falta ikaragarria zuten, eta niri oso gogorra egiten zitzaidan Hamptonen ni bakarrik egotea, beti

haien kezka. Hamptonekoek zinez nahi zuten nik han jarraitzea, eta niri ez zitzaidan erraza handik alde egitea, lana atsegin nuelako eta campusa zoragarria zelako. Baina Detroitera itzuli beharra nuela sentitzen nuen.

Halaxe egin nuen. Hasieran lagun jostun baten etxean lan egin nuen, eta gero lana lortu nuen hiriaren mendebaldeko fabrika txiki batean. 1961ean, Virginia Parkeko behe-solairuko apartamentu batera aldatu ginen.

Oraindik ere asko bidaiatu behar izaten nuen autobusen aurkako boikotari buruz hitz egiteko, baita giza eskubideen aldeko mugimenduari buruz ere, garai hartan bizi-bizi baitzegoen. King doktoreak eta beste ministro batzuek Hegoaldeko Lidergo Kristauren Batzarra (SCLC, Southern Christian Leadership Conference) eratua zuten, Hegoko bizimoduari eragiten zioten beste arlo batzuetako segregazioaren aurka borrokatzeko. Hortaz, noizean behin Hegora itzultzen nintzen SCLCren batzarretan parte hartzera, eta hantxe izaten nintzen, halaber, protesta edo manifestazio handiren bat zegoen aldiro.

Gogoan dut SCLCren batzar zehatz bat. Alabamako Birminghamen egin genuen, alegia, segregaziorik handieneko hiri batean —hantxe leherrarazi zuten zuriek eliza bat, eta lau neskatila beltz hil—. Ni jendartean eserita nengoan, agertokitik gertu. King doktorea batzarrari amaiera ematen ari zen, zenbait kontu iragartzen. Bat-batean, gizon zuri bat jendartetik atera eta agertokira igo zen, eta King doktoreari ukabilkada bat eman zion aurpegian, halako indarrez non bira-erdi emanarazi baitzion. Denok ezustean harrapatu gintuen, eta, inork ezer egiterik izan baino lehen, gizona berriz King doktoreari joka ari zen, hura bere burua kolpeetatik babesten saiatzen ari zen bitartean. Eta orduan, ustekabean, King doktorea erasotzailearengana biratu zen eta bi eskuak jaitsi zituen. Une batez gizon zuria zur eta lur geratu zen King doktoreari begira, eta orduantxe Wyatt Tee Walker artzain agurgarria eta beste batzuk bien artean sartu ziren.

King doktoreak oihuka esan zuen: «Utzi gizona bakean! Otoitz egin dezagun beraren alde». Eta gizonari ahopean zerbait esaten hasi zen, eta halaxe hitz egiten jarraitu zuen, gizona apurka agertokitik atera zuten arte. Bazirudien beste haiei gehiago ardura zitzaiea gizona lasaitzea King doktorea zaintzea baino.

Agertokiaren atzealdera joan nintzen, eta bi aspirina eta Coca Cola bat eskaini nizkion, buruko minerako nire erremedioa, berak zapi batean bildutako izotza aurpegiaren kontra jartzen zuen bitartean. Geroago batzarkideei esan zien gizonarekin hitz egiteko aukera izan zuela eta AEBko Alderdi Naziko kidea zela. AEBko Alderdi Nazia oso erakunde arrazista da. Nolanahi ere, King doktoreak uko egin zion gizona justiziaren aurrean salatzeari. Gutako askoren ustez, King doktorearen jarrera hark gauza bat erakusten zuen: hainbeste sinesten zuen indarkeriarik ezan, ezen sinesmen hori irmoagoa baitzen bere burua eraso baitetik babesteko sena baino.

1963ko Washingtongo manifestazioan ere izan nintzen, eskubide zibilen aldeko lege federalak exijitzeko. Emakumeoi ez ziguten utzi zeregin garrantzitsuetan parte hartzen. Manifestazioa antolatzen ari zen batzordeak ez zuen nahi Coretta Scott King eta gainerako gizon buruzagien emazteak senarrekin batera agertzea, eta aparteko manifestazio bat antolatu zuten haientzat. Bestalde, ez zuen emakume bakar batek ere hitz egin amaierako ekitaldian, non King doktoreak «Amets bat dut» hitzaldi ezaguna egin baitzuen Lincoln Memorialaren aurrean.

Nolanahi ere, «Emakumeei gorazarre» izeneko ekitaldia egin zen. Manifestazioaren antolatzaileetako bat A. Philip Randolph zen, zeina Ohe Bagoietako Maletazainen Anaidiaren sortzailea baitzen; Randolph jaunak borrokan parte hartu zuten emakume batzuk aurkeztu zituen, ni ere tartean nintzela. Eta Josephine Baker ere bazen han, dantzari eta abeslari ederra, zeinak bizitza gehiena Europan igaro baitzuen baina AEBn egon zen bitartean eskubide-berdintasunaren alde agertu baitzen; ordukoan ere, manifestazioan parte hartzeko etorri zen Paristik AEBra, hegazkinez. Marian Andersonnek *He's Got the Whole World in His Hands* abestu zuen, eta Mahalia Jacksonek *I Been 'Buked and I Been Scorned*. Akorduan dudanez, abestu ez genuenok ezin izan genuen ezer esan, soilik Lena Horne-k; aurkeztu zutenean, zutik jarri eta ozenki aldarrikatu zuen: «As-ka-ta-su-na!». Gaur egun, emakumeek ez lukete onartuko inork modu hartan bigarren mailan uztea, baina sasoi hartan emakumeen eskubideen aldeko borroka ez zen oraindik hain ezaguna.

Hurrengo hilabetean SCLCren zazpigarren urteko baztarrean hitz egin nuen, Richmond Virginian. Beste hizlari

batzuek hainbat hiritan sortzen ari ziren eskubide zibilen aldeko mugimenduen berri eman zuten. Ordurako jada beren artean antolatzen eta segregazioaren aurkako manifestazioak egiten ari ziren Hego osoko hiri eta herrietako beltzak.

Eskubide zibilen aldeko mugimendua ondorio sakonak izaten ari zen. Eta Hegoko zuri askoren bihotzak eta pentsaerak aldatu ez bazituen ere, aldaketa handia eragin zien Washington DCko politikariei. Garai hartan Lyndon Baines Johnson zen presidentea, Texasen jaio eta hazia. Berak bultzatu zuen 1964ko Eskubide Zibilen Legea, Gerra Zibilaren ondoko Berreraikitzeaz geroztiko legerik zabalena. Lege haren helburua zen botoa emateko eta leku publikoak erabiltzeko eskubidea bermatzea beltzei, eta gobernu federalari agintzen zion legea hausten zuen oro auzitara eramateko. Legea ofizialki onartzeko sinadura-ekitaldian, Johnson presidentea honela mintzatu zen: «Irabaziko dugu». Hitz horiek *We Shall Overcome* abestitik hartuak ziren, zeina hainbestetan kantatu baikenuen Montgomeryn autobusen aurkako boikotean; eta eskubide zibilen aldeko aktibista beltz eta zuriek ere behin eta berriro kantatu zuten haren osteko borrokan.

1964ko Eskubide Zibilen Legeak ez zituen gure arazo guztiak konpondu, baina nolabaiteko babes eman zigun beltzoi; eta orobat eman zigun gure aurkako tratu bidegabeengatik kalte-ordaina jasotzeko aukera. Alabaina, oraindik ere baziren eskuratu beharreko eskubide gehiago, eta eskubide zibilen aldeko mugimenduak aurrera jarraitu zuen.

1965. urtearen hasieran, King doktoreak eta SCLCk erabaki zuten manifestazioen bidezko kanpaina bat egitea Alabamako Selma herrian, ez baitzuten lortzen hango beltzek hautesle-eroldan izena ematea. Erabaki zuten kartzelak betetzea eta, horretarako, beren buruak nahita atxilotaraztea; horrek, noski, hango polizia haserrarazi zuen. Otsailaren hasieran, Selmako Jim Clark sheriffak eta haren gizonak herrigunean manifestatzen ari ziren 150 bat ume inguratu zituzten. Hala zeudela, herritik kanpora bideratu zituzten; eta, abereak bailiran, landako errepide-bazterretik trostan ibilarazi zituzten eta erritmoari eustera behartu, akuilu elektrikoak baliatuta. Irudi haiek telebistako albistegietan eman zituzten, eta horrek eskubide zibilen aldeko aktibistak haserrarazi zituen. Era berean, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren aldeko babes hedatu zuen herrialde osoko



Lyndon B. Johnson presidentea (eskuinean), eta, ezkerretik eskuinera, Walter Fauntroy kongresukidea, Martin Luther King Jr. doktorea eta Ralph David Abernathy agurgarria, Boto Eskubidearen Legearen berrespena sinatu ondoren
Argazkia: Y.R. Okamoto
(Iturria: LBJ Liburutegia)

zurien artean. Bazter orotako jendea Selmara joaten hasi zen, eta King doktoreak erabaki zuen manifestazio jendetsu bat egi-
tea Selmatik Montgomeryra, 80 kilometro inguruko ibilaldi bat.
Data ere jarri zuten: 1965eko martxoaren 7a.

SCLCk ibilaldia egiteko baimena eskatu zuen, eta hauxe
lortu zuen: bi hiriak lotzen zituen 80 autobideko bi erreiko zatietan
hirurehun manifestari batu ahal izango ziren gehienez; lau
erreiko zatietan, zeinak Selmatik eta Montgomerytik gertuago
baitzeuden, nahi adina manifestari. Ni Montgomeryko hirigune-
rako azken etapan ibiltariekin bat egitera gonbidatu ninduten.

Manifestariak igandez abiatu ziren Selmako Brown eliza-
tik, eta asteazken gauean iritsi ziren Montgomeryko aldirietara,
bien arteko 80 kilometroak ibilita. Dena oso ondo antolatua ze-
goen. 80 autobideak lau errei zituen zatietan hiru mila pertsona

baino gehiago biltzen ziren; bi erreiko zatietan, ordea, ez hirurehun baino gehiago. Bestalde, antolatzaileek kanpalekuak prestatu zituzten, baita jateko eta janzteko ugari ere. Jende ezagunak ere parte hartu zuen; han zen, adibidez, Dick Gregory komikoa, eskubide zibilekin lotutako auziak eta pobreen egoera ezagutarazteko gose-grebak egiteagatik ezaguna, baita Belafonte abeslaria ere, eta bi-biek manifestariak entretenitzen zituzten gauz kanpalekuetan. Kolore desberdinetako jakak ere banatu zituzten, Selmatik abiatuta bidea osorik egiten ari zirenak identifikatzeko.

Ostegunean azken zatia egin behar genuen Kapitolioaren eraikineraino, eta orduantxe batu nintzen manifestaziora. Etapa hartan jende ezagun asko zegoen; ez, ordea, E.D. Nixon. Ez zuen manifestazioarekin bat egin, ez baitzuen uste ideia ona zenik. Kanpotik begira aritu zen, eta uste dut ni ere berarekin batera egon nintzela tarte batez, manifestaziotik kanpora bota ninduten aldietatik batean.

Nolabait bitxia begitandu zitzaidan manifestazioan bizi izandakoa. Nik irudipena nuen oso denbora laburra emana nintzela Alabamatik kanpora, baina garai bateko ume ugari gazte bihurtuak zeuden ordurako. Ez zekiten nor nintzen, eta bost axola haiei nire egun hartako kontuak, ez baininduten ezagutzen. Antza denez, azken etapa hartako manifestariek kolore zehatz bateko jakak edo arropak eraman behar zituzten, eta, bistan zenez, nik ez neraman kolore egokia. Manifestaziotik kanporatzen ninduten behin eta berriro, eta esaten zidaten hura ez zela nire lekua. Hiru edo lau aldiz kanporatu ninduten, eta nik aldamenean itxaroten nuen, baten batek barrura sartzeko gonbita egiten zidan arte.

—Parks andrea, erdu manifestaziora —esaten zidaten.

—Hortxe nengoen, baina kanporatu egin naute —erantzutten nien.

—Hara! Erdu hona nirekin batera —esaten zidaten.

Gogoratzen naiz zati bat Dick Gregoryren emaztearekin egin nuela, Lillianekin. Odetta gospel-kantariarekin ere ibili nintzen. Halere, batekoagatik edo bestekoagatik, ez nuen lortzen haiekin jarraitzea edo haien erritmoari eustea, eta orduan gazteek berriz kanpora botatzen ninduten. Alabaina, ni behin eta

berrito itzultzen nintzen, eta ahaleginka egin nuen jende artean aurrera, Kapitolora iritsi nintzen arte.

Hirigunera heldu ginenean, baten batek lehen lerrora eraman ninduen, eta badut argazki bat jende oso inportantearekin: Roy Wilkins, NAACPko burua; Ralph Bunche, Bakearen Nobel Saria eskuratu zuen lehen beltz estatubatuarra; eta beste zenbait. Nolanahi ere, gehien gogoratzen dudana da manifestaziotik kanpora botatzen nindutela etengabe.

Beste kontu bat ere badut gogoan: Kapitolora iritsi ginenean, txistuka eta oihuka ari zitzaigun zuri-talde handi batekin topo egin genuen. Autobusak mistoak izatea lortu genuen, baina oraindik ere asko zegoen egiteko Montgomeryn arrazen arteko bakea lortzeko.

Eta orduan Viola Liuzzoren hilketaren berri izan genuen. Detroitekoa zen, nahiz eta nik ez nuen ezagutzen. Etxekoandre zuri bat zen, eskubide zibilei buruzko uste sendoak zituena eta erabaki zuena Alabamara autoz joatea Selmatik Montgomeryrako martxan laguntzera. Bera eta boluntario beltz bat Lowndes barrutia zeharkatzen ari ziren Montgomeryrako bidean, eta haien asmoa zen manifestazioaren amaieran jendea berriz Selmara eramaten laguntzea. Ku Klux Klaneko gizonen lepo zihoan auto bat gerturatu zitzaien, eta Viola Liuzzori tiro egin zioten.

Horren berri izan aurreko gauean amets bitxi bat izan nuen, eta oso gaizki lo egin nuen. Izan ere, txikitatik insomnia izaten nuen batzuetan, eta gau hartan ere lokartu ezinik ibili nintzen. Halako batean loak hartu ninduen, eta amets bitxi hura izan nuen. Senarra eta biok zelai batean geunden nonbaiten, eta kartel handi bat geneukan aurrean. Norbait ikusi nuen pistola batekin, eta senarrari zerbait esaten saiatu nintzen: «Bizkor, Parks, kendu paretik, tiro egingo dizute!». Orduan, bakero urdinezko lan-jantzi bat zeraman gizon bat —ez nuen ezagutzen— atera zen kartelaren atzealdetik. Ezezaguna eta biok mutur banatan geunden, eta berak pistola nireganantz destatu zuen, eta esnatu egin nintzen. Telebista jarri nuen, eta orduan jakin nuen Liuzzo andrea tiroz hil zutela.

Bihozkada bat edo izango zen, zeren gogoan dut zerbait gaizki zegoela sentitzen nuela. Martxa jada amaitua bazen ere, sentitzen nuen zerbaitek huts egiten zuela. Liuzzo andrea Detroitekoa zen, eta, bata dela bestea dela, inork ez zion ohartarazi

ez zela komeni gauetz beltzekin autoan batera eta bestera ibiltzea. Izugarria zen egoera, baina Hegoan, garai hartan, halaxe ziren kontuak.

Viola Liuzzoren hiletara joan nintzen, eta haren senarra eta seme-alabak ezagutu nituen.

1965 hartako abuztuan, Johnson presidenteak Boto Eskubidearen Legea berretsi zuen. Horren arabera, tokiko funtzionarioek hautesle-eroldan izena emateko aukera ukatuz gero, beltz-jendea aztertzaile federalen bidez erroldatu zitekeen. Lege hori ere Hegoko beltzei laguntzeko asmoz sortu zen, eta oso garrantzitsua zen.

Bi lege horiek, eskubide zibilena eta hautesle-eroldarena, beltz-jendearen eta haiek babesten zituzten pertsona zurien protesta baketsuen ondorio zuzenak izan ziren. King doktoreak tinko sinesten zuen indarkeriarik ezaren kontzeptuan. Mahatma Gandhi-ri buruz asko irakurria zen, nola hark indarkeriak gabeko manifestazioak erabili zituen Indian Britaina Handiaren independentzia lortzeko. Gandhik esana zuen indarkeriari ez zitzaiola indarkeriaz erantzun behar, eta King doktoreak esan zuen indarkeriari ez zitzaiola indarkeriaz erantzun behar; eta uste dut hain justu ere horrexegatik lortu genuela afro-amerikarrok segregazioaren aurkako hainbeste garaipen.

Hautzaroko kontuak eta orduko arazoak gogora ekartzen ditudanean, ohartzen naiz ezezaguna zitzaigula erabat indarkeriarik ezaren kontzeptua, nahiz eta guk ez genuen berariaz ezer egiten gure kontrako lintxamenduak sustatzeko. Beti pentsatu izan genuen bortizki hitz eginez eta guri ezer eginez gero guk nola erantzungo genuen adieraziz indarkeriarik ezarekin baino gehiago lortuko genuela. Lehenago ere aipatu dut umetan amonak niri esandakoak; baina niri ezinezkoa zitzaidan onartzea inork ni bultzatzea, ezta horrek bizia galaraziko bazidan ere. Harro sentitzeko hazi ninduten, eta baliagarria izan zitzaidan neure burua oldarkortasunez babestea. Bestalde, badakit nire senarrak ere esaten zuela berak mutikotan edo gaztetan bere jaioterrian, Alabamako ekialdean, ez zuela sekula aditu indarkeriarik ezari buruzko konturik. Bere burua babestu nahi bazuen, irmoki hitz egin beharra zuen; horixe zen berak zekiena.

Montgomeryko jende beltz gehienek antzera pentsatzen zuten. Maila pertsonalean, bortizkeriarik eza koldarkeriarekin

nahas zitekeen. Ekintza baketsu jendetsuen kontzeptua berria zen, eta oso polemikoa. Batzuek uste zuten arriskutsuegia zela eta indarkeria gehiago eragingo zuela. Ordura arte inork ez zuen halakorik probatu AEBn. Nik ere Ghandik Indian egindakoei buruzkoak irakurriak nituen, baina ez nuen sekula bere filosofia erabili gure protesta-ekintzetan. Halere, Montgomeryko biztanle afro-amerikar guztiek bide baketsuari ekiten ziotela ikusita, ohartu nintzen taktika hura arrakastatsua izan zitekeela. Eta arrakastatsua izan ziren, halaber, segregazioaren aurkako borrokaren garaiko gainerako protestak.

Gaur egun ere ez dut erabat babesten indarkeriarik eza egoera guztietarako. Halere, bene-benetan uste dut 1950eko eta 1960ko hamarkadetako eskubide zibilen mugimenduak ez zuela sekula hainbesteko arrakasta erdietsiko ez balitz izango King doktorearengatik eta hark indarkeriarik ezan zuen sinesmen tinkoagatik.

HAMABI

GEROZTIKO URTEAK

John Conyers abokatu afro-amerikar bat zen, John Dingle kongresukidearen lege-aholkulari gisa jardun zuena. 1964an, kongresurako hautagai gisa aurkeztu zen Michigango lehen barrutitik. Bere hautagaitzarako babes eskatu zidan, eta baiezkoa eman nion. Gustukoak nituen haren ideiak, baita ezarri nahi zituen legeak ere. Hauteskundeak irabazi ondoren, Detroiteko bulegora joateko eta berarentzat lan egiteko eskatu zidan. 1965ko martxoaren 1ean hasi nintzen, Selmatik Montgomeryrako ibilaldia baino apur bat lehenago, eta harentzat lan egin nuen 1988ko irailaren 30ean erretiroa hartu nuen arte. Harreragile eta bulegoko laguntzaile gisa jarduten nuen, eta, besteak beste, etxegabeentzako etxebizitzak lortzen laguntzen nien.

John Conyersentzat lanean hasi nintzen urte berean, Malcolm X hil zuten. Nik ez nuen ezagutzen, nahiz eta Musulman Beltzen egoitza Detroiten zegoen eta hantxe zeukaten beren Lehen Tenplua. Gu Detroitera aldatu ginenerako, bera New Yorken zegoen hango tenplu nagusia zuzentzen. Musulman Beltzek zurien kontrako gorrotoa aldarrikatzen zuten, eta nik ez nuen sekula inorenganako gorrotoarekin bat egin. Nolanahi ere, Musulman Beltzek arrakasta handia izan zuten presoak beren erlijiora konbertitzen, eta handik irten ondoren deliturik gabeko bizimodua eraman zezatela lortzen zuten. Garrantzi handia ematen zioten beltzek beren kabuz moldatzeari, beren negozioak edukitzeari eta familia-harreman sendoak izateari.

Malcolm X ere kartzelan zegoela konbertitu zen islamera. Delitugile profesionala izana zen, eta garai hartan Detroit Red esaten zioten. Musulman Beltz bihurtzeak bizitza goitik behe-


ra aldarazi zion. Alabaina, Meka-ra joan zen, Saudi Arabiara, islamaren sorburura, eta han ikasi zuen munduko beste leku batzuetako musulmanak ez zirela arrazistak eta ez zutela aldarrikatzen zurienganako gorrotorik. Musulman Beltzetatik irten zen. Tirokatu zutenean, 1965eko otsailean, gorrotoa aldarrikatzen ez zuen erakunde berri bat sortzeko ahaleginean zebilen.

Hura hil baino astebete lehenago egin nuen topo Malcolm X-rekin. Detroitera etorri zen hitzaldi bat ematera, eta ni lehenengo ilaran eseri nintzen. New Yorkeko etxean bonba su-eragile bat jarri zioten, eta, kea zela ura zela, arropa guztiak hondatu zitzaizkion; baina Detroitera etorri zen halere, halaxe hitzemanatu zuelako. Harekin hitz egin nuen, eta ekitaldiaren egitaraua sinatu zidan. Erabat aldatua zuen hitz egiteko modua. Lehenago ere entzuna nuen berbetan, baina haren mezua guztiz bestelakoa zen orduan. Asko miresten nuen, kontuan hartuta bere jatorria eta bizipenak eta zer-nolako ahalegina egin behar izan zuen Musulman Beltzen buru gisa errespetatua izateko. Gizon bikaina zen. Musulman Beltzekin zegoenean ere, ez nengoen erabat desadostasunik Malcolm X-rekin.

Gogoan dut behin indarkeriari buruz hizketan entzun nio-la. Jesu Kristok gurutzean esandako hitzei buruz aritu zen: «Aita, barka iezaeizu, ez baitakite zer ari diren». King doktoreak esaten zuen beltzek maitasunez hartu behar zutela ankerkeria, eta nire ustez ere zuzena zen helburu horren alde lan egitea. Alabaina, ezinezkoa zitzaidan neure baitan barne-egoera horretara iristea, nahiz eta badakidan King doktorearen estrategia hobea zela ziur asko Montgomeryko jendearentzat, armarik eta muniziorik gabe matxinatzen saiatzea baino.

Malcolm ere ez zen indarkeriarik ezaren aldekoa. Zertan ari ziren ez zekitenei buruz King doktoreak esan ohi zuena gogoan hartuta, Malcolmek beste hau esaten zuen eskubide zibilen aldeko manifestazio baketsuei erasotzen zieten zuri arrazistei buruz: «Zer ari ziren jakiteaz gain, *adituak* ziren horretan».

Ni John Conyersen bulegoan lanean hasi eta hiru urtera, King doktorea tiroz hil zuten. 1968ko apirilaren 4a zen. Gogoan dut ama eta biok irratia entzuten ari ginela. Aste Santua hurbil zen, eta garizuman King doktoreak sermoiak irрати bidez emateko ohitura zuen. Orduko hartan, baina, Memphis Tennesseeen zegoen, agindu baitzuen hango zabor-biltzaile beltzen aldeko



Rosa Parks Detroiteko eskola batean Afro-amerikarren Historiaren Astean
(Iturria: Rosa Parks)

manifestazioan parte hartuko zuela. Beraz, beste eliz ministro batek egin zituen irratikoak, zeinak ez baitzuen batere atsegin King doktorea; ospeagatik eta jendea erakartzeko gaitasunagatik, nik uste. Ama eta biok irratia entzuten ari ginen, eta esan genuen: «Hara hor King agurgarriaren arerioa». Eta ministroaren hitzaldiaren erdi-erdian programa eten zuten, eta King doktorea tirokatu zutela esan zuten. Izugarria izan zen.

Handik gutxira, hila zela esan zuten. Dena delakoagatik, gertaera hark ez zidan lehen erasoak bezainbat eragin, sastakatu

zutenekoak. Orduko hartan, zirrara handia eragin zidan norbaitek min eman nahi ziola pentsatzeak. Hil zutenerako, jabetua nintzen bazela min eman nahi zionik. Amak eta biok elkarrekin negar egin genuen, isilean.

Memphisera joateko prestatu nintzen. Garai hartan, Louise Tappes Detroiteko lagunak eta biok elkarrekin bidaiatzen genuen, Parksek ez baitzuen atsegin aurrera eta atzera ibiltzea. Beste zenbaitekin elkartu, eta Memphisera joan ginen, King doktoreak parte hartu behar zuen manifestaziora. Sheldon Tappesek antolatatu zuen dena; Louiseren senarra zen, eta Automobilgintzako Langileen Sindikatuko buruzagi sindikala. Geroago, Harry Belafonte abeslariak Atlantara eraman ninduen, King doktorearen hiletara, hegazkin pribatu batean. Hiletan ziren, halaber, Robert Kennedy senataria eta Ethel haren emaztea. Hiletaren aurretik ezagutu nituen, King andrearen etxean.

Handik ez askora, King doktorearekin amets egin nuen. Sutondo handi eta eder baten tximinian gora zihoan, jarleku biribil batean eserita. Parez pare nuen, bakerozko lan-jantzia soinean. Hari begira, niri bizkarra emanda, gizon zuri gazte bat zegoen, ile ilunekoa eta gorpuzkera txikikoa. Ez nion buelta askorik eman. Baina ekainean, bi hilabete geroago, Robert Kennedy hil zuten, eta ametsarekin akordatu nintzen.

Bazirudien pertsona on guztiak galtzen ari ginela.

Gehien maite nituenak galdu nituen garaitzat daukat 1970eko hamarkada. Senarra, ama eta anaia gaixorik zeuden, eta sasoi batean hiru ospitaletara joan behar izaten nuen egunero haiei bisita egitera. Lanaldi osoz lan egiteari utzi behar izan nion, eta ordu batzuek soilik lan egiten nuen. Parks 1977an hil zen, hirurogeita hamalau urterekin, bost urtez minbiziaren kontra borrokatu ondoren. Anaia, Sylvester, hiru hilabete geroago hil zen, hura ere minbiziarekin. Amak ere minbizia zuen, eta senarra hil ondoren egoitza batera eraman behar izan nuen, ezinezkoa baitzitzaidan hura behar bezala zaintzea eta lan ere egitea. Baina bisitan joaten nintzaion gosaritan, bazkaritan eta afaritan, egunero-egunero eta asteko egun guztietan.

1978an, adineko pertsonentzat prestatutako eraikin batego apartamentu batera aldatu nintzen. Ama egoitza atera nuen eta neurekin eraman, eta etxean zaindu nuen azkeneraino. 1979an hil zen, laurogeita hamaika urterekin.



Raymond Parks, Louise Tappes, Rosa, Septima Clark eta Coretta Scott King Detroiten elkartu ziren 1965ean, Emakumeen Kontseilu Politikoak Rosa omendu zuenean (Iturria: Rosa Parks)

Garai hartan ni ere makal antzean nenbilen, baina lanean jarraitu nuen. Ezin nuen egin nik egin nahiko nukeen guztia, baina ahal nuena egiten nuen.

Bazen gauza bat luzaz egin nahi izan nuena: gazteei laguntzeko erakunde bat sortu. 1987an, Garapen Pertsonalerako Rosa eta Raymond Parks Institutua sortu nuen, eta geroztik lan handia egin dut proiektu horretarako dirua biltzeko.

Zentro komunitario baten antzera irudikatzen dut Institutua. Gazteei zuzendutako programak izango ditu, ikasten jarrai dezaten eta etorkizunari itxaropenez begiratu diezaieten. Helburu hori beti oso gertu sentitu dut. Senarrak ere askotan hitz egiten zuen horretaz, berak gaztetan ez zuelako izan ikasteko aukerarik. Institutuaren bitartez bekak eman nahi dizkiet merzei duten ikasleei, eta askotariko ikastaroak ere eskaini nahi dizkiet —komunikazioa, ekonomia, kontzientziazio politikoa eta osasunaren arlokoa...—, ahalik eta gaitasun handiena lortzen laguntzeko eta trebetasun egokiak emateko, gizarteari ekarpen bat

egiten diezaioten eta herritar produktiboak izan daitezen. Haiek ere nik familiari eta irakasleei ikasitako itxaropen, duintasun eta harrotasun bera izatea nahi nuke.

Elaine Steele ere Institutuaren fundatzaileetako bat da, eta bera da zuzendari exekutiboa. Era berean, bera arduratzen da antolamenduaz, eta nirekin batera bidaiatzen du herrialdeko han-hemengo erakundeek hitzaldi bat ematera edo agerraldi batean parte hartzera gonbidatzen nautenean. Askotan gertatzen da hori, nahiz eta hogeita hamar urte baino gehiago igaro diren Montgomeryko autobusen aurkako boikotetik.

Zail litzaidake omendu nauten edo ekitaldi berezi batean edo bestean parte hartzera gonbidatu nauten hiri, herri eta erakunde guztien zerrenda egitea. Baten bat kanpoan utziko nuke, eta ez nuke nahi inork hori gutxiespentzat hartzerik. Halere, horrekin lotutako bi kontu aipatu nahi ditut, biak ere Montgomery Alabamakoak, hortxe hasi baitzen guztia.

Batetik, Cleveland Avenue lineako autobus batean atxilotu ninduten 1955eko abenduan; gaur egun, Cleveland Avenuek Rosa Parks Boulevard du izena.

Bestetik, 1989an, oroigarritzko monumentu bat inauguratu zuten Montgomeryn. Pobreziaren aurkako Hegoaldeko Lege Aholkularitzako Zentroak eraiki zuen, eta eskulturaren diseinatzailea Maya Lin arkitektoa izan zen; berak diseinatu zen, halaber, Washington DCko Vietnamgo Gerraren Memoriala. Pareta kurbatu bat da, eta granitozko mahai biribil beltz bat du aurrean, zeinak eskubide zibilen aldeko mugimenduan hildako berrogei gizon-emakumeren izenak baititu grabatuak. Paretatik ur-jauzi bat ateratzen da, eta urak geruza mehe bat eratzen du King doktorearen hitz hauen gainean:

«...justizia ura bezala eta zuzentasuna ur biziko xirripa bezala etorri arte»

Denborak aurrera egin ahala, jendeak gero eta gehiago puztu du nik eskubide zibilen aldeko mugimenduaren historian dudan tokia. Eskubide Zibilen aldeko Mugimenduaren Ama deitzen didate, baita Eskubide Zibilen aldeko Mugimenduaren Zaindaria ere. Ezin konta ahala *honoris causa* titulu, plaka eta sari dauzkat etxean, eta guzti-guztiak eskertzen eta estimatzen ditut. Oraindik ere, elkarrizketatzaileek 1955eko arrats hartaz soilik hitz egin nahi izaten dute, autobusean nire jarlekua uz-



Detroiteko 12. kaleari Rosa Parks Boulevard izena jarri zioten 1975ean (Iturria: Rosa Parks)

teari uko egin nionekoaz. Eta, oraindik ere, antolatzaileek duela hogeita hamar urte baino gehiagoko ekintza harengatik saritu nahi izaten naute. Pozik joaten naiz gonbidatzen nauten toki guztietara, eta pozik jasotzen ditut egiten dizkidaten ohore guztiak. Jabetzen naiz sinbolo bat naizela.

Halere, ez naiz sekula ohitu «pertsonaia publikoa» izatera. Ez dut oso atsegin jendeak nire osasunaren berri izatea. Zahartu ahala, ohikoa da apur bat makaltzea. Ospitalera noan aldiro, egunkarietan ateratzen da. Halaxe atera zen 1988an, tau-pada-markagailua jarri zidatenean Baltimoreko John Hopkins ospitalean, baita 1989an ere, bularreko palpitazioak zirela-eta berriz ospitaleratu behar izan nindutenean. Nolanahi ere, atsegina da ospitalean zaudela postalak, loreak eta adorezko hitzak jasotzea herrialde osotik.

Nire bizitza izugarri aldatu da 1955az geroztik. Inoiz pentsatuko nuen baino askoz bidaia gehiago egin ditut, eta bestela ezagutuko ez nuen jende ugari ezagutu dut. Hizketan gaudela, batzuek sinetsarazi nahi izaten didate eragin handia eta askotarikoa izan dudala beren bizitzetan.


Atzera begiratuta, ohartzen naiz Montgomery Alabamako arrats hartatik asko eta asko aurreratu dugula hainbat kontutan. Orain gazteak hautesle-eroldan izena ematera joan daitezke inoren mehatxurik jaso gabe, eta botoa ere eman dezakete beldurrak airean egon gabe. Iturri publikoetan ez dago «Zuriak» eta «Beltzak» dioen seinalerik. Alkatea beltza da zenbait hiri handitan, eta alkate eta poliziaburu beltzak daude herri txiki batzuetan. Tom Bradley AEBko hiri handi bateko alkate hautatu zuten, eta bera izan zen halako toki bateko lehen alkate afro-amerikarra. Douglas L. Wilder Virginiako gobernadore hautatu zuten, eta estatu bateko lehen gobernadore beltza izan zen. Eta duela hogeita hamar urte inork ez zuen sinetsiko Jesse Jackson, gizon beltza bera, Ameriketako Estatu Batuetako presidentetzara aurkeztu ahalko zenik eta zurien botoak jasoko zituenik estatu-ko hauteskunde primarioetan.

Segregazioaren aurkako lege horiek guztiak ezarri dira, eta aitzinamendu horiek guztiak egin dira. Baina jende zuri asko eta askoren bihotzak ez dira aldatu. King doktoreak esan ohi zuen legea aldatzeak ez zuela esan nahi bihotzak ere aldatu zirenik, baizik eta babes pixka bat lortzen genuela. Arrazoa zuen. Orain badugu nolabaiteko babesa, baina oraindik ere arrazismo eta arraza-indarkeria handia dago.

Azken urteetan, jarrera erreakzionarioak piztu dira berriro. Kezkagarriak zaizkit Auzitegi Gorenaren azken erabakiak, horien arabera zailagoa baita arraza-diskriminazio errepikako-

rrak frogatzea lan-kontratazioetan; bestalde, ez dirudi gobernu nazionalak eskubide zibilen urraketak ikertzeko asmo handirik duenik. Eta arduratzen nau, halaber, jakiteak gazte ugari, baita unibertsitateko ikasleek ere, gailentasun zuria babesten dutela eta unibertsitateetako campusetan arrazismoarekin eta arraza-indarkeriarekin lotutako gero eta ekintza gehiago gertatzen direla. Halakoak ez dira denera hedatu, baina kezkarriak dira nolana ere. Badirudi oraindik ere bide luzea dugula egiteko.

Asko tristatzen naute azkenaldiko gertaera batzuek. Itxa-ropenari eusten saiatzen banaiz ere, ez da beti erraza izaten. Bizitza erdia baino gehiago eman dut maitasuna eta senidetasuna irakasten, eta uste dut hobe dela berdintasuna eta maitasuna irakasteko edo bizitzeko ahalegina egiten jarraitzea gorrotoa eta aurrejuzgua sustatzea baino. Denok elkarrekin bakean, harmonian eta maitasunean bizitzea... Hori da gure azken helburua, eta, nire ustez, zenbat eta jende gehiagok erdietsi gogo-aldarte hori, orduan eta hobeto egongo gara guztiok.



Rosa Parks en retratua, 1980ko hamarkadako
(Iturria: Rosa Parks)

KRONOLOGIA

1913ko otsailaren 4a

Rosa McCauley jaio zen, Tuskegeen (Alabama).

1918

Eskolan hasi zen, Pine Levelen (Alabama).

1924

Eskolan hasi zen, Montgomeryn.

1929

Eskola utzi zuen, amona zaintzeko.

1932ko abendua

Raymond Parksekin ezkondu zen, Pine Levelen (Alabama).

1933

Batxilergo-titulua eskuratu zuen.

1943ko abendua

NAACPko idazkari izendatu zuten.

1943

Hautesle-erroldan izena ematen saiatu zen, eta ukatu egin zioten.

Autobusetik bota zuten lehen aldiz, atzeko atetik ez sartzea-gatik.

1944

Hautesle-erroldan izena ematen saiatu zen bigarrenenez, eta berriro ukatu zioten.

1945

Botoa emateko ziurtagiria lortu zuen, azkenean ere.

1949

NAACPren Gazte Kontseiluko aholkulari izendatu zuten.

1955eko uda

Highlander Herri Eskolaren (Monteagle, Tennessee) mintegi batean parte hartu zuen lehen aldiz.

1955eko abuztua

Martin Luther King Jr. doktorea ezagutu zuen.

1955eko abenduaren 1a

Montgomeryko autobus batean atxilotu zuten, bere jarlekua gizon zuri bati ez uzteagatik.

1955eko abenduaren 5a

Epaitu eta erruduntzat jo zuten.

Montgomery Hobetzeko Elkarteak sortu zuten eliz ministroen bilera batean parte hartu zuen.

Montgomeryko autobusen aurkako boikota hasi zen.

1956ko urtarrila

Montgomery Fair saltoki handiko lana galdu zuen.

1956ko otsailaren 21a

Berriz auzipetu zuten, boikota egiteagatik.

1956eko azaroaren 13a

AEBko Auzitegi Gorenak konstituzioaren aurkakotzat jo zuen Montgomeryko autobusetako segregazioa.

1956eko abenduaren 21a

Boikotatzaileak autobusetara itzuli ziren.

1957

Rosa Parks Detroitera aldatu zen.

1963

Eskubide Zibilen aldeko Manifestazioan parte hartu zuen, Washingtonen.

Hizlari jardun zuen SCLCren urteko batzarrean.

1965eko martxoa

Selmatik Montgomeryrako ibilaldian parte hartu zuen.

1965

John Conyers kongresukidearentzat lanean hasi zen, Detroiten.

1977

Raymond Parks hil zen.

1979

Leona McCauley, Rosaren ama, hil zen.

1987

Garapen Pertsonalerako Rosa eta Raymond Parks Institutua sortu zuen.

1988ko iraila

Erretiroa hartu zuen, John Conyersentzat lanean ari zela.

1989ko azaroa

Eskubide Zibilen Memorialaren inaugurazioan parte hartu zuen, Montgomeryn (Alabama).

1991eko otsailaren 28a

Rosa Parksen bustoa erakutsi zuten Smithsonian erakundean.

